

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarreak argitaratu du obra hau, elkarreaken sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA



Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK



Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA



Caja VITAL Kutxa



Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU



Deustuko Unibertsitatea



Plan de Fomento
de la Lectura



**POLITIKA, ETA ZIENTZIA
LANBIDE**

Euskaratzailea: **Pello Zabaleta**

Max Weber

POLITIKA, ETA ZIENTZIA LANBIDE



Jatorrizko izenburua:
Politik als Beruf eta Wissenschaft als Beruf
Euskaratzailea: *Pello Zabaleta Kortabarria*
Berrikuslea: *Lorea Arrieta*

Lehen argitalpena: 2007ko abenduan

© Itzulpenarena: *Pello Zabaleta Kortabarria*
© Klasikoak, 2007-XI-12
Begoñako Andra Mari, 16
48006 Bilbo
Tel.: 944 161 489
Fax: 944 166 348

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 84-96455-15-7
Lege gordailua: BI.-1959-06

Diseinua Azala: Área Gráfica
Roberto Turégano
San Lorenzo, 5. 28004 Madrid

Diseinua Maketa: LA Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10. 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3. 48004 Bilbo

HITZAURREA

1.

Max Weber zientzia-gizona izan zen, ez gizaki politikoa edo estatu-gizona, inoiz edo behin kazetari politiko izan bazen ere. Gauza publikoaz biziki kezkatu egon zen bizitza osoan, eta nostalgia moduko bat sentitu zuen beti politikari dagokionez, haren pentsamenduaren azken xedea ekintzan parte hartzea izan balitz bezala.

Heldutasunera iristean, inperio alemaniarraren lora-
tzea, Bismarcken erorketa eta enperadore gaztearen aldetik
bere erantzukizunak hartzea ikusi zituen belaunaldikoa da.
XIX. mendeko azken hamabost urteak —Max Weberren
heziketa-garaia, hogeita eta hogeita bost urteen artean— le-
ge-
di sozialaren garapenak, enperadorearen lehen esku-hartzeak
diplomazian eta, sakonago oraindik, Bismarcken ondareari
buruzko gogoetak markatzen dituzte. Zein da Alemaniaren
egitekoa, batasuna lortu duenean? Zein izan behar du haren
papa munduko eszenatokian? Zein erregimen da nazioaren
batasuna berreraikitzeke gai? Max Weberren belaunaldiak
berez planteatzen ditu historiak gero erantzun tragikoa eman-
go dien arazoak.

Arrazoi pertsonalagoek argitzen dute haren jarrera. Ez
zuen sekula azpimarratu gabe utzi politikak ez zuela zeregi-
nik eskoletan, etengabe errepikatu zuen politikoaren bertu-
teak zientzia-gizonarenekin bateraezinak direla; baina bi eki-
menak bereizteko haren ahalegina ez zen bien artean zegoen
loturaren kontzientzia baino zorrotzagoa. Ezin daiteke izan
une berean ekimen-gizon eta ikerketa-gizon, bi lanbideetan

bataren eta bestearen duintasuna urratu gabe, bien bokazioari huts egin gabe. Baina unibertitateaz at jarrera politikoak har daitezke, eta jakite objektiboa izatea, ezinbestekoa ez bada ere, mesedegarria da arrazoizko ekintza baterako. Labur esanda: Max Weberren pentsamenduan, zientziaren eta politikaren arteko erlazioak ez dira bereizten, beti esan ohi den bezala, beharrezko bereizkuntzaren bidez. Berak zientziazat ulertzen duena ekintza-gizonari baliozko gerta dakiokena da, honen jarrera, bere xedean, baina ez egituran, zientzia-gizonarenetik bereizten den bitartean.

Ekintza-gizona da, aukera berezi eta aparteko batean, bere balioen arabera aukeratu eta determinismoaren sarean gertakari berri bat sartzen duena. Hartutako erabakiaren ondorioak ez dira aldeztu aurretik igar daitezkeenak, aukera bakarra den heinean. Aldeztu aurretik zientifikoki ikustea bakarrik gauzatzen da errepika daitezkeen gertakarien segidan, edo, bestela esanda: aurreikuspen zientifikoa gauzatzen da konkretutik eratorririko eta orokortasun-maila jakin batera jasoriko erlazioei dagokienean bakarrik. Ez da egia txikiagoa, halere, ezen arrazoizko erabakiak eskura dauden ezagutza abstraktu guztien mukurua egotz dakion eskatzen duela, ez ustekabeko berezitasunaren atala ezabatzeko, hura menderatzeko eta isolatzeko baizik. Max Weberrek teoriarako nahi zuen bezala, kausaren eta ondorioaren zerikusiak aztertuko dituen zientzia bera da halaber ekintza-gizonaren premiei erantzuten diena.

Haren ustez, kausalitate historikoaren teoria, iragane-
ra begira egindako posibilitate-kalkuluaren gainean oinarritua (zer gerta zatekeen baldin...?), egileek eduki zituzten edo eduki zitzaizketen gogoeten berreraikitze nolabaitekoa baino ez da.

Arrazoiz jokatzeari, gogoetatu ondoren, nahi den helburua erdiesteko aukerarik gehien eskaintzen dituen aukeratzeari da. Ekintzaren teoria arriskuaren teoria da, eta une

berean kausalitatearen teoria. Kausalitate historikoari dago-kionez, bere buruari galdezka ari den historialariak berriro bizitzen ditu bere espirituan egileek ekintzaren aurretik egin zituzten gogoetetan kontuan hartu zituzten edo har zitzaketen gertakari posibleak.

Galdeketa kausala ez zaie egozten norbanako baten edo batzuen gogoetazko erabakiei soilik. Zer gerta zatekeen baldin...? galdera planteatzen da bai inork nahi ez zituen gertakariei dagokienez (gertakari fisikoak, ekaitzak, urre-mea-tegiak ahitzea, gatazka bateko garaipena edo porrota, e.a.), bai erabaki pertsonalei dagokienez. Iraganera begira izandako saihets ezintasunaren ilusioa ekiditeko ahalegina beti da historialari politikoaren ezaugarria, gizakiengan eta haien borroketan interesaturik dagoelarik, iragana berpiztean, ekintzaren neurri berezia, hau da etorkizunarekiko zalantza gorde nahi duen historialariaren ezaugarria; ezinezko gerta baitzitzaiokeen historialariari zalantza hori gordetzea ez bada baieztsiz, gertatuaren onartzearen kontra, erreala ez zegoela alde z aurretik idatzia eta halako pertsonen eta halako gorabeheren esku zegoela historia bestelakoa izan zedin.

Zientziaren eta politikaren arteko lotura Max Weberengan estua azaltzen da era berean kontuan hartzen bada ez kausazko erlazioak, balioak baizik: balioen erreferentzia zientziaren kasuan, balioen baieztapena ekintzarenan. Egintzak hautatzea, kontzeptuak lantzea, objektua finkatzea —esan ohi zuen Max Weberrek— hori guztia gure jakin-minaren norabideak markatzen du. Zientzia naturalak datu sentigarrien muga-gabetasunean hautatzen ditu errepika daitezkeen fenomenoak, eta legeen eraikuntza jasotzen du. Kulturaren zientziak, giza fenomenoen muga-gabetasunean balioei dagokiena, garaikideen balioei edo historialariaren balioei dagokiena hautatzen du, eta, edo historia lantzen du, baldin jakitsuak gertakarien eta gizarteen segidari eskaintzen badio arreta, edota ondorio ohikoak edo nolabait iraunko-

rrak diren multzoak kontuan hartzen dituzten gizarte-zientzia desberdinak lantzen ditu.

Max Weberren pentsamenduan, zientzia historikoak eta kulturaren zientziak helburu dute ulertzea gizakiak bizi ziren modua, beren bizitzei eman zieten zentzua, balioen artean finkatu zuten hierarkia...; ekimen politikoa, aldiz, hautatu ez ditugun baldintzetan, gure elkarte eta gure izatea bera eratzten duten balioak sustatzeko ahalegina da.

Bestea ulertzeak ez du eskatzen norberaz gogoetatu beharra. Beste batzuek iraganean egin zuten egintza ulertzeak ez garamatza ezinbestean gaurko egunean jokatzeko borondata. Filosofikoki eta, modan dagoen jargoian hitz egiteko, existentzialki, badago nolabaiteko lotura norberaren burua ezagutzearen eta gainerakoena ezagutzearen artean, desagertu diren gizakien artean izan ziren borrokak berpiztearen eta gaurko jarrera hartzearen artean.

Izan ere, bada historialaririk besteek bizi izan dituzten bizitzak ulertzeko ahalegina egiten duenik berak bizi duenaz bere buruari galdetu ere egin gabe. Bada politikorik bere lanbidearen eta berak edo gizarteak gaur beren existentziari ematen dioten zentzuaren artean erlaziorik batere ikusten ez duenik. Legez, iraganaren ikerketa ez da bereizten norberaren kontzientzia hartzetik. Legez, gertakarien joanean eta helburu gorenei dagokienean kokatzen denean soilik da gizatiarra egintza. Bestearekin topo egitearen eta norberaren burua aurkitzearen arteko elkarrekikotasuna historialariaren beraren ekimenean emana dago. Ezagutzaren eta ekintzaren arteko elkarrekikotasuna inmanentea zaio gizaki historikoaren existentziari berari, eta historialariarenari. Max Weberrek debekatu egiten zuen irakasleak, unibertsitate barruan, foroko eztabaidetan parte har zezan, baina ezin gera zitekeen ekintza, lumaren edo hitzaren bidezko ekintza bederen, bere lanaren azken helburutzat jo gabe.

Inoiz piztu da eztabaida ea zein neurritan adierazten den era egokian Max Weberren pentsamendua Rickerten

neokantismoko kategoria eta hiztegia erabiliz. Nire ustez, berak ezagutu bai, baina oso gutxi erabili zuen Husserlen fenomenologiak eskaini ziezaiokeen berak bilatzen duen tresna filosofiko eta logikoa. Ulerpenari buruzko bere ikerketetan, Jaspersen psikologismoaren (honek bere psikopatologia idazten zuen garaian) eta neokantismoaren arteko gorabeherak eragotziko zizkion, ez baitira iristen esanahira balioen bidez ez bada. Plantea daiteke orobat ea zenbateraino egokitzen den Max Weberren praktika teoriaren eskemetara. Erlazio kausalek haren teorian adina leku hartzen dute haren praktikan? Soziologia erlijiosoari buruzko haren ikerketak ez al dira funtsean sineste eta ideia-sistema desberdinen miaketa bat, osagai desberdinen eragin propioa isolatzeko baino gehiago, ideien eta erakundeen elkarren arteko gurutzatzea, balio erlijiosoen eta jarrera sozialen arteko lotura agerian jartzeko balio duena? *Wirtschaft und Gesellschaften* funtsezkoena ez al da botere eta ekonomia mota desberdinen egitura ulergarria adieraztea? Orduan, aukera jakin batean erlazio ulergarria izateko aski ez bada ere, haren egiazkotasunaren egiaztatzeak ez du zerikusirik batere erlazio ulergarria eta erlazio kausala bat etortzearekin.

Max Weberrek, izan ere, teorian sotildu egiten zuen bai historialariak edo soziologoak aurkitzen duten erlazio ulergarrien aniztasuna, eta baita ulergarritasunaren eta adierazpenaren artean dauden erlazioen katramila, edo emanean dagoen erlazio inmanentearen eta atzera begira egindako probabilitate-kalkuluei esker landutako erlazioaren artekoa ere. Ulergarritasun mota ugari daude, ekonomia abstraktuaren legeen araberrako portaeratik suminaren logikaren araberrako portaerara doazenak, salbazioko doktrina jakin baten ulertzeak agintzen duen portaeratik pasatuz. Egiaztapenak ez du esanahi bera Max Weberrek ulerkortasunaren bere metodologian batera tratatu ohi zituen erlazio ulergarri hauetako bata edo bestea hautatzen bada. Haren ustez, zuzenketek eta osaketek ez dute aldaketa erabakigarririk ekartzen gure ikerketako gai

nagusiarri dagokionez. Nire ustez, aldiz, aukera batzuetan, teoria ekonomikoari eta gertakari bat gure eskema batekin aurrez aurre jarri eta argitzeari dagokionean, objektibotasun eta unibertsaltasun eskuragarriak azpimarratu beharko lirateke. Baina ez litzateke beharrezko izango oinarrizko berrikusketarik.

Har dezagun ulermenaren kasua. Esan izan da maitasuna eta gorrotoa direla ulermenaren egiazko baliaabideak. Alferrik da objektibotasuna gomendatzea, baldin horrekin balioekiko aihergatasuna ulertzen bada, kontua gizakien auziak direnean, atzoko eta gaurko gizakienak eta haien egite bedeinkatu edo madarikatuenak. Ezin atzeman daiteke desagertu diren izaki horien arima sakona, baldin bizi direnek haiekiko sortzen dituzten sentimenen antzekoak esperimentatuko ez balira. Max Weberrek seguruenara ez zukeen eragozpenik izango ohar-keta hauetan dagoen egia zatia onartzeko, baina horren irismena ikerketaren psikologiara mugatuko zukeen, zientziaren logikara hedatu gabe. Ulermenera *sine ira et studio* jotzeko agindu moralari bezala obren existentziari, ezagukizun diren objektu bezala eta ez estimatzeko balio bezala aurre egiteko betebeharrari eutsiko ziokeen.

Proposamen ekonomiko eta soziologikoei dagokienez —haien egia, gizarte jakin batentzat edo, abstrakzio maila handiago batean, edozein gizarterentzat, Max Weberrek iradokitzen duena baino gutxiago legokeelarik lotua presentearrekin—, esan daiteke ez dutela aldatzen funtsean hautaketaren eta ekintzaren analisia. Egia horiek partzialak dira, eta gizakiari dagozkion balioak anitzak; gutxitan gertatzen da aldez aurretik ikus daitezkeen ondorioak gure balioekin bat etorri eta norbanako guztientzat atseginak izatea. Ez zientziaren subjektibotasunak ez erlatibitateak egiten dute beharrezko hautatzea, bai ordea egia zientifikoen izaera partzialak eta balioen aniztasunak.

Bestalde, Max Weberri leporatu izan zaio gaindituriko eskemak —gertakaria eta balioa, bitartekoa eta xedea— era-

bili zituela hautaketa politikoaren fenomenologia azaltzeko eta hortaz azterketa hori faltsua dela, baina eragozpen horrek, nire ustez, alde batera uzten du funtsezkoena. Derrigorrezkoa izango da onartzea balioari kontrajartzen zaion gertakaria ez dela eraikia izan historialariak balioei erreferentziarik egin gabe. Balioak ez baieztatzen ez amaitzen dira norbanakoaren eta inguruaren arteko truke etengaberik gabe, truke hori baita gizakiaren historikotasunaren ezaugarrietako bat. Era berean, xede hurbila hurrengo ekintza baten bitarteko bihurtzen da, oraingo bitartekoa iraganeko ekintza baten xede izan zitekeen bezalaxe. Gehiago oraindik, zalantza egitekoa da pertsonak hartzen duen jarrera bereizkuntza horretara laburbildu ote daitekeen. Historiaren gainean nolabaiteko ikuspuntu bat hartzean, alderdi bati atxikitzetik, antolaketa eta ekintza teknika jakin bat izenpetzetik hurbil egon ohi da bat. Ikuspuntu osoak zertzen du bitartekoen hautaketa bezala xedeena ere.

Max Weberrek bazekien gauzak gisa honetan gertatzen direla. Marxistak badaki aldi berean beharrezko eta desiragarri den historiako mugimendu baten ulermen egiazkoa daukela eta ulermen horrek alderdi bati eta ekintza-metodo bati lotzea eskatzen duela. Esperientziak nabari erakutsi du filosofia horrek ez alderdiei buruzko zalantza ez metodoei buruzko zalantza desegiten dituela. Inor ez da borrokatzen gogortasun handiagoz jaun beraren morroi direla uste dutenak baino. Baina esperientzia hori alde batera utzita ere, Max Weberrek ukatu egingo zukeen historiaren filosofia batek etorkizun ziur bat iragar dezakeenik eta, une berean, jarrera bat agindu bidez diktatu. Etorkizunaren aurreikuspenak determinismo motaren bat dakar, eta determinismoa, etortzeko dagoen puntu batera zuzendurik, atzera begira erabiltzen dena bezain partziala eta oraindik probabilistagoa izan ohi da. Aukerarik onenean, alde aurretik ezagutu ditzakegun etorkizuneko gizartearen ezaugarriak balio-epai kontrajarrien bidez dira ordezkatuak, gizakien irrika guztiak asebetetzen ez dituztelako. Ez da derrigorrezkoa zientziak iragartzen diguna maita-

tzea. Ezinbestekotzat saltzen zaigun bilakaera bat azkartzeko edo mantsotzeko libre izaki, osoko ikuspuntua hautatzera behartuta egonik, aukera berezi batean ekintza-gizon batek aurre egin behar dion egoeraren pareko egoeran aurkitzen gara gu. Beha ditzagun gertakariak, xede jakin batzuk nahi ditugu eta, hautaketaren arriskuak gure gain hartuz, hautatzen dugu ez gure eskura dagoen osotasun bat, ez gure etsipenaren edo gure fedearen *alibi* bat baino ez den premia bat, ez historiaren horizontean kokaturik dagoen ideia bat baino ez den gizakien eta jainkoen arteko baketze bat aipatzeko eskubiderik gabe.

Auzitan dagoena ez da, beraz, bitarteko-xede eskema, xinglegia baita, ezta irismen filosofiko eztabaidagarria duen gertakari-balio bereizkuntza ere. Max Weberren pentsamendua gezurtatzeko egiaztatu beharko litzateke zientziak historia errearen egia agerian jartzen digula, edota aurrez finaturiko etorkizun bat alde aurretik ezagutzen duela, edota, azkenik, taldeen eta balioen arteko gorabeheren konponbidea agintzen duela.

Max Weberrek gogo bizia zuen egiaztatzeko zientziak baduela zentzurik eta merezi duela hartara emanda egotea, horrek munduari bere liluraz biluztea badakar ere, eta, berez, amaitu ezin daitekeena bada ere.

Bi frontetan ziharduen borrokan: bata zen pentsamendu arrazionalaren gardentasuna usteltzearekin mehatxatzen zutenen kontra, harekin jarrera politikoak edo isuri sentimentalak nahastuz, eta bestea zen zientziari naturaren eta gizakiaren ezkutukia jasotzeko gaitasuna egotziz, zientziaren esanahia faltsutzen zutenen kontra. Max Weberren pentsamoldean, zientziaren defentsak eta argitzeak tonu patetikoak dauka, nostalgia baten oihartzun moteldua, ekintza-gizon baten egonarririk eza sumatzen baita harengan. Ezagutza ez zen soilik amairik ez zuen katea, baizik betetasun eta gauzatze zen garaien nostalgia. Ekintza-gizon baten egonarririk eza, zientziari bitartekoen eta ondorioen ezagutza eskatzen dien ekintza-gizonarena, nahiz eta jakin badakien zientziak ez duela

libratuko hautatu beharretik, askotarikoak direlako jainkoak eta balioak kontraesanez beteak.

Die Entzauberung der Welt durch die Wissenschaft, zientziak mundua deslilurutzen jarraitzen du. Benetako zientziak, dela fisikak edo soziologiak, ez digu ematen mundu kosmiko edo gizatiarraren irudi erabatekoa, eta gizakiok ezin dugu irakurri gure patua edo gure egitekoa. Halere, Europako unibertsitateen gainean bi gertakari latz gertatu dira gure garaian, larritasun gogorra sortu dutenak. Buruzagi zibil edo militarren esku zientziaren aurrerapenak ipini dituen suntsitze-baliabideak hain dira neurrigabeak non aurkikuntza horien eta haien erabileren erantzukizuna duten jakitunak hasiak baitira beren buruei erantzukizuna eskatzen. Ezagutzen ditugu, bai, gure mendean sortutako tirania positiboak, jakintsuei estatuarekiko leialtasuna ezartzera mugatzen ez direnak (hori gizakientzat gorrotagarri gerta liteke, baina ez hilgarri zientziarentzat), areago oraindik, egia objektiboki bilatzea eta esatea jasan ezinezkotzat daukatena. Iraganeko sintesi erlijiosoen karikatura barregarri baino ez den doktrina ustez erabatekoa ezarri nahi diete tirania horiek unibertsitateei.

Hitz gutxi batzuk baino ez ditut esango lehenbiziko gertakariari buruz. Ekoizteko gaitasunean handitze orori, duela zenbait mendetatik hona, suntsitzeko gaitasunean handitze batek lagun egin dio. Gaurko berritasuna kopuruari dagokio bakarrik. Kopuruaren handitzea da kalitatearen diferentzia dakarrena. Jakintsuak, berak bakarka, ezin har zezakeen ardurarik batere bere lanak gerrako industriarako ustiatzearen aurrean. Besteekin elkarturik, estatuaren zerbitzuari ihes egiten dio eta beste estatu batzuei egiten die mesede, norbanakoen askatasunak gehien murrizten dituztenei hain zuzen ere. Bakeaz edo gerraz eztabaidatzen hasi bezain laster, jakintsuen elkarteak elkarte zientifikoak izateari utzi eta elkarte politiko bihurtzen dira. Haien ideiak sinesgarriagoak lirатеке baldin fisika nuklearraren alorrean haien egileei, itsu-itsuan,

egotzi ohi zaien autoritatearen pareko xalotasuna azalduko ez balute diplomaziaren alorrean.

Giza zientziez arduratzen garenontzat garrantzi handiagokoa da bigarren gertakaria: unibertsitateen gainean eta zientziaren gainean erregimen politiko batzuek ipintzen duten mehatxua. Ikusi da jada matematika ario bat, eta ezagutzen dugu, halaber, estatu bat ezaugarri eskuratuen jarauntsigarritasunari edo Mendelen teoriari buruzko eztabaida zientifikoa ebazteko bere boterea erabiltzen duena. Bi adibide horiek ezaugarri desberdinak dituzte. Azken batean, ez dut uste matematikari alemaniar asko izan denik matematika arioaren eta matematika juduaren arteko diferentzia serio hartu izan duenik, ezta fisikari asko ere Einstein bere erlijioa dela-eta gaitzetsia uste izan duenik. Larria da, hala eta guztiz ere, ikustea zenbat jakintsu dagoen Alemania bezalako lurralde batean komeria lotsagarri hau isilik jasatera beharturik, eta ikustea horiek bezalako gaiak serio hartzen dituztelako itxurak eginenez, zer-nolako kaltea eragiten dioten espirituaren nazioarteko errepublika horri, hura baita jakintsuen elkarte berezko eta beharrezkoa.

Ez dago gauza faltsuagorik jakintsu batek, bere fantasiara eta bere jainura guztiz emanik, bakarrik lan egiten duen ideia baino: matematikariak, fisikariak, biologoak, mugek urruntzen dituztela eta planeta osoan zehar barreiaturik daudela, ikertzaile-elkarte baten eta arau intelektual ez idatzi baina bai betebeharrezko batzuen lokarri ikusezinez daude elkarren artean loturik. Irtenbidea behar duen arazoak zientziaren aurrerapenak finkatzen ditu, eta horrek argitzen du zergatik gertatzen diren aurkikuntza batzuk une berean batera. Egia bat denari buruzko uste inplizitu eta kasik berezko batek irtenbide jakin batzuk albo batera uztera, elkarren arteko kritikak onartzera eta trukearekin aberastera garamatza.

Espekulazio matematiko eta fisiko batzuk hain soti-lak bihurtu dira, non zientziaren errepublikak ez dituen jada

hartzen, mundu zabalean, kide gutxi batzuk baino. Baina espekulazio horiek, hala eta guztiz ere, beti dira unibertsalak, haiek ulertzeko gauza diren espirituei zuzenduak eta beren izaerari arrotz zaion agindu orori uzkur. Matematikaria eta filosofoa den Cavailles nire adiskideak logika matematikoari buruzko liburu bat idatzi zuen polizia atzetik zuela. Frantsesa eta gudaria, okupatzailearen kontra gudukatu zen. Logikaria zen aldetik, Cantor-en, Hilbert-en eta Husserl-en jarraitzaile zen betiere. Instrukzio-epailearen aurrean kultura alemaniarreko onenarekiko gordetzen zuen miresmena azaldu zuen. Ez zitzaion burutik pasatzen gatazka kolektiboak, haiengatik bere bizitza emateraino bere egiten zituenak ere, bere bokazioari leial, egiaren bilaketari leial zitzaion santutegian sar zitezkeenik.

Estatu batek edo alderdi batek zientziari ikerketa-gaiak eta ekimen-legeak ezarri nahi dizkionean, norbanako jakin batzuk edo nazio jakin batzuk baztertu nahi dituenen, esperientziaren edo arrazoiketaren bidez bakarrik gaindi daitzkeen eztabaidetan ebazteraino iristen denean, orduan ez da aski, formula hutsal bat erabiliz, kolektibitateak norbanakoak zapaltzen dituelako ideiaz hitz egitea. Auzia orduan da talde politiko bat zilegi ez den moduan nahasten dela talde espiritual baten ekimenean edo, bestela esanda, totalitarismoaren erroan bertan. Totalitarismoaren asmakizunik beldurgarriena da gizakiak sor ditzakeen obra anitzak alderdi baten edo, zenbaitetan, gizaki baten nahimen bakarraren mende jartzea. G. Simmel-ek bere Soziologian era dirdaitsuan deskribatu du gutariko bakoitzari datxekion gizarte sailen aniztasuna, aniztasun horretan ikusten duelarik norbanakoaren askatze jarraituaren baldintza. Oroimen honek bide ematen digu totalitarismoaren ahaleginei neurri zehatza emateko: diziplina sozialek norbanako guztien gainean eta haietariko bakoitzaren bizi-adierazpenen osotasunaren gainean ezartzera jotzen zuten egoera primitibora gizarteak atzeraka eramateko ahalegin erro-errotik atzerakoiak dira.

Egia da beha daitekeela nola eragile sozialek, histori-koek eta, apika, arrazazkoek zientzia partzialki bederen finkatzen duten. Ez da pentsatu ezinezkoa arraza jakin bat lan mota batzuetarako hobeto hornitua dagoela edo mundua ikusteko era jakin batera lerrakorragoa dela. Frogatuta dago orokortze horietako gehienak gai honetan gezurrezkoak direla, eta gainerakoak, egiaztatu ezinezkoak. Baina jakin gabe ere kanpoko egoerak zenbateraino mugatzen duen zientzia (plantatzen dituen arazoak, adierazteko erabiltzen dituen ideia filosofikoak), herri-agintarien aldetiko zientziaren orientatze autoritarioa zuzitzeko mugatze hau aipatzen dutenek okertamalgarri bat bideratzen dute.

Jakintsuak gizarte jakin bateko, garai jakin bateko gizakiak ere badira une berean. Ikerketen orientabidea eta estiloa gizakien jiteak markatzen ditu, eta ez bakarrik jakintsuen jiteak, ezinezko baita batzuk besteengandik bereiztea. Hala eta guztiz ere, oinarrizko aldea dago giroak berez, jakintsuen berezkotasunaren bitartez, zientziaren gainean gauzatzen duen eraginaren eta buruzagi politikoek eragingo zuketena-
ren artean, baldin hauek zientziari helburuak, metodoak eta, azkenik, emaitzak finkatzeko eskubidea beretzat gordeko balute. Lehen kasuan, elkarte zientifikoak funtsean bere lege bereziei segitzen die. Bigarrenean, bere autonomiari uko egingo lioke eta, aldi berean, bere bokazioa eta etorkizuneko aurrerapena arriskuan jarriko lituzke.

Britainia Handian bertan ere eztabaidatu zen zientziaren independentziari buruz gerra bukatzean. Eredu sobietarrak hunkiturik, jakintsu batzuek ikerketa-plangintza bat finka zedin nahi zuten, giza baliabideak eta materialak laborategien artean arrazoiz banatuz, bakoitzak eginkizun berezi bat jasoko zuelarik. Irizpide pragmatiko honi ezetz esan zioten jakintsu britainiarrek; zer ikertu behar zuten adierazteko eskubidea ukatu zioten estatuari. Ikerketa teorikoa uztea edo haren mendekotasuna onartzea zorigaiztokoa izango litza-teke teknikaren aurrerapenerako (ezin jakin daiteke sekula

aldez aurretik zein teoriak izango duen erabilerarik), baina, gainera, bere autonomia salduko zukeen elkarte zientifiko baten uko egite baten lehen aldia ere izango zen. Biologo mendebaldarren desagertzea edo fisikoentzat materialismo dialektikoaren jargoian beren emaitzak jantzi beharra zatekeen azken aldia.

Politikaren esku-sartze bidegabearen aurrean zientzia sozialek egin ahal izan duten erresistentzia beti izan da natur zientziena baino zailagoa. Ezin eztabaidatuzkoa da iraganen analisi mota jakin batzuen eta hobespen politiko batzuen edo ustekizun filosofiko batzuen arteko elkartasuna. Ez dago gauza errazagorik, ez tentagarriagorik, ekonomia politikoan eskema idealak eta errealtatea nahastea baino. Honi egozten zaizkio, egiaz, hari zegozkion merezimenduak. Egia bada ere merkatuaren teoria klasikoak zertzen duen orekak berarekin dakarrela produktu sozialaren optimizazioa eta baliabideen erabilera onena, ezin ondoriozta daiteke hortik liberal gisa, hein batean liberal gisa alegia, kalifikatzen diren ekonomia konkretuak onenak direnik, ezta merkatuaren mekanismo ez-perfektuei jokatzeko uztea komeni denik ere, aitzakiaz hartuz ezen mekanismo hauek erabat ongi gauzaturik baleude irtenbiderik onena ekarriko luketela. Karl Mannheim-ek *Wissenssoziologie* deitura eman zion egoera historikoen eta eraikuntza intelektuaren arteko erlazio mota desberdinak argitzen saiatzen den diziplinari.

Ez gara ukatzen ari ezen gizarte-zientziak inoiz ezerezetik abiatzen direla, gertakariak iradokitzen dutela arazoan planteamendua, metodoak lotura duela filosofiarekin eta giro historikoarekin edo emaitzak sarri nazioen eta klaseen interesek baldintzatzen dituztela. Oso txarra litzateke, ordea, hortik ondorioztatzea gizarte-zientziak klase- edo arraza-ideologia baino ez direla, eta estatu totalitario batek ezartzen duen ortodoxiak izatez alderik ez duela gizarte pluralistari dagokion ikerketa librearen aldean. Nahi dena esango da, baina bada zientzien elkarte bat natur zientzien elkarteak

baino autonomia gutxiago duena, baina hala eta guztiz ere egiazkoa dena.

Zeintzuk dira gizarte-zientzien elkarte honen arau osatzaileak?

1. Lehenbizi, gertakariak berak bilatzeko eta finkatzeko murrizketarik eza, gertakariak beren gordinean aurkezteko eskubidea eta horiek ulermoldeetatik bereiztekoa. Zalantzarik gabe esan daiteke, hizkera filosofiko hertsian, ez dagoela gertakari historikorik eraikia ez dagoenik eta, hortaz, hautatzea eta ulertzea berarekin ez daramanik. Praktikan bereizketa horiek beren balioa gordetzen dute. Egiazkoa da edo gezurrezkoa da Trotskyk parte handia izan zuela armada gorriaren antolaketan, egiazkoa edo gezurrezkoa da Zinovievek edo Bujarinnek Stalinen eraiketa antolatu zutela, egiazkoa edo gezurrezkoa da Wall Streetek politiko amerikarrak manipulatu dituela eta sobietarren aurkako gurutzada antolatzen duela. Estatu totalitario orok jartzen ditu gertakari batzuk legez kanpo, eskema ofizialaren barruan ongi ez datozelako. Estatu totalitario orok absurduraino eramaten du gertakariaren eta haren azalpenaren arteko solidaritatea.

2. Bigarren, eztabaida- eta kritika-eskubidearekiko murrizketarik eza, ez bakarrik emaitza partzialei dagokienean, baizik areago oinarriei eta metodoei dagokienean. Ezagutza sozialak zientziaren mailara altxatzen dira haien irismenaren eta orobat haien baliozkotasun-mugaren kontzientzia zehatz batek laguntzen dien neurrian. Ekonomia politikoan, adibidez, teoria aurrera doa eredu berriak eraikiz, baina orobat lehenagotik ezagutzen den eredu jakin bat ezartzeko behar diren baldintza zehatzak aitortuz. Keynesen teoria orokorrak eragile anitz ditu sorreran: arazoa sortu zuen egoera (langabezia iraunkorra deitua); kasu berri batetik abiatuz, enplegu betearen hipotesian baliozkotasuna erdiesten duen teoria klasikora berriro itzultzeko egiten den ahalegina; gertakari jakin batzuen premia finkatzea (lansari nominalen egonkortasuna); enpresariaren psikologia bat ohiko teoriako gizon ekono-

mikoaren psikologia arrazionalaren aldean desberdin dena, e.a. Teoria orokorraren ekarpena, egiazko esanahia, gertakariari eta metodoari dagozkien osagarri hauek une berean kontuan hartzen dituenari bakarrik azaltzen zaizkio. Gizarte-zientzian, ezagutzaren teoria eta ezagutza bera banaezinak dira. Esanahi bikoitza duten eta irismenez zehatzak ez diren proposamenak edo eskemak dogma bihurtzen dituen doktrina oro, dela liberala edo marxista, zientziaren mundutik urruntzen da mitologiarenean erortzeko. Soziologian edo ekonomia politikoan kontzientzia praktikoa kontzientzia zientifikoaren atal osagarri da.

3. Azkenik, errealaren desliluratzeko eskubidearekiko murrizketarik eza. Erregimen baten ideiarenean eta haren funtzionamenduaren artean, tirania-garaietan denok amestu izan dugun demokraziaren eta Europako mendebaldean ezarri den alderdi-sistemaren artean, amil bat dago, gaintitzen erraza ez dena. Baina desilusia, hein batean, ezinbestekoa da. Demokrazia oro da oligarkia, erakunde oro era ez-perfektuan da ordezkatzaila, talde edo pertsona anitzen baiezkoa lortzera beharturik dagoen gobernu oro geldiro ibiltzen da eta gizakien ergelkeria eta norberekeria kontuan hartu behar ditu. Soziologo batek bere ikasleek sinesteko eta zerbitzatzeko duten gogoia kamusteko arriskua badu ere, helarazi behar dien lehen ikasbidea da sekula ez dela izan erregimen perfekturik batere.

Bakan da baldin jakitun batek hiru askatasun horiek une berean eta mugarik gabe erabiltzen baditu. Latzegia litzateke kasik hala egingo balu. Gizarte-zientzien elkarteak, elkarriketaren eta elkarrekiko kritikaren bitartez, hiru askatasun horiei dagokiena sortzea dauka hain zuzen ere egiteko bezala. Nik gertakari soil bezala egiaztatu uste nituen gertakari gordinek berekin dakarten azalpen zatia, edo merezimenduak bakarrik ikusteko tentazioa nuen erakundeen ondorio txarrak erakusten dizkit *besteak*. Elkarrearen altzoan jardunez bakarrik eta haren bitartez lortzen dute gizarte-zientziek gertaka-

ririk albora ez uztea, balioren bat kritikatik ezkutatzea, eza-gutzak eta zalantzak batera pilatzea, proposamen orokorren baliozkotasuna beren esku duten kanpoko baldintzak gupidarik gabe zehaztuz.

Une berean agerian jartzen zaigu zein helbururi erantzuten dion gizarte-zientzien elkarte honek eta zergatik dioten beldur hainbeste gobernuk. Zientzia kritikoak bakarrik eragotz dezake historia eta soziologia ezagutza positiboaren erresumatik mitologiarenera lerra daitezen, eta lerratze hori eragotzi nahi ez duen erregimen asko dago.

Gertakari historikoek behar den gutzia dute mitologian eraldatuak izan daitezen. Gugandik hurbil daude, gizatiarrak dira eta, hortaz, pertsonaia, norbanako edo talde batzuen borondate garbi eta erabakigarriari egozteko tentazioa dugu ezinbestean, era horretan haiek aingeruzko eta munstro bihurtzen direlarik egiten omen duten ongiaren edo gaizkiaren arabera. XX. mendeko gizaki gehientsuenek ez dakite argitzen beste garai batzuetan mirarizkotzat joko zituzketen fenomenoak (airea baino astunagoak diren gauzen hegaldia, soinua eta irudia urrunera bidaltzea), baina jakin badakite gertakari hauek badutela argibide arrazionala. Haurrentzat bakarrik da sorgina argindarra. Aldiz, kapitalismoa, komunismoa edo Wall Street deabruak dira milioika pertsonentzat. Historiak mitologiara bultzatzen du bere egituragatik beragatik, ulergarritasun partzialaren eta osotasunaren misterioaren arteko giza borondateek jokatzen duten paper nabarmenaren eta gertakariak ematen dieten gezurtatze ez gutxiago nabarmenaren arteko kontrasteagatik, haserrearen —gertatzen denaren erantzukizuna denok eta gutariko bakoitzak bagenu bezala— eta, hala-behar anker baten aurrean aurkituko bagina bezala, izu pasi-boaren artean ikusleak dituen zalantzenagatik.

Arretarik ez badugu jartzen, zientziako kontzeptuak mitologiako pertsonaia bihurtzen dira. Aski da gure eskemak eta erreala dena nahastea, kapitalismo edo sozialismo beza-

lako hitzek izendatzen dituzten gertakari katramilatuen zentzu anitzak ahaztea, eta berehala gauzatu da ordezkatzea. Ez gara aurkitzen orduan gizakien eta erakundeen aurrean, hauen portaerari eta haien egiturari datxekien esanahien aurrean, bai, aldiz, hitzari ematen genion esanahia gorde duen baina gertakarietik erlazioa galdu duen indar misteriozko baten aurrean. Orain hizki nagusiz idazten den Historia, ideien arteko berebiziko gatazka-leku bihurtzen da. Zientzia historikoek ez dute ezabatzen norbanakoez gaindiko multzoen misterioa, baina poesia kentzen diete. Erkidegoen ibilbideari buruzko jakitunen elkarrizketak ez du irakasten eszeptizismoa, ez du eragozten begirunea, baina gauza mundutarren jainkotzea debekatzen du eta lurraren gainean zorte arruntaren gainetik kokatzen diren gizakiak edo erregimenak ipintzen ditu berriro.

Nekez eragoz lezakete gobernu despotikoek gizarte-zientzien aurrean errezeloa sentitzea, hauek ez baitira mugatzen administrazioko tekniken ikerketara eta beren egitekoaren azkeneraino joaten baitira.

Are, zuhurtziak edo premiak eraginik, soziologoak edo historialariak antzinako eta gaurko zesarismoen jiteak aztertzen ez dituenean ere eta berak bizi diren erregimena ez baizik beste batzuk ikertzeraz mugatzen badira ere, ikasleak ulertu behar du ezen metodo hori bera ezarri beharko litzaiekeela agintariei, eta era horretan haien perfekzioa eta hutsezintasuna koroarik gabe geratuko lirakeela. Ez gara pausatuko gaur European funtzionatzen duten erakunde parlamentarioen analisisian, antidemokratismoa salatuko digutelako beldurrez.

Zientziak ez digu esango beharrezko dela demokrata izatea, ezta gure mendean gauza daitezkeen gainerako gobernu moten aldean demokrazia gorago dagoenik ere. Unibertsitateen mendeetako tradizioan murgildurik, irakasleak sakratutzat jotzen dituen balio zenbaitetarako alderdi bakarreko

erregimenek berekin daramatzaten mugarik gabeko arriskuak erakusten ditu zientziak. Erakusten du zeintzuk diren alderdi askoren sistemak, bai eskubide pertsonalen aldetik bai bote-reen eta haien erabileraren izaera konstituzionalaren aldetik, eskaintzen dituen berme erlatiboak. Erakusten du, orobat, zeintzuk diren erregimen horrek barruan daramatzan arriskuak: gobernuaren egonkortasunik eza baldin eratzten ez bada gehiengo garbi bat, gizartearen zatitzea alderdien eta klaseen arteko gatazkek biolentzia-maila jakin bat gaingituko balute, gobernuaren ezintasuna talde eta interes partikular guztiek nork bere kausaren alde zarata gehiegi egingo balute.

Sarri sumatzen da beldurra ezen zientzia politikoa arriskutsua gerta dakiekeela demokraziei, hauek diren bezala azalarazten dituelako, beren perfekzio-gabezia ezinbesteko eta burgesean agertzen dituelako. Nik ez dut sinesten halako arriskueta. Ez dugu ahantzi behar demokrazia dela, azken batean, estatuen historia prosaz eta ez bertsoz dagoela idatzia eta egon ere hala egon behar duela aitortzen duen edo, hobeto oraindik, aldarrikatzen duen erregimen bakarra.

Bai zientziaz bai politikaz ari dela, Max Weberrek helburu bera bilatzen zuen beti: helburu berezi batera egokitu behar zen jarduera jakin baten etika propioa zehaztea. Objektura lotzen duten sentimenak, berez bere baitan sortzen diren eta bere jarrera gizartearen aurrean finkatzen duten baliopaiak zapaldu behar ditu jakitunak, berak ikertzen duen atzoko gizartearen aurrean eta, nahi gabe ere, babestu, desegin edo aldatu nahi duen gaurko gizartearen aurrean. Ikerketa positiboaren izaera amaigabea onartzea eta, amaia ezagutzen ez zaion ikerketa baten mesederako, naturaren eta gizakiaren mundua desliluratzea: hori zen karrera zientifikoa hautatu izanaren izenean onartzera gonbidatzen zituen entzuleen aurrean agertzen zuen mezu patetikoa.

Haren begietan, ekintzaren patetikotasuna bi era moralen, erantzukizunaren moralaren eta uste sendoaren mora-

laren arteko antitesira zegoen lotua. Edota nire uste sendoei (bakezale edo iraultzaileei, berdin dio) obeditzen diet nire egintzen ondorioak kontuan hartu gabe, edota bestela egiten dudana kontu ematera beharturik nago, zuzenean nahi izan ez badut ere, eta orduan asmo onak eta bihotz garbiak ez dira jada nahikoak egileak zuritzeko.

Aldi berean, aspertzeke azpimarratzen zuen Max Weberrek gizakien egitasmoen eta haien egintzen ondorioen artean dagoen aldea. Belaunaldi batek askatasunez nahi izan zuena hurrengo belaunaldiari patu saihestezin bihurtzen zaio. Puritanoek askatasunez hautatzen zuten beren espezializazio profesionala; gaurko gizonak hartara beharturik aurkitzen dira. Egiaz, ez dugu tentaziorik gizakiek irrikatzen dutenaren eta jasaten dutenaren arteko alde betikoa zalantzan jartzeko, pentsatzen dugunean zer-nolako itxaropenak zituen Leninek eta ikusten dugunean nolakoa den estalinismoaren errealitatea, edo gogora ekartzen ditugunean 1932-1933an hainbat gazte alemaniar sutzen zuen fedea eta nazismoaren zenbait izugarrikeria. Bere historia egin bai, baina egiten duen historia ez dakien gizadi baten tragedia da historia. Ekintza politikoa ezerez hutsa da, argi jokatzeko ahalegin ezin ahituzkoa eta norberaren burua hartutako ekimenen ondorioek saldurik ez ikustea ez denean.

Ekintza-gizonaren morala erantzukizunaren morala da noski. Baina ez dezagun arinki hartu baieztapen hau. Moral horrek alde batera uzten ditu Kantena bezalako etika formula edo Mendiko Hitzaldiaren agindu gorenak. Estatua da, erkidego jakin batean, bortxa zilegiaren monopolioa daukan erakundea. Politikan sartzea botereagatik borrokatzen den gatasketan esku-hartzea da: estatuaren gainean eragina izatea eta, haren bidez, erkidegoaren gainean. Une berean, ekintzaren legeetara makurtzera dago bat behartua, gure hobespen barnekoenen eta hamar mandamenduen kontrakoak badira ere; infernuko botereekin itun bat zerratzen da eta eraginkortasunaren legearen logikara kondenatua geratzen da bat.

Nor zuen buruan Max Weberrek, lehen mundu-gerratea amaitu berritan, *Politik als Beruf* idatzi zuenean? Bi giza-ki motari hitz egiten die bereziki nire ustez: etorri kristauko bakezale deituko genituzkeenei eta printzipioz iraultzaile zirenei. Lehenbizikoei, bere estimu pertsonala ez baitzien ukatzen, bere hitzen eta idatzien ondorioak kontuan ez hartzea aurpegiratzen zien. Norberaren lurraldearen gain erantzukizun osoa zamatzeak ez du laguntzen nazioen arteko bakea konpontzen. Garaituaren jarrera morala ahultzean, baketzea eta adiskidetzea eragotziko duten gogortasuna eta injustizia dakarren itun bat prestatzen da. Bigarrenei aurpegiratzen die guztizko balio bihurtzen dutela zilegia den helburu bat (erregimen ekonomiko eta sozialaren eraldaketa), halako moduan non sekula ez den gehiegi ordaintzen iraultzagatik.

Gaur egun, etorri kristauko bakezaleekiko elkarriketak esanahia galdu duela uste dut. Mota horretako bakezale gutxi geratzen da jada gerra kasik iraunkor bihurtu den mundu batean. Indartsuagoa litzateke gaur gogoetaren bidezko bakezaleetasuna, gerra modernoaren haren biktimentzat, beren lurraldea gudu-zelai izan dutenentzat, hondamendia litzatekeen uste sendoa. Uste sendo hau, halere, bake eragile bihurtuko litzateke, baldin estatu-gizon guztiek, herri guztiek, horretan bat egingo balute. Premia honen aurrean aurkitzen dugu ezen, beren doktrinaren arabera, komunistek sinetsi behar dutela mundu-iraultza deitzen dutena izugarritzko borrokez bete ahal izango dela, haren ezinbesteko amaia sozialismo unibertuala izango delarik. Helburu hori lortzeko, gerra atomikoa bera ez litzake garestiegia izango.

Max Weberrek kontra egiten zien iraultzaileak idealistak zirenak batik bat, etorri kristauko bakezaleengandik hurbil zeudenak batzuk, eta anarkistengandik eta utopikoengandik, besteak. Gaur egun, subertsioan eta tiranian adituak dira iraultzaileak, hala eta guztiz ere milenarismoko kategoriekin pentsatzen dute eta gertakari jakin bati (iraultzari) giza historian oroitu ezinezko ibilbidetik at jartzen duen balio bakarra

ematen diote. Ez da ezer posible izango historiaren eraberri-tzea ekarriko duen egun horretara arte, eta dena izango da posible handik aurrera. Ezin utz daiteke albo batera ezein ba-liabide helburu goren hori erdiesteko, historikoki ekidin ezi-nezko bada ere.

Neke handirik gabe pentsa daiteke Max Weberren eran-tzuna halako filosofia baten aurrean. Litekeena da, esango zukeen, mendebaldeko gizarteek ezinbestean (edo hitz zeha-tzagoaz, beharbada) guztion jabego edo planifikatze erregi-men baterantz jotzea¹. Halere, ezin baieztatu liteke aldez au-rretik, alderdi bakar batek eta berak eraberritze hori lurralde guztietan derrigor gauzatu behar duenik. Bestalde, eztabaida daiteke halako erregimen baten abantailei eta eragozpenei buruz, baina zientziak ez du biderik ematen ez baieztatze-ko, ezta uste izateko ere, abantailak halako gisakoak izango direnik non giza elkarten mendeetako ezaugarriak sakonki aldatuak gertatuko diren.

Gisa honetako argudiatze batek ez lituzke konbentzi-tuko sinesleak, baina egiaz diren bezala agerraraziko lituzke: zientziaren irakatsiak jarrai uste dituzte, baina egiaz zien-tzia zaharkitu edo arrunt bihurturiko filosofia baten girgile-riez apainduriko fede baten jarraitzaile dira. Bere ikasketek historiari buruzko ikuspegi zabaletara gonbidatu beharko zuketuen Max Weber, baina haietatik apaltasunezko ikasbide bat atera zuen bereziki. Ez zion galdetzen bere buruari etor-kizuneko gizarteari buruz, eguneko egitekoez baizik. Duela hogeita hamar urte, politika eta estatua berreraikitzea zen egitekoa.

Haren analisisietako batzuk egoera historiko jakin bati dagozkio, eta egunekotasuna galdu dute hein batean. Setatu-rik zegoen enperadorearen kontrako etsaigoan, hari egozten baitzion erantzukizun nagusia Alemaniaren hondamendian.

¹ Duela hogeita hamar urte Max Weber ez zegoen horretaz konbentziturik. Haren ustez, bilakaeraren beharrezko joerak ziren arrazionalismoa eta burokratizazioa, baina ez jabego edo arautze mota jakin bat.

Buruzagi politikoak funtzionarioen artean bildu izana: haren ustez hori zen inperio gilermotarraren porrotaren arrazoietako bat. Berak uste zuen parlamentarizatzeak, egiazko erantzukizunak parlamentura eramateak, probabilitate handiagoa eskainiko zuela nortasun bortitz eta borrokalari batek eta botere- eta borroka-gogoak bultzaturik zeudenak boterera irits zitezten.

Max Weberrek mendeetan zehar jarraitzen du gizarte-ko kategoria baten bilakaera, berak politiko profesional deitzen zuen gizakiaren, politikatik eta politikarako bizi denaren garapena. Mendeen eta lurraldeen arabera, elizgizonak, letradunak, gorteko noblezia edo patrizio ingelesak izan dira lehen lekua hartu dutenak, eta talde horien guztien artean izan dira itunak eta istiluak nazioen eta erregeen, noblezia tradizionalaren eta burgesiaren arteko harreman aldakorren arabera. Arrazoiz ospetsuak diren analisien xehetasunetara itzuli gabe, Max Weberrek berak azpimarratzen zuen puntu bat errepikatuko dut: bi alderdi moten arteko kontrastea, ospetsuen alderdien eta masen alderdien arteko kontrastea. Abokatuek edo legegizonek, estatuko edo alderdiko funtzionarioek eta ospetsuek osatzen dituzte, izan ere, gure garaiko politiko profesionalen mota nagusiak.

Nola azaltzen da egoera gaur? Lurralde batzuetan ia ezabatu den ospetsuen alderdien eta masen alderdien arteko kontrakotasunak (Britainia Handian alderdi kontserbatzaileak masen alderdi bihurtu da, alderdi laboristaren ia neurri berean) iraun irauten du, nire ustez, Alemanian bezala baita Frantzia ere. Sozialista erradikal eta independenteak ez dira masen alderdi, SFIO eta are, neurri batean bederen, MRP diren zentzu berean. Masen antolakuntza bihurtzeko ahaleginak egin badira ere, CDUK gordetzen ditu oraindik, nire ustez, ospetsuen alderdiaren ezaugarrietako batzuk. Masen antolakuntza beharrezko edo ez-beharrezko bihurtzen da gizartearen hiritartzearen mailaren arabera, eta baita zenbaketa metodoaren arabera ere. Gaur egun Europa kontinentala da-

goen fasean, murriztera jotzen duen ezkerreko eta eskuineko alderdien egituren aldeak ez du desagertu behar erabat.

Alderdien egituran dauden aldeekin batera dator buruzagi politikoen biltze moduan dauden aldeak ere. Erregimen politiko guztietan, eta demokrazian beste inon baino gehiago, buruzagien biltzea da arazo erabakigarria, arrakasta edo porrota zertzen duena. Alemanian, buruzagi nagusiak Hitlearren aurreko belaunaldikoak dira, eta haien bizitza garatu da zatirik handienez Gilermoren inperioaren garaian edo Weimarko Errepublikaren garaian. Frantzian, buruzagi gehienak Hirugarren Errepublikatik bizirik dirautenak dira, denbora luzez bigarren mailako papera jokatu ondoren, 1945az geroztik lehen lerrora ekarriak izan direnak. Haiei gaineratu zaizkie Erresistentzietatik edo mugimendu gaullistatik datozen beste batzuk ere. Frantzian apenas daukaten ordezkariarik Alemanian hainbesteko garrantzia duten alderdietako edo sindikatuetako funtzionario karrera egin dutenek.

Politikan sartu nahi duen irakaslearentzat, alderdien diziplinatik eta doktrinatik dator nekea. Ez dago munduan lurralderik ez eta garairik ere non soziologo bakar bat edo ekonomialari bakar bat gauza izan den inongo alderdiren egitasmoa serio hartzeko. Aukerarik onenean, haiei atxikiko zaie besterik ez, erlijioari dagokionez azalpen sinboliko deitu ohi denaren erabilera zabal bat eginez. Ez dago oposizio-adibide bat bera ere gobernuaren kontra argudio bidegabeak edo gezurrezkoak erabiliko ez dituenik: inork erdietsiko ez zituzkeen lorpenak lortu ez izana edo inork ekidin ezingo zituen amore emateak egin izana aurpegiatuko dizkio. Politikan sartu nahi duen gizarte-zientzietako irakaslearentzat etengabeko tentsioa esan nahi du horrek.

Tentsioa handiagoa edo txikiagoa da eztabaidak zertuko dituen fede txarraren mailaren arabera, eta maila hori aldatu egiten da lurraldeen, alderdikideei eskatzen zaien diziplina-mailaren eta unearen arabera. Gutariko bakoitzak bilatzen dio erantzuna zientziaren eta politikaren arteko

erlazioen arazo pertsonal horri. Parlamentuko lanetan esku hartzen dutenek ezin opa diezaiekete beren buruei erabateko askatasunik. Zientziaren bokazioa egia da baldintzarik gabe. Politikoaren lanbideak ez dio uzten beti hura esan dezan.

Alderdiaren mende jartzea beharbada gaur ez da, uste alderdikoiak jan dituen eszeptizismoari esker, duela hogeit urte bezain larria. Biziki zorionez, ez sozialdemokraziako buruzagiek ez tropek erakusten dute leialtasun bera marxismoarekiko edo jabego kolektiboaren dogmekiko. Egiaz diren bezala eta izan behar duten bezala azaltzen dira alderdiak: boterea erabiltzera jotzen duten erakundeak dira, interes jakin batzuk aldeztu dituzte eta irizpide lauso eta orokorren arabera aginduko duten hitza ematen dute. Tamalez, doktrinaren malgutasunean irabazi dutena eguneko eztabaidetako bortizkeria handiagoaz berdintzen dute alderdiek.

Max Weberrek biltze demokratikoaren tasunari buruzko bere kezka azaltzen zituen jada. Ondasunik ez dutenek ezin jo dezakete karrera politikora, lanbideak dituen gorabeherekin batera segurtasun ekonomikorik eza une berean onartu gabe. Nik uste dut gaurko Alemanian gizon politiko gehienek beren aurreko lanbidea edo bigarren lanbide bat, sarri funtzionarioarena, gordetzen dutela eta gorde behar dutela. Alderdietako funtzionarioak dira, beste lanbiderik ez dutelarik, politiko profesional soilak. Joko parlamentarioa halako moduan dago taxutua, ustekabeko borroka-ezaugarriez biluztua, non jada ez den baheketa-modu bat. Parlamentuan baino gehiago, alderdian nagusitu behar da gora egiteko. Frantzia, egongaitzasun edo fantasia gehiago gorde baitu, bizitza politikoa areago da igarri ezinezkoa. Aldian-aldian norbaitek lortzen du karrera egitea, ez ordea alderdietan, haietatik aparte baizik. Ezin esan daiteke gaurko politika alemaniarraren estiloak lehen mailako nortasunak ager daitezen laguntzen duenik: Max Weberrek amesten zituen demagoiak, beren lanera emanak daude-

nak, baina orobat handik bizi direnak eta era harrigarrian grina buruargia, erantzukizunaren eta neurritasunaren zentzua bateratzen dituztenak.

Baina Max Weberrek beharbada gehiegi eskatuko zien demokrazia modernoetako gizon politikoei. Aginte karismatiko moduko batez jantzita irudikatzen zituen haien arteko onenak. Egia da, inondik ere, demokraziak beti mehatxupean daudela; izan ere, hortxe dira botereen anonimatoak, buruzagien kaskarkeriak eta espiriturik gabeko masen pasibotasunak daramaten gainbehera. Egoera tragikoetan, nazioaren bizitza jokoan dagoenean edo konstituzioa eraberritu behar denean, herriek gizon bati jarraitu nahi diote legeak obeditzearekin batera. Orduan gertatzen da demagogoa, errepublika erromatarrak diktadore deitzen zuena eta lehenagoko autore politikoek legegile izenaz ezagutzen zutena, inposatzen dela. Une kritikoaetan, erregimen biziak salbatuko dituzten pertsonak sorrarazten dituzte. Garai lasaietan, demokraziako buruak administrari leial dira, antolatzaile onak inoiz, eta, sarriago, adostasun-zaleak. Estatu-gizon handiek eduki ohi duten ikuspegi zabala, buruargitasuna eta grina argia ere edukitzea, halabehar zoriontsu bat baino ez da, baina, zentzuzkoa izanik, kontuan hartu behar ez dena.

2.

Duela urte batzuk, Leo Straussek *Natural Right and History* liburuan² kapitulu bat eskaini zion Max Weberren iritzien azterketari. Kritika haren azken asmoa zen, hala adieraz badaiteke bederen, Max Weber nihilismora murriztea. Bestela esanda: Straussek agerian jarri nahi du ezen, balioei buruzko iritzi zientifikorik edo arrazionalik ezean gutxienez, erabakien apetaren esku geratzen dela gizakia, denak era berean zuritu daitezkeenez edo zuritu ezin daitezkeenez. Bere aldetik, ordea, ez du adierazten ez zein den berez erregimenik

² Chicago, 1953

onena, ez nola iristen den arrazoimena haren ezaugarriak zertzera eta haren baliozkotasun unibertuala egiaztatzen. Straussen pentsaera historiaz gairikiko dogmatismo batera murriztu zitekeen, berak Max Weberren erlatibismoa nihilismo murrizten duen bezalaxe. Oraingoz, alba batera utziko ditugu bi tesien azken ondorioak, eta zuzenbide naturalaren bila dabilen filosofoak zientzia objektibo bat finkatzeko kezkatu eta giza garaien aniztasun menderaezinaz konbentziturik dagoen soziologoari ipintzen dizkion eragozpenak hartuko ditugu gogoan.

1. Era honetan formula genezake Leo Straussek aurkeztu duen lehen eragozpena: balio-epaien debekua, berez, zentzurik gabea da, historialariek edo soziologoek ezin errespetatu dezaketelako beren zientziaren kalitatea zalantzan jarri gabe. «Max Weberren obra ez bakarrik gertatuko litzaiteke aspergarria, baita areago absurdua ere, baldin ez balu hitz egingo etengabe bertute eta bizio intelektual eta moralei buruz erregistro egokia erabiliz, laudorioarena edo aurpegi-ratzearena, alegia» (67. or.). Eta jarraitzen du: «Giza izaerari buruz inoiz gogoetatu duten guztiek bezala, Weberrek ezin utzi zitezkeen aipatu gabe zekenkeria, diruzalekeria, eskrupulurik eza, harrokeria, interesik gabeko eraspina, neurritasun-zentzua eta antzeko beste gauza batzuk, hau da, labur esanda: balio-epaiak».

Nire ustez, lehen puntu honetan arrazoi eman behar zaio Straussi, baina, haren kritikaren arabera, Max Weberrek teorian baiesten zuen araua hautsi zuenez gero, geure buruei derrigorrean galdetu behar diegu ea argitasunak eta zehaztasunak hala kezkatzen zuten jakintsu batek bere praktika propioa nolatan ez zuen aintzat hartu. Egiazko igarlearen eta kalakariaren artean bereizteko gai ez den historialari bat edo soziologo bat, horrexegatik beragatik hain zuzen ere, ez litzateke gai izango egiazki ulertzeko. Leonardo da Vinciren eta haren imitatzailen koadroen artean bereizten jakingo ez lukeen arte-historialariak objektu historikoaren zentzu be-

rezia, hau da, obraren tasuna galduko luke. Washington eta Hitler, Boulanger eta Charles De Gaulle, boterea beste interesik ez duen politikoa eta bere aberriaren handitasunaz pasionaturik dagoen estatu-gizona zaku berean sartuko lituzkeen soziologoak dena nahastuko luke azkenean, inoren alde ez jartzea aitzakiatzat emanez.

Hiru adibide horiek ondorio berbera iradokitzen dute: gertakariak eta egintzak ulertzeko eta kontatzeko eran historialaria ezin gera daiteke balio-epairik eman gabe, hauek ekintzaren edo pentsamenduaren unibertsoari datxekienak, errealitatearen beraren osagarriak diren neurrian. Balio-epai mota hau ekiditeko, historialariak proposamen historikoetara, hitzaren zentzu hertsienean, murriztu beharko luke, koadroen jatorria ikertzera, alde batera utziz nola-halakoak edo bikainak diren, estiloen segida egiaztatzerara, estilo desberdinen artean eta, haietako bakoitzaren barruan, sortzaileen eta haien imitatzzaileen egintzen artean hierarkiarik finkatu gabe.

Max Weberrek, ikerketaren eskakizun horretara makurtu zelarik, ez zuen horren kontzientziarik izan edo, gutxienez, balio-epaien aurrean balioekiko erlazioaren formula eustera mugatu zen. Bereizketa hau guttiz azalekoa gertatzen da.

Indiako tenplu bat itsusia edo ederra dela esatea edertasun greziarraren kanona neurritzat hartuz zientzia sozialen objektibotasunaren izenean, horixe dugu Max Weberrek gaitzesten zituen balio-epai motetako bat. Indiako arkitekturen eta eskulturen egintza desberdinak eskala hierarkiko batean kokatzea ezinbestekoa da, azken batean. Nola ez erkatu garai bateko tenpluekin gaur antzinako estiloan eraikitzen eta jada bizitza galdu duen arte baten karikatura baino ez diren tenpluak? Gauza bera erlijioan eta politikan: fedeko gizonaren edo ekintzako gizonaren handitasuna bere predikazioari edo bere enpresari ematen zion zentzuaren arabera epaitu beharko da. Max Weberrek ez zuen definizio bat bera ere eman berak baliozkotzat jotzen zuenari buruz. Ez dago eragozpenik balio hitzaren ordeztu portatera baten edo obra baten helburuak,

aktoreak edo sortzaileak bete behar dituen arauak zehaztasunez zertzen dutenak jartzeko.

Max Weberren beraren ikuspegiaren arabera, berak onartuko zukeen zuzenketa hau, ez baita haren pentsamenduren zuzenketa, hark eman zion adierazpidearena baizik. Eztabaidaren geroagoko aldi batean bakarrik jarriko zituen eragozpenak. Onartuko zukeen bereiz daitekeela eta bereizi behar dela Leonardo da Vinciren eta haren imitatzaileren artean; baina, historialariak ezarri al dezake hierarkiarik batere miniatura pertsiarren eta pintura italiarraren artean, Elefantako estatuena eta Fidiasen estatuena artean? Aintzat hartzeko irizpide propioak dituen unibertso baten barruan, historialaria ezin gera daiteke zerbait aintzat hartzeke errearen ulermena faltsutu nahi ez badu. Irizpideak erro-errotik desberdinak direnean, unibertsoak funtsean bestelakoak direnean, historialariak ezin aintzat har dezake norbaiten alde jarri gabe, eta une horretantxe bertantxe zientzia-gizon izatea utziko dio.

Lehen eragozpen baliozko den baina Max Weberren pentsamoldean sar daitekeen honen azterketak bigarren eragozpen batera garamatza, gogoetako bigarren puntu ere baden eragozpen batera. Zein da unibertso-desberdintasun horren zentzua?

2. Garai desberdinen artean erro-errotiko desberdintasun bat badela onartzeak, azken analisi batean, soziologia historikoaren beraren irismena desegingo luke. Izan ere, soziologoak ezin uler dezake gizarte bat eskema kontzeptualik erabili gabe. Hala eta guztiz ere, bere eskema kontzeptual propioa erabiltzen badu, besteak bere burua ulertzen ez duen beste era batean ulertuko du bestearen gizarte eta horrela haren zentzua okertzen joango da (hark bere burua ulertzen duena baino hobeto ulertzen ez badu behintzat). Bestearen ulertzea gure eskema kontzeptualari dagokionez beronen arabera da; eta eskema hori alda daitekeen neurrian, gure ulertzeko era ere aldatu egingo da: ez da unibertsalki baliozkoa, baizik eta

historiari eta bere garaiari lotua dago. Soziologoak erakundeen konparazio bidezko zientzia bat finkatu nahi duenean, edota denboraren mugak gainditzen dituen baliozkotasun bat daukan multzo kategoriala dauka eskura, edota bestela haren obra iraupen gutxikoa da eta, azken batean, hutsala.

Straussek erabiltzen dituen hitzekiko alde gutxi duten hitzetan adierazi dugun eragozpenak Max Weberrek berak onartzen zuen ondorio eztabaidaekin bat dakar berarekin: zientzia historikoa edo soziala baliozkoa da unibertsalki, baina haren unibertsaltasuna hipotetikoa da. Hasierako hipotesien, balioen hautaketa baten eta gizaki guztiei ezartzen ez zaien eta garai batetik bestera aldatzen diren balioekiko erlazio baten mende dago unibertsaltasun hori. Esango zait ezen matematikak edo fisikak ez dutela balio ez bada egia mota horrek kezkatzen dituenentzat. Bada, ordea, alde erabakigarria natur zientzien eta kultur zientzien artean Max Weberrek haiek ulertzen dituen bezala: behin egia matematikoa edo fisikoa nahi delarik, zientzia hauen garapena pilotzailea da. Berrikuntza teorikorik gertatzen bada ere, atzoko proposamenek leku bat aurkitzen dute, beren hurbilketa maila propioarekin, gaurko eraikuntzan. Aldiz, baldin, aldian-aldian, historialarien eta soziologoaren arazoak aldatzen badira, XXI. mendeko gizakia, egia objektiboa nahi badu ere, ez dago beharturik XX. mendeko gizakiak mahairatzen zituen arazo berberez interesatzera.

Bere printzipioetatik eratorritako ondorio hau zalantzarik batere gabe onartzen zuen Max Weberrek bi arrazoiengatik: bata esplizitua da, bestea inplizitua. Jakitunak mahairatzen ditu arazoak —esaten zuen—, baina behin mahai gainean daudela, erantzunak baliozkoak dira unibertsalki. Bestalde, ezin gera zitekeen esan gabe eta uste izan gabe ezen berak iraganari dagokionean planteatzen zituen arazoen etorkizuneko gizakientzat ere zentzuren bat izango zutela. Adierazi gabeko arrazoi hori da, erantzunen objektibotasuna baino gehiago, zientzia historikoen baliozkotasuna oinarritzen duena.

Max Weberrek balioen arazo edo balioekiko erlazio deitzen zuenak ez bakarrik zertzen ditu ikerketaren helburua eta mugak, baita haren beraren formulazio kontzeptuala ere. Nola gertatuko ez ziren, bada, banatu ezinezko proposamen zientifikoak (erantzunak) eta formulaturiko arazoak? Max Weberrek berak zalantzak izan zituen formula desberdinen artean: erantzuna une berean ulertze eta kausalitate denez, azken honek bermatzen ditu proposamenak beren baliozkotasun hipotetikoki unibertsalean. Baina formula honek ontzat emango luke ezen historia eta gizarte-zientziak erlazio kausalez bilbatuak leudekeela, eta hori ez da horrela. Edozein delarik ere kapitalismoaren sorreran duten jarduera, kalbindarren ulertzeak hartzen du ikerketaren zatirik handiena. Ez da, bada, kausalitatea Max Weberrek kalbinismoa ulertzeko zuen moduaren baliozkotasuna oinarritzen duena.

Zertan datza, orduan, ulertzeko era honen egia, baldin honek berarekin kontzeptu multzo bat badakar eta multzo hau interpretearen eta bere garaiaren adierazpide bada? Egia da interpretazioak bat etorri behar duela gertakariekin eta dokumentuekin, baina Max Weberren beraren arabera izan daitezke datu berberen interpretazio desberdinak. Analisia urrunago eramaten ez bada, epistemologia loturarik gabeko aniztasun honetan geratuko da. Aniztasun hau gainditu nahi bada, analisi zorrotzagoetara jo behar da.

Max Weberrek behin eta berriro azpimarratzen zuen zentzu subjektiboaren, hau da, egile historikoez bizi izan zuten zentzuaren auzia. Bizi izandako zentzua da, ez egiazko zentzua, historialariek eta soziologoek bilatzen dutena. Bizi izandako zentzua, halere, korapilatsua da: kalakariak egiazko igarletzat har dezaten irrikatzen du; demagogoak buruzagi karismatikotzat. Aktoreek beren esperientziei ematen dieten adierazpena, haiei buruz duten edo eduki uste duten kontzientzia ez dira derrigorrean egia historikoa. Zentzu guztiak truka badaitezke beren artean, inork ez badu besteek baino irismen gehiago, gizarte-zientziek ezin ihes egin diezaiketeko kaosari.

Izan ere, zentzuen aniztasuna ukaezina da, baina kontua ez da aniztasun bat edozein.

Baldin demagogoak kalakaria bada, oker dabil buruzagi karismatikotzat hartzen duen historialaria. Baldin igarlea benazkoa bada, oker dabil harengan nahastailea ikusten duen historialaria. Bereizketa hori da Max Weberrek bere epistemologia esplizituan kontuan jasotzen ez zituen unibertsoetako barneko balio-iritzi horietako beste adibide bat. Gertakari historiko bat ulertzeko era desberdinen artean berez finkatzen da hierarkia: zentzua inguruneari dagokionez, jarraitzaileek ematen zioten zentzua eta sortzaileak berak eskaintzen dion zentzua ez dira bata bestearen gainean ipintzen. Sineste erlijioso edo sistema filosofiko baten zentzua, lehenbizi, igarleak (edo teologoak) eta filosofoak eman diotena da. Gainerako esanahiak horren arabera azpimarratzen dira. Historialariak lehen zentzu hau bilatzen hasi behar du, gainerakoak ikertzen hasi aurretik.

Historialariak bere kontzeptu propioak ezartzen badizkio barneko zentzuaren interpretazioari hura berritzen ari dela esango zait, noski. Hala da. Baina hortik atera daitekeen ondorio bakarra da ezen, baldin unibertso filosofiko edo erlijiosoan barneko antolaketa ez balego, interpretazioen segida obrena bezain loturarik gabea litzatekeela. Proposamen nabarmena haxe, inolaz ere hari buruz zerbait gogoetetzen hasiz gero. Ez dago gizadiaren historiari, gizadirik egon ez badago. Ez dago filosofiaren historiari, filosofiarik egon ez badago.

Ongi ulertzen dugu baieztapen horien irismena. Ez da beharrezko gizadiak bere buruari dagokionez ideia bakar bat izan dezan, batasun bat izateko; aski da bere izateari buruz izan dituen ideiak era batera edo bestera antola daitezen, ez daitezela azaldu beren artean batere loturarik gabeko bezala edo beren artean aske bezala. Era berean, filosofiak historia baten batasuna erdiesten du auziak beren artean kateatzen diren unetik, erantzunak beren artean kontrajarri arren.

Max Weberren soziologia historikoak, era berean, onartzen du gizarte desberdinak konparatu litezkeela beren artean, eta unibertsalki baliozko den kontzeptu-sistema batean antola daitezkeela. Straussek Max Weberri aurpegiratzen dio aintzat hartu ez izana unibertsalki baliozko den sistema kategorial baten posibilitatea eta premia, eta, sistema honen erlatibitate historikoa onartu ondoren, historia unibertsalaren bere soziologia probintziakeriarekin faltsutu izana. Hiru botereen bereizkuntza —tradiziozkoaren, arrazoizkoaren eta karismatikokoaren artekoa— egoera berezi baten adierazpena baino ez da, Frantziako Iraultzaren ondorengoarena, tradizioaren eta arrazoiaren, antzinako erregimen zaharraren eta iraultzaren antinomiak dominatzen duen garaikoa. Hirugarren botere mota, karismatikoa, eransten da, eskema osoa den itxura emateko. Ez da gure asmoa hemen hiru botereen bereizkuntzaren meritua edo meritueza eztabaidatzea, baina bada puntu bat non Straussek arrazoi duen Max Weberren epistemologia esplizituaren aurrean: bereizkuntza horrek esanahirik du soilik, eta horren neurrian izango du, baldin botere zenbatu ezinak hiru motetako batean jaso ahal badaitezke; edo bestela esanda: baldin, eta horren neurrian izango du, aniztasun historikoa ez bada erro-errotik inkoherentea. Baina inkoherentziak ez du esan nahi oraindik (eta puntu honetan Max Weberrek arrazoi du Straussen aurrean, argumentuaren une honetan behintzat) historiak gaindiko antolamendurik badagoenik, non integratuko lirartekeen bereiztasun historikoak. Egia da era okerrean nahastu dela antzinako erregimenaren eta iraultzaren arteko etsaigoa tradizioaren eta arrazoiaren arteko antinomiarekin. Litekeena da tradizio-arrazoi antinomia aro historiko bakar baten ezaugarri izatea. Hala eta guztiz ere, Weberren eske-mak, nire ustez, Straussek ukatzen dion irismena dauka.

Hiru hitzek (tradizio, arrazoi eta karisma) mendekotasunezko hiru printzipioei dagozkie. Ohiturak sagaritzen, arrazoiak izendatzen edo bihotz-ikarak gainerakoen gainetik jartzen dituzten buruzagiei obeditzen die gizakiak. Agureek,

antolatzaileek eta igarleek sinbolizatzen dituzte Straussek onar zitzakeen hiru zilegitasun-iturburuak, egunoroko bizitzako nozioen arabera pentsatzen duen hiritar ez filosofikoak ezagutzen dituen eruedetatik oso hurbil daudenak direnez gero. Gure garaian, gainera, arrazionalizatzeko bidean daude funtzioari edo gaitasunari eman ohi zaion agintaritza edo iraganak edo zahartzaroak oraindik gauzatzen duten agintaritza. Sekula ez da aski, halere, agintaritza arrazional hori; maila gorenean, buruzagiak ez du argudiatzen arrazoi soila bakarrik. Azken analisi batean tradizio batek, mekanismo arrazionalenak besterik ez bada edo jendetzaren bihotz-ikarak, eraldatua dago. Gure zibilizazioak duen arazo politikoaren muina jasotzen laguntzen du Max Weberren eskemak.

Egia da, horrela planteaturik, arazo politikoak ez duela bere hartan onena den irtenbiderik. Pentsa daiteke, beraz, bestelako gai batzuen posibilitatea, Weberren eskemako zilegitasun partzialaren parekoa. Aniztasun historikoa ez dela loturarik gabea onartuta ere, bi tesien arteko kontrajartze bat dago: Weberrena, alde batetik, erregimen onena eta aniztasunaren antolakuntza unibertsalki baliozkoa bilatzea alde batera utzirik, une berean konparazio bidezko zientzia baten zilegitasuna berarekin dakarrena, eta Straussena bestetik, konparazio bidezko zientzia aniztasun historikoa kokatzen den historiaz gaindiko antolakuntzari lotzen diona.

3. Garaien eta erakundeen errotiko aniztasunak denboraren joanean soziologia historikoari balioa kenduko liokeen bezala, hala orobat erabakien irrazionaltasun errotikoak balioa kenduko lioke zientziaren eta politikaren, balioekiko erlazioaren eta balio-epaien arteko bereizkuntza zorrotzari buruz kezkatzeari. Azken batean, zergatik ez hartu zientziatzat politika dena, baldin, azken finean, zintzotasuna hautaketa posibleetako bat baino ez bada, zinismoaren, hipokresiaren edo nahasmenduaren hautaketa bezain baliozkoa, ez gehiago eta ez gutxiago? Arriskua are egiazkoagoa da, bai baitirudi Max Weberrek idealtzat jotzen duela bere hautake-

taren gauzatze goren bezala alegia, bakoitzak obedi diezaiola bere jainko propioari edo bere deabru propioari. Izan zaitez zarena, hori izango litzateke era horretan ez moral ez zuhurtzia, baizik eta, beharbada, etika pertsonal dei daitekeenaren azken hitza.

Tradizio filosofikoarekiko erlazioa begizatzen badugu, Nietzscheren jarraitzaile dirudi kasik Max Weberrek. Ezezkoa ematen dio moralitasunaren arau formalak erlatibotasun historikoaren gainetik jartzeari. Kanten inperatiboak, hortaz, dogma kristauekiko atxikimendua edo bizi-balioen kultura dira, eta jarrera baten ezaugarri. «Ez egin inori zuri egin diezazuten nahiko ez zenukeenik»; pentsamendu horrek botere-nahiaren bridatzea, norbanakoen arteko berdintasun-eta elkarrekikotasun-printzipioekiko mendekotasuna eskatzen du. Bere burua Kaliklesen gisara gauzatzea hautatu duen norbanakoa ez da makurtuko indartsuetatik babesteko ahuleki aldarrikaturiko dabekuen aurrean, edo jaunak kateatzeko esklaboek aldarrikaturikoen aurrean.

Eztabaidaezina da inondik ere ezen arau formalak moral material bati loturik daudela, eta azken hau bateraezina dela bizi-balioen eta botere-nahiaren kultuarekin. Baina baldin maila berean jartzen baditugu elkarrekikotasun inperatibo eta inperatibo hau ukatzea, orduan ez da zilegi zalantza hori; nihilismo soilean erortzen gara. Dena da baliokide. «Ez duzu hilko» ez da, azken batean, «zoaz zure egitekoaren azkenerraino, horretarako zure amaren gorputzaren gainetik pasa behar baduzu ere» baino garbiagoa. Baldin azkenean irauten duen gauza bakarra norberarekiko leialtasun-obligazioa bada, ezeren aurrean gelditzen ez den Nietzscheren jarraitzaileak eskrupuluek geldiarazten duten bortxatzaileak baino gehiago balio du.

Ukaezinak dira Max Weberren testu batzuen ondorio nihilistak. Gaineratu behar dut nihilismoa haren pentsamenduaren joeretako bat izan zela. «Jainkoa hil da, dena da zilegi». Edo gutxienik: «Jainkoa hil da, bakoitzak hautatzen

du bere jainko propioa, eta, beharbada, deabru bat izango da». Baina joera hori ez da haren pentsamendua zeharkatzen duen joera bakarra. Nietzschek jarraiki, batzuetan jotzen zuen nihilismoa ez zen berariaz egindako hautaketa baten helburua, baizik haren ustez funtsezkoa zen printzipio baten ondorio nahitaezkoa: balio-epai bat edo inperatibo moral bat zientifikoki ezin demostrar daitekeela.

Onar dakioke ezen «ez egin inori zuri egin diezazuten nahiko ez zenukeenik», edo «ez duzu hilko» aginduen egia ez dela grabitazio unibertsalaren edo erlatibitatearen ekuazioen maila berekoa. Behin egia unibertsalaren, natur zientzia modernoak pentsatzen duen eran, eta gainerakoaren arteko heterogeneotasuna finkatu ondoren, Max Weber moldatu zen kulturaren zientzietan barruti bat mugatzeko, non fisikaren maila bereko egia bat baieztatzea posible zatekeen, gainerako guztia kanpoko ilunetara jaurtikiz.

Bikoitza da haren okerra: arazoen (apetazkoak) eta erantzunen (objektiboak) arteko bereizkuntza haren analisisiek pentsaraziko luketena baino askoz katramilatuagoa da. Baldin egia zientifiko ez den oro apetazkoa bada, mitoen eta bizi-balioen kontrako hobespena bezain funtsik gabeko hobespen baten helburu gertatuko litzateke egia zientifikoa bera ere.

Max Weber irten zitekeen bere burua hertsitzen zuen zirkulu horretatik. Izan ere, haren hizkera bera erabiliz, berak egia zientifikoa hautatzen zuen hain zuzen ere unibertsala delako, mugak eta mendeak gainditzen dituen espirituaren elkargo baten baldintza eta etxe delako. Bizi-balioen kultuak, botere-nahiaren baiespenak unibertsaltasunaren ukatzea daramate berekin: lehia, eta ez espirituaren elkargoa, izango litzateke orduan gizadiaren muina. Logikoki onartuta ere ezen $2 \times 2 = 4$ formularen egia eta «ez duzu hilko» esapidearena ez direla mota berekoak, oraindik dirau ezen berdintasun aritmetikoaren azken zentzua gizaki guztiei zuzentzen zaiela, eta unibertsaltasun hau bera daukala halaber hiltzeko debekuak beste bide batzuetatik.

Jatorri kristauko moral arrazionalistaren arau formalak —horren adierazpen gorena Kanten filosofia da— ez dira, koloreak bezala, gustu kontua. Gizatasunaren, gizakien gizarte unibertsalaren garapen logikoa dira, eta ideia hori banatu ezinezkoa da egia zientifikoaren zentzu sakonetik. Arau hauek formalak dira, haien gauzatze egokia diren erakundeak ezin gera daitezkeelako mendez mende aldatu gabe materia- ren eta gizartearen tekniken arabera.

4. Zer axola du horrek? —erantzungo zukeen Max Weberrek—, baldin filosofoak proposamen eta agindu ez-zientifikoaren kategoria anitz finkatzen baditu. Ni ez naiz izan filosofo, ezta asmorik ere. Ez naiz ausartu filosofiaren bidetik, zientziaren mugak eta ekimenaren antinomiak markatzeko ez bada. Baina moral formalari arnasa ematen dion unibertsaltasun-asmoa ez da iristen ekintza-gizonen erabakietara. Bestela esanda, eta Max Weberrena ez den hizkera batean mintzatzeko, ekintzari buruzko Weberren fenomenologia baliozkoa da oraindik, moral formala erlatibitate historikoaz kanpo jarrita ere.

Har ditzagun berriro, banaka, fenomenologia honetako funtsezko datuak. Egiaz bi moral al daude esentzialki desberdinak, erantzukizunarena eta uste sendoarena? Lehen begiratuan, baten batek tentazioa izango du erantzuteko, Leo Straussek bezala, ezen ez dela morala uste sendoaren moralaren arabera soilik diharduen gizakia. Inork ez du eskubiderik ez kezkatzeko bere egiteen ondorioez. Bestalde, ondorioei buruzko kezkak osatu egiten ditu, haiek kontraesan gabe, ekintzaren arrazoiak. Uste sendoz eta ondorio jakin batzuk lortzeko jarduten da.

Eragozpen horiek azalekoegiak dira sinesgarriak izateko. Max Weberrek ez du esan nahi erantzukizunaren moralistak uste sendorik ez duenik, ezta uste sendoaren moralistak erantzukizunaren zentzurik ez duenik ere. Berak iradokitzen du ezen, baldintza ezin txarragoetan, bi jarrerak kontrajarri daitezkeela, eta, azken analisisian, batak arrakasta baino nahia-

go duela amore ematen ez duen bere printzipioen baiespena, eta besteak bere uste sendoei uko egiten diela arrakastaren premien aurrean, bata zein bestea moralak direlarik moralta-suna ulertzeko molde jakin baten barruan. Erantzukizunaren moralistaren begietan, Romain Rolland errudun da bere kausaren zuzentasunean frantsesen konfiantza ahultzen duelako; ez da halakorik, ordea, uste sendoaren moralistaren begietan: haren ustez, izan ere, egiaren begirunea eta espirituen anaitasuna lurralde baten garaipena baino helburu goragokoak dira, lurralde honek kausa erlatiboki garbi baten aldekotasun sutua agertzen badu ere.

Bestalde, erantzun hori sinesgarria eta laburra iruditzen zaigu. Egia bada ere uste sendoaren moralista bere egintzen ondorioengatik kezkatzen dela, neurri berean da egia erantzukizunaren moralista sarri tentatuta dagoela arau formalak hausteko edo helburu jakin batzuk lortzeko balio jakin batzuei uko egiteko. Ezerk ez dio gehiago laguntzen borrokaren efikaziari borrokalarien kontzientzia onak baino. Mitologiak edo gezurrak egiaren adierazpen leialak baino gehiago laguntzen du kontzientzia ona eratzten. Bendak Dreyfus aferaren garaian erabiltzen zituen formulak izenpetuko zituen Max Weberrek: «Intelektuala naizenez, egia defenditzen dut, hau da, Dreyfusen errugabetasuna aldarrikatzen dut; baina ez dezala inork esan era horretan aberriari edo armadari zerbitzatzeko ari naizenik. Guztiz bestela, Estatu Nagusiaren ospea konprometitzean, buruzagi militarren beharrezko autonomia ari naiz arriskuan jartzen. Nik, ordea, egiaren erantzukizuna daukat, ez indar frantsesarena.»

Ez dut uste Leo Straussek ebidentzia horiek ukatuko zituenik. Filosofia politikoan ekintzaren ezinbesteko antinomiei eman behar zaien lekua finkatzean dago koska. Ordezkarri ospetsuena Makiavelo duen eskola oso batek dio politikaren esentzia muturreko egoeretan azaltzen dela hain zuzen. Politiko batek konbentzitu eta erantzukizunduna izan behar du aldi berean. Baina zein da hautaketa morala gezu-

rra esan edo galdu behar denean, hil edo garaitua izan behar denean? «Egia», erantzungo du uste sendoaren moralistak; «arrakasta», erantzukizunaren moralistak. Bi hautaketak moralak dira, baldin azken honek erdietsi nahi duen arrakasta hiriarena bada eta ez berea.

Antinomia esentziala iruditzen zait, kasurik gehiengotan zuhurtziak arrazoizko konpromiso bat iradokiko balu ere. Konpromisoa zaila bihurtzen den azken egoeran, ezinezkoa ez bada, ez da salbuespena, eta arriskua azaltzen da istilua sortzen den une beretik. Halere, Max Weberrek zioen, eta ez arrazoirik gabe, politika berez nazioen, alderdien eta norbanakoen arteko liskarra dela. Inork ez du sekula pentsatu Kanten moralaren arau formalak, une berean, eraginkortasunezko arauak direnik borrokalariek gatazka politikoan erabil ditzaten. Max Weberrek uste sendoaren moralari buruz eskaintzen dituen adibide historikoak, berenez eztabaidagarriak, ez dira halabehar hutsez hautatuak: bakezaleak ezetz esaten dio gerran sartzeari, sindikalista iraultzailea (Max Weberrek hura eraikitzen duen bezala) gerra-borondatearen azkeneraino doa. Batak zein besteak zuhurtzia orori uko egiten diote (erantzukizunaren moralistak, arrazoi osoz, aurpegiratzen dio), baina biek erantzun dezakete, batak ez duela sartu nahi gerran, besteak erregimen gorrotatuarekin ez duela konpromisorik egin nahi. Ezezko baldintzarik gabea, erabatekoa, dena galtzeko arriskua ekar lezakeena, ezezko hori da Max Weberrek uste sendoaren morala deitzen zuenaren azken adierazpena. Ez dago erantzukizuna duen inor egunen batean edo bestean bera ere ezetz esatera beharturik egongo ez denik, edozein delarik ere horregatik ordaindu beharko duen prezioa, *weil er nicht anders kann*, ezin izango duelako bestela jokatu. Labor: gizakien munduan, den bezalakoa izanik, zuhurtziak, non normalki borondatearen baiespena eta ondorioengatik kezka bateratzen diren, moral unibertsalaren eta borrokaren premien arteko kontraesanaren eragozpenean hondora joateko arriskua du une oro. Gerra ezin bana daiteke politika-

tik, eta politikan sartzen den pentsamenduko gizakiak ez du lortzen ez borrokariaren betebeharrak osoki makurtzea, ez haietatik guztiz askatzea ere. Arrazionalizatu egiten ditu bere kontraesan guztiak bi moralen antinoman, hori iruditzen zaidalarik ekintza politikoaren fenomenologiaren mailan politikan dabilen intelektualaren kontzientzia urratuaren kontzeptualizazio leiala.

«Arima salbatu edo hiria salbatu»: historian zehar kristauak ez dute uste izan bi termino horiek bateraezinak zirenik. Baina gerra da politika, eta Max Weberren kontzientzian moralak zen moral unibertuala, Kristorena edo Kantena, bakea da. Zuhurtziak irakatsiko die apika filosofoei gerran ez sartzen. Hartan sartzen badira, zuhurrak izango dira apika. Egiaziak izango al dira? Garbiak izango al dira?

5. Filosofo askok bi moralen arteko antinomia artifizialtzat jotzeko tentazioa izango du: bi joera, elkarren osagarri, batzuetan dibergenteak badira ere, aurkezten dira han bi termino kontrako bezala. Max Weberrek, aldiz, antinomia horretan zinez giza izaera osatzen duen zeinua ikusten zuen. Kontrako horren izatea hiru mila desberdinetan ikusten zuen: eztabaida politikoan, antolakuntza zuzenaren oinarrian eta giza ekintza edo izatearen azken helburuan:

a) Max Weber behin eta berriro erakusten zuen ezen edozein neurri jakinek (muga-zergen eskubide batek, zergen igotze edo jaiste batek, dirulaguntza batek) izan dezakeela egia zientifiko baten duintasunik. Ezinezkoa da talde bati mesede egitea beste bati kalterik egin gabe, produkzio globalaren aurreratzea ez da garestiegi ordaintzen prezioa izanik merkatari txikien hondamendia edo eskualde atzeratu baten pobretzea; ezinezkoa da demostratzea neurri fiskal baten ondorioak, bere hartan tamalgarriak, handik espero diren onurerekin berdinduak izango direnik. Argudiatzeko mota hori une berean da eztabaidaezina eta irismen handirik gabea. Guztien interesen eta norbanakoen interesen auzi jada klasikora igortzen du.

Jar gaitezen ekonomia modernoaren unibertsoan. Ziurtasunez soilik esan daiteke ezen neurri jakin bat interes komunarekin bat datorrela batzuen pozbideak gehitzen dituenean inorenak gutxitu gabe (pozbideak eskura dauden sarrerek osatzen duten adierazpen objektiboaren arabera neurtuz). Pareto-k kolektibitate baten interes handienari buruz ematen duen definizioak iradokiriko hipotesi honetan bertan ere zinez ziurtasun-gabezia batek iraute du: inorenak gutxitu gabe batzuen sarrerak gehituko lituzkeen neurri batek injustiziak sorturiko asegabetasuna handitu lezake, multzoaren aurrerakuntzak banaketan desberdintasuna areagotuko balu. Halaber, neurri bat mesedegarri denean batentzat eta ez besteentzat, ezin esan daiteke besterik gabe egindako hautaketa zehazki zientifikoa ez denik, egiaz apetzakoa denik eta unibertsalki baliozko den demostraziorik ezean ez dela besterik geratzen ez bada borroka amairik gabea eta irtenbide bidezkorik gabea baino. Gizarte industrialaren barruan, etengabeko eztabaida dago, baina eztabaida hori ez da heriotzarainoko borroka eta ez du albora uzten arrazoizko eztabaida eta irtenbide negoziatua.

Bada akordio bat lortu beharreko helburuei dagokienez: produktu nazionala gehitzea eta banaketako desberdintasunak murriztea. Bi helburu horiek —garapena, batetik, eta desberdintasunak murriztea, bestetik— ez dituzte beti iradokitzen, halere, irtenbide berberak. Berdintasuna gehiegi azpimarratuz, garapena konprometitzeko arriskua dago. Garapenarekin setatzeak gizakien sufrikarioak ahaztera eramaten du eta bihiak eskaintzera etorkizuneko belaunaldien mesedetan. Ez dago neurri tekniko deiturikoen artean bat bera ere (interetasak, muga-eskubideak, zergak) eragin politiko eta sozialik ez duenik edo, bestela esanda, sarreraren eta boterearen banaketari eta une berean multzoaren garapenari ez dagokionik. Welfare —ongizatea— (adibidez, sarrera kopuru jakin baten berdintasunezko banaketak pozbideak gehitzen ditu, aberats batengandik pobre batengana aldaturiko sarrerak azken ho-

nen pozbideak gehitzen dituenetz lehenbizikoarenak gutxizten dituen baino maila handiago batean) oinarritzat daukaten hipotesiak eztabaidagarriak dira, eta, edozer delarik ere, ez dira zientifikoak. Oker legoke, ordea, zientziaren eta erabaki apetzakoaren arteko alternatiba planteatzea. Denei ezartzen zaizkien metodoen arabera demostratua izan delako badela lekua arrazoizko erabakirako, arrazoiaren gainean oinarrituriko nahiz batzuen interesaren kontrako erabakirako, denentzat baliozkoa den proposamen arrazionalaren eta bakoitzak bere kasa egiten duen eta inor behartzen ez duen hautaketaren artean.

Eztabaida eta arrazoizko hautatzea zibilizazio industrialaren barruan eta are erregimen jakin baten barruan kokatzen dira. Oraindik ere industrializazioaren kontra dagoena edo produkzio-baliabideen jabego pribatua baldintzarik gabe ukatzen duena ez da sartzen arrazoizko eztabaida honetan. Horrela pentsatzen duena historian kokatzen da; eta historia gizakien, alderdien eta jainkoen arteko borroka amaigabeez eginga dago.

b) Bigarrenik, Max Weberrek antolakuntza zuzenaren definizioa eztabaidatzen duten gatazkak menderaezintzat jotzen zituen. Zeintzuk dira berdintasun kontzeptuaren eskakizunak? Horixe da, azken finean, antolakuntza zuzenari buruzko eztabaida osoa laburbiltzen duen galdera. Galdera horrek —esaten zuen Max Weberrek— baliozko bi erantzun ditu: edo gehiago produzitzen duenari gehiago zor zaio edo bestela gehiago eskatzen zaio. Talde hautatuenari mesede egin behar zaio eta osotasunean garatzen lagundu? Edota bestela, legediak naturaren kontrako norabidean jokatu eta natura iraupen berberarekin desegiten saiatzen den berdintasuna etengabe berrezarri behar du? Ez arrazoirik gabe uste du Straussek Max Weberrek ez zuela nahikoa zorrotz formulatu antinomia, eta, gutxiago oraindak, gizarte orok onartu behar duen desberdintasun naturalen kontrako tesia bezain onarga-

rri agerraziko duten hitzetan aurkeztu ere kosta ahala kostako berdintasunaren tesia.

Ezin eztabaida genezakeen sakontasunez antolakuntza zuzenaren arazoa sarrera honen mugak gainditu gabe. Aski izango da Weberren berdintasunaren antinomiei buruzko teoretietan ohar batzuk egitea seinatzeko zer den eztabaidaezina eta zer den baliozko Straussek antinomien eraldaketa tragiko honi buruz egiten duen ukapenean.

Ikus ditzagun politikaren doktrinazaleak eta orobat alderdietako buruzagiak. Kontua da batzuk kezkatuagoak daudela talentuei bide librea uzteko eta besteak baldintza aldeak areagotu daitezten eragozteko. Irakur dezagun Alain berriro; erradikalismoko filosofoak aitortzen du, August Comterekin bat eginez, gizarte guztietan daudela aberatsak eta boteretsuak, baina bera gehiago arduratzen da aberastasunaren eta boterearen gehiegikeriak ekiditeaz ekoizleei beren gaitasunengatik merezi duten saria emateaz baino. Beste idazle batzuek kontrako bidera jotzen dute eta beren buruei galdeztzen diete ea nola ziurta daitekeen elite baten hautaketa eta indartu onenen agintea. Kontua sarrerak edo boterea izanik ere, niri iruditzen zait ez dela zalantza egitekoa ezen ideologia ekonomiko eta sozialen arloan bi joera agertzen direla; bata, denei bizi-baldintza ahal bezain berdinak eman nahi diena, eta bestea, gaitasunei zor zaien saria igo nahi duena; bata, gobernariak, onenak izanda ere, mugarik gabeko boterea erabil dezaten eragotzi nahi duena, eta bestea, beren egitekoen duin diren gobernariaren agintearen tinkotzea helburutzat daukana.

Hobespen dibergente hauek ezin gera daitezke ekin gabe arazo jakin bat konpondu behar den bakoitzean. Dela zerga-sistema, dela hezkuntza-sistema edo ekoizpen-tresnen jabetza, berdintasunaren doktrinazaleak zentzu batera joko du eta hierarkia naturalarenak eta sozialarenak bestera. Ildo horretan, Max Weber ez zebilen oker erabaki politikoaren eta demostrazio zientifikoaren heterogeneotasuna seinatzean.

Arrazoi zuen, halere, hobespen dibergenteak oinarrizko kontraesan menderaezin batekin parekatzen dituzen?

Parekatze honetara iristen da honoko postulatu hauen bidez: 1. Gizakiak desberdinak dira naturalki, baina desberdintasun natural hori da bidegabekeria gorena eta jatorrizkoa, eta politikako teorikoak eskubide osoa du pentsatzeko hori ezabatu egin behar dela eta helburu hori lortzeko jardun behar dela. 2. Espirituaren eta moralitasunaren aldetik ondoen hornitua dauden premia dauka gizarteak, baina berdintasunaren espirtuak sutzen duenak gogoeta pragmatikoak ahantzi eta zuzenbidearen inperatiboari —berak ulertzen duen bezala— baino ez obeditzeko eskubidea dauka. 3. Gogoeta desberdinak eta partzialki dibergenteak une berean nagusitzen direnean, haietako bat onartzen ez duenak ez du denak elkarrekin eutsi nahi dituenak baino gutxiago balio, edo, bestela esanda, muturreko moderatuaren maila berean dago, monoidealista ez dago zuhurra baino beherago.

Aski da postulatu horiek formulatzea sumatzeko gutxienez eztabaidagarriak direla eta denek jatorri bera dutela, psikologikoa logikoa baino areago. Kontzientziaz kanpora hautaketa baino ez dago; eta hautaketa, beraz, ez delarik zientifikoa, bere sinesteen azkeneraino doana ezin kondena daiten, fanatismoraino eramana izan bada ere. Aski da gogoeta hauen (edo, nahiago bada, balio hauen) aniztasuna onartzea, haien artean antinomia menderaezin bat postulatu gabe, irtenbide bat badagoela konturatzeko. Gizaki guztien duintasun beragatik eta, gure gizarteetan, desberdintasun ekonomiko murrizteagatik kezkatzea; desberdintasun naturalen onartzea eta talentuen garapen libreaki laguntzeko premia; gizarteko hierarkia onartzea eta hura buruzagien hautaketaren bidez zuzena bihurtzeko borondatea eta gobernatuei jasagarria egitekoa boteretsuen eskumenak mugatuz: datu horietako bat edo beste onartu nahiko ez litzkeenak ez du oker zientifiko edo moralik egiten, baina ez da oso arrazoizkoa. Max Weber beharbada mugatuko litzateke erantzutera ezen, hori

egiazkoa bada ere, ez dela ikusten zergatik balio duen gehi-
go arrazoizkoa izateak pasionatua izateak baino. Beharbada
kontraesankorrak baino gehiago, antolakuntza zuzeneko iriz-
pideak anitzak dira besterik gabe, beharbada aurkakotasunak
irtenbide konkretuen mailan aurkez daitezke eta ez printzi-
pioenean, hauek abstrakzio-maila gorenean elkarren osaga-
rri eta ez kontraesankor baitira. Edozer delarik ere, egia da
betiere pertsona bakoitzaren, zibilizazio bakoitzaren eta garai
bakoitzaren eskakizunak ezin konpara daitezkeela beren ar-
tean. Existentzia bakoitzak dauka bere Jainkoa, eta jainkoak
borrokan ari dira.

c) Gatozen hirugarren kontraesanera: sakonena da,
erabakigarria benazkoa bada, balioen arteko kontraesana.
Nolabait esateko, Max Weberrek balioen arteko kontraesana
iradokitzen zuen berez nabaria balitz bezala, baina ez zuen
demostratzen, eta erabiltzen dituen adibideek ez dute beti
konbentzitzen. Gauza bat —esaten du berak— ederra izan
daiteke hain zuzen ere ona ez delako, eta hala gertatzen da
Gaizkiaren Loreak liburuarekin ere. Baudelaireren obra ez
da morala, noski, ez helburuz ezta beharbada egilearen as-
moei dagokienez ere, poetaren asmoa moralari dagokionaren
arabera juzga daitekeela ontzat emanez. Baina *Gaizkiaren
Loreak* obraren edertasunak ez dauka kausatzat gaien moral-
gabetasuna edo sortzailearen (ustezko) moral-gabetasuna.
Artelanaren zentzu bereziaren eta ustez moralizat hartu be-
harko litzatekeen portaeraren xedearen artean, edertasunaren
eta eginbeharraren artean, ez dago irtenbiderik gabeko gataz-
ka bat, aniztasun soila baizik, Indian kasten artean gertatzen
denaren antzekoa.

Ez dago demostraziorik —esaten du halaber— kultura
alemaniarrak eta kultura frantsesak bakoitzak duen balioaren
auziari irtenbidea ematen lagunduko dionik. Egia da hori.
Baina, ba al du zentzurik auzi horrek? Zinez, hierarkia bat
finka daiteke unibertso jakin baten barruan obra desberdinen
artean, baina ezin finka daiteke hierarkiarik multzo histo-

rikoen artean, haietariko bakoitzak historia osoaren aberastasunari laguntzen baitio; haietariko bakoitzak besteak ez duen zerbait ekartzen du.

Ohar hauek hain dira nabariak non nekez onar daitekeen Max Weberrek ikusi ez zituenik.

Irakur dezagun, bada, berriro, esaldi nabarmenena: «Herri-jakituriak erakusten digu gauza bat egiazkoa izan daitekeela, nahiz eta ez izan ederra, santua edo ona, eta litekeena dela egiazkoa izatea hain zuzen ere hala ez delako». Zergatik ez du aipatzen Max Weberrek herri-jakituriak erakusten duen beste ondorio bat, alegia unibertso espiritual bakoitzak bere lege propioa duela, eta zergatik aipatzen du, aldiz, politeismo greziarra zuzen zebilela jainkoen arteko borroka iradokitzean?

Gizakia ezin porta daiteke une berean santutasunezko moralaren eskakizunen eta moral mundutarraren eskakizunen arabera. Beste masaila eskaintzea duintasun-gabezia da, santutasuna ez bada. Bestalde, egia bada ere Apolo eta Marte, Venus eta Minerva ez daudela beren artean borrokatzera kondenaturik, pertsona bakoitzak, indibiduala edo kolektiboa izan, ezin diezaieke ofrenda egin une berean jainko guztiei. Giza egiteen aniztasuna erraz jo dezake filosofoak aberasgarritzat; gizakiak, besteen artean bakarrik dagoelarik, ezin hauta dezake egite-era bat horrekin gainerakoei uko egin gabe. Gizarte bat ezin gailendu daiteke une berean ekintza-, santutasun-, arte- eta gogoeta-alor guztietan. Ildo horretan, existentzia oro da hautaketa, eta hautaketa orok berarekin darama «bai» gehiago «ez» baino, eta leial izatera baino, etsai izatera kondenatzen du bakoitza.

Gauza garbia da norbanakoak ez dituela gauzatzen bere izatearen edo gizatasunaren gaitasunetatik batzuk baino. Gauza jakina da, orobat, garai bat edertasunari buruz egin den ideia morroi dela. Baina norbanakoak zientzia-gizon lanbidea hautatzean gudariaren etikaren kontra hautatzen ez

duen bezala, Fidiasek ere ez zuen hautatu estatuaria greziarra Elefantakoaren kontra. Errealizazio bakoitzaren berezitasunak ez dakar berarekin berezitasunen arteko istilua. Gehienik ere berezitasun horrek kaos espiritual bat sortuko luke baldin erlatibitate garbi eta soila gogoeta historikoaren azken hitza balitz.

Jainkoen arteko gerra edo, gutxienik, jainkoen fededunen artekoa sortzen da baldin jainko baten kulturak beste batena zuzenean kontraesanean jartzen badu. Hirian, hiritarrak edo ekintza-gizonak alderdi baten edo beste kausa batzuen alde hartu behar du postura beste alderdi edo beste kausen kontra, alderdi guztiak ustez goren diren balioetan babesten baitira. Kristauek Panteoi erromatarra borrokatzen zuten garaian, historiako aktoreek heriotzarainoko borroka baten barnean ezinbestean destinaturik zeuden jainkoetan sinesten zuten. Gauza bera gertatzen zen (maila apalagoan) iraultzaile frantsesek tronuak eta aldareak txikitzen zituztenean. Gauza bera gertatzen da komunistek parlamentuak desegin eta produkzio-tresnak nazionalizatzen dituztenean. Edozein delarik ere filosofoaren iritzia, zalantzazko gatazkez beterik dago historia, zeintzuetan ezein kausa ez den garbia, ezein erabaki ez den arriskurik gabea, ezein ekintza ez den ustekabeko ondoriorik gabea. Filosofoak beharbada bereiziko du jainkoen anaitasuna iskanbila horretaz gaindi; historialariak, berriz, egiaztatzen du elizen arteko amorru senide-hiltzailea.

Elizen arteko borroka ez da jainkoen arteko borroka, baina Max Weberren esaldiak batetik besterako igarotzea iradokitzen digu: «Beste masaila eskaintzea duintasun-gabezia da, santutasuna ez bada». Egintza bera ona edo txarra gertatzen da aktoreak bere bizitzari eman diezaiokeen zentzuaren arabera.

Ez da urrutiegi joan behar antzemateko zergatik hautatu zuen Max Weberrek kontraesanaren adibide bezala itxuraz akzidentala den etsaiaren aurreko jarrera. Kanten moralala edo

Mendiko Hitzaldiaren etika borondate oneko gizonei ezartzen zaie. Mundu honetan, gizakiak gerran daude hiriaren barruan eta hiriak gerran daude munduko eszenatokian. Hiri bakoi-tzak berez baliozkoa den kausa bat aldeztu du. (Nola finkatu hierarkia nazioen artean, kultura alemaniarraren eta kultura frantsesaren artean?). Dituzten baliabideak eta bertako helburuak itxuraz gutxiago justifikagarriak dituzten alderdiek azken onera eramane ditzakete egiteko batzuk, eta haiengatik gure birbilobek gu zoriondu egingo gaituzte. Beste behin oraindik, Max Weberrek borrokaren inperatiboan mende jartzen ez denarentzat irtenbide bakar bat sumatzen du: axo-lagabetasuna ondorioen aurrean, edo iraupen-gabezia individualaren santutasuna Kristoren irakatsi jakin batzuekiko leialtasunagatik.

Santuek eta heroiek ezin joka dezakete modu berean aukera bat berean. Erljioak agintzen al du beste masaila jartzea baldin formula hori gaizkiari ez jazartzea gomendatzearen pareko bada? Era batera edo bestera, gizarte guztiek airtortu dute Max Weberrek gerrazale eta patetikoa nahi zukeen aniztasuna. Gudariak ez du beti ulertzen brahmana, baina brahmanak ez du sekula zapuzten gudaria: zalantzak ditu bere aginduak beteko zituen gudari baten hiriaren utopiaren eta filosofoek pentsatzeko askatasuna bai baina agintzeko grinarik ez duten hiri batekin aski duen zuhurtziaren artean, filosofoak etsiak baitaude zarataz eta amorruez beterik eta esanahirik batere gabeko historian. Edozein delarik ere hautaketa, ez du inon ikusiko jainkoen arteko gerrarik. Utopia nahi badu, baketzearen itxaropena gordeko du; eta zuhurra bada, hau da, gainerakoen zuhurtzia-gabeziaren aurrean etsita badago, zergatik ikusi beharko litzateke irtenbiderik gabeko istilurik beraren eta zentzun gabeen artean, gogoetatzen dutenen eta borrokatzen dutenen artean? Heroiak ez du zapuzten ez erdeinatzen santua; bere masaila koldarkeriagatik eskaintzen duena erdeinatzen du, eta ez goragoko bipiltasun batengatik egiten duena.

Zergatik esaten du Max Weberrek horren seguru Olinpoko gatazkak ordainezinak direla? Bi arrazoiengatik: gatazka horiek barruan zeramatzalako eta horiek direlako ikerketa soziologikoetako gai abantailatsua. Arrazionalistak aitortzen du fedearen eta sinesgabetasunaren arteko borroka, eta onartu ere onartzen du ez bata ez bestea ezin direla zientifikoki frogatu. Sinesgabetasunaren egiaren alde egonik ere, ez du hortik jainkoen arteko gerra badagoenik ondorioztatzen, baina Argien eztabaida progresiboan edo ilusioen iraupenean pentsatzen du. Fededunaren begietan, aldiz, fedea da eszeptizismoaren zentzua finkatzen duena. «Jainkoen gida» formula hori eztabaida ezin daitekeen gertakari baten (gizakiek munduaren irudikapen bateraezinak egin dituztelakoa) aldaketa da inork ez bizi ez pentsatzen duen filosofia batean, kontraesanduna delako (irudikapen guztiak parekoak direla dioena, ezein ez delako ez egiazkoa ez gezurrezkoa).

Litekeena da Max Weberrek filosofia hau bizi izanaren sentimena izatea. Sinesgabea izanik, fedearen nostalgia gorde zuen, eta konbentziturik zegoen erlijioarekin ordezkorik ez duten balio espiritualak galtzen zirela. Kanten jarraitzaile zen eta sutsu defenditzen zuen ekintza politikoa, eta antinomia bateraezina ikusten zuen moral formalaren arauen eta ekin-tzaren, hau da, borrokaren eskakizunen artean. Soziologoa izaki, ikusten zuen zibilizazioek, herriek, alderdiek, pentsatu eta jarduten dutela balio dibergenteen arabera, guztiz kontrakoek arabera ez denean. Sinesgabetasunaren urradura, moraltasunaren eta politikaren antinomia, kulturen aniztasuna, bere idaztietan jainkoen arteko gerraren beste hainbat froga bihurtzen ziren. Analisi fenomenologiko barnetik egiazkoak gizatasunez pentsatu ezinezko filosofian adierazten dira.

Max Weberren metodologia, beste askoren ondoren Leo Straussek esan duen bezala, ezin bereiz daiteke filosofia batetik. Eztabaidatu ezinezko ohar honetatik, ordea, berak ateratzen ditu nik beharbada aterako nituzkeen alderantzizko ondorioak. Berak iradokitzen du ezen Max We-

berren metodologia haren filosofiak faltsutu zuela. Onartzen dut baieztapen hau alderdi jakin batzuei dagokienez: hizkera neokantiarrak (gertakariaren eta balioaren arteko bereizkuntza, balioekiko eta balio-epaiekiko erreferentziaren artekoa) ulertzearen teoriaren lantzea konprometitu zuen eta ulertzeari berari loturik zeuden hautemateak onartzea eragotzi zion beren kalitatetik banatu ezinezko zentzua duten obren kasuan. Baina, funtsean, kontua ez da metodologia filosofiaren opari izan dela, baizik metodologiak filosofia itxi bat iradoki duela. Zientziaren mugak, pentsamenduaren eta ekintzaren antinomiak dira giza izaeraren deskribapen fenomenologiko baten ekarpen egiazkoak. Urraduraren filosofia, baldin horrela hitz egin badaiteke, datu hauek beste hizkera batera aldatzea da, bestelako zentzu bat emanez. Aldatze horrek bararekin dakar bizi-balioen eta arrazoizko egintzen arteko bereizkuntza ukatzea, alderdi politikoen edo elkarren artean borrokan diharduten munduaren irudikapenen arteko hautaketaren irrazionaltasun erabatekoa, jarrera guztien baliokidetasun morala eta espirituala, jakitunarena eta zentzugabearena, setatiarena eta neurritsuarena.

Fede galduaren nostalgia oraindik gordetzen zuelako, hain zuzen ere, Max Weberrek azken batean zuritu ezinezkotzat jotzen zuen bere bizitza opaltzen zion zientzia. Erabakia hainbat eta gizatiarragoa iruditzen zitzaion zenbat eta libreagoa izan, baina ez zion bere buruari galdetzen ea erabaki hori arrazoirik gabekoa izan ote zitekeen eta ea arrazoi horiek ez ote zuten bidaltzen derrigor printzipio unibertsaletara. Balioen, sinesteen eta kulturen aniztasun historikoa gertakari bat da; historialariak eta soziologoak ezin utz dezakete egiaztatu gabe oinarrizko gertakari hori. Ezin dute, ordea, onartu orobat azken eta betiko gertakari bezala, aniztasun honen zientzia ezinezko bihurtu gabe. Aniztasun honen antolakuntzak bide ematen al du abenturaren azken xedea, gizakiaren eta gizartearen patu naturala finkatzeko? Aurreko orrialdeetan ez dugu galdera horri erantzuteko asmorik izan.

Zientzia mugatua delako, etorkizuna ustekabekoa eta balioak epe laburrera kontraesandunak, hortaz gizaki historikoak ezinbestean egin behar dituen hautaketak ez dira frogagarriak. Baina aukeraketa historikoaren premiak ez dakar berarekin pentsamendua erabaki funtsean irrazionalen zain dagoenik eta existentzia ez denik gauzatzen ezta Egiaren beraren mendean jarrita ere ez dagoen askatasun batean.

Raymond Aron

POLITIKA, LANBIDE BOKAZIO

Sarrera

Zuen nahiari amore eman ez egingo dudan mintzaldiak alderdi batzuetatik nahigabetuko zaituzte ezinbestean. Halako gaia darabilen hitzaldi batean, nahi gabe ere, gaurko eguneko arazoei buruzko jarrera adieraztea esperoko duzue noski. Baina hori azkenean gertatuko da era formal soilean, bizitzeko era osoaren barruan jarduera politikoaren auzi jakin batzuen kariaz. Gaurko hitzaldi honetan erabat albo batera gertatuko dira, aldiz, honako arazo hauei dagozkien guztiak: zein politika egin behar den, zein eduki, alegia, eman behar zaion baten jarduera politikoari. Horrek, izan ere, ez du zerikusirik batere arazo nagusiarekin, alegia: zer den politika lanbidez eta zer esan nahi duen horrek. Eta orain gatozen harira!

Zer ulertzen dugu guk politika hitzaz? Izugarri zabal da kontzeptua. eta jarduera independente mota oro hartzen du. Bankuen dibisen politika aipatu ohi da, Erresumako Bankuaren deskontu-politika, sindikatu batek greba dela-eta daraman politika, hiri edo auzo bateko eskola-politikaz hitz egin daiteke, elkarte bateko buruaren politikaz hura zuzendari denean, eta azkenik baita emakume zuhur baten politikaz ere senarra zuzentzen saiatzen denean. Kontzeptu hain zabal hau ez dago, noski, gure gaur gaueko gogoeten oinarrian. Gaur hitz horrekin zera ulertu nahi dugu: elkarte politiko baten gidaritzaren edo gidaritzaren eragina; gaur, beraz, estatuarena.

Baina, zer da soziologiaren ikuspegitik elkarte «politikoa»? Zer da «estatu»? Soziologiaren aldetik, halere, ezin defini daiteke kontzeptu hau haren jardueraren edukiaren ara-

bera. Ez dago kasik egitekorik batere elkarte politiko batek han edo hemen eskutan hartu ez duenik; eta, bestalde, ez dago egiteko bat bera ere halaber zeinarengatik esan daitekeen beti, erabat, politikotzat hartzen diren elkarrekin —gaur estatua— edo historian zehar estatu garaikidearen aurretikoak izan zirenek propio beren egitekotzat eduki ez dutenik. Estatu garaikidea, aldiz, soziologikoki defini daiteke, azken batean, berari, elkarte politiko orori bezala, propio zaion baliabide berezi baten arabera: bortxa fisikoaren arabera, alegia. «Estatu oro bortxa eta indarkeriaren gainean dago eraikia», zioen Trotskyk Brest-Litowsken. Baldin balego indarkeria baliabide bezala ezezagun litzaiokeen sorkuntzarik, orduan «estatu» kontzeptua kanpora joango litzateke, eta orduan haren orde «anarkia», hitzaren esanahi berezi honetan, izendatu ohi dena sartuko litzateke. Indarkeria ez da, noski, estatuaren baliabide ohikoa edo bakarra —ez dago esan beharrik ere—, bai, ordea, berariaz harena. Gaur bereziki hertsia da, hain zuzen ere, estatuak indarkeriarekin duen erlazioa. Garai batean elkarte mota guztiek —leinutik hasita— baliabide erabat normaltzat hartzen zuten. Gaur, ordea, esan beharko dugu: estatua da lurralde-esparru jakin batean —eta lurralde bat izatea da hain zuzen ere haren ezaugarrietako bat— legezko indarkeriaren monopolioa beretzat (arrakastaz) eskatzen duen giza elkarte bat. Izan ere, gaurko egunari berariaz datorkiona da: ezen gainerako elkarte guztiei edo norbanakoei bortxa fisikoa erabiltzeko eskubidea estatuak bere aldetik ematen dien neurrian dagokiela bakarrik; bera da indarkeria erabiltzeko «eskubidearen» iturburu bakartzat jotzen dena.

Politika, nagusitasun-erak

«Politika», beraz, hauxe da: boterean parte hartzen edo dela estatuaren arteko dela estatuak hartzen dituen giza taldeen arteko botere-banaketan parte hartzen ahalegintzea.

Hizkuntz erabilerari dagokionez, bat dator hori funtsean. Auzi bati buruz esaten denean auzi «politikoa» dela,

ministro edo funtzionario bati buruz funtzionario «politiko» bat dela, erabaki bati buruz «politikoki» baldintzatua dagoela, horrekin beti adierazi ohi da: boterea banatzeko, boterea gordetzeko edo boterea eskualdatzeko interesak erabakigarriak direla galdera horri erantzuteko edo erabaki hori baldintzatzun dutela edo dagokien funtzionarioen jarduera-esparrua zehazten dutela. Politikan diharduenak boterea bilatzen du, bai bestelako helburuak (idealak edo egoistak) lortzeko zerbitzu laguntzaile bezala, bai botereak berak «botereagatik beragatik» ematen duen ospea dastatzeko.

Estatua, historian zehar haren aurretik izan diren elkarre politiko guztiak bezala, gizakiek gizakien gainean eragiten dituzten dominazio-erlazioen gainean bermaturik dago eta legezko indarkeria du oinarritzko baliabidea (hau da: zilegikotzat hartzen den indarkeria). Estatuak iraungo badu, mendeetan dauden gizakiek une horretan agintzen duen aginteak berretzat nahi duen agintaritzari men egin beharko diote. Noiz eta zergatik jokutzen dute horrela? Barneko zein zuribidetan eta kanpoko zein baliabidetan bermatzen da dominazio hori?

Dominazio baten barneko zuribideak, hau da dominazioa zilegizko egiten duten arrazoiak hiru dira funtsean. Lehenbizikoa, «betiko atzokoa»ren autoritatea: gogoan har ezin daitezkeen garaietako baliozkotasunak eta ohituraren joerak sagaraturiko ohikundearen autoritatea, «tradiziozko» agintaritza, kutsu zaharreko arbasoek eta ondarezko printzeek erabiltzen zutena bezalakoa. Bigarrena, aparteko grazia (karisma) pertsonalaren autoritatea, norbaitzuek erabiltzen duten errebelazioekiko, heroitasunarekiko edo gidaritzarako bestelako gaitasunekiko jaiera pertsonala edo konfiantza pertsonala; agintaritza «karismatikoa», profetek edo —politikaren alorrean— gerra-gidari hautatuek edo plebisitu bidez aukeraturiko agintariek, demagogo handiek eta buruzagi politikoek erabiltzen dutena bezalakoa. Azkenik, «legezko-tasunaren» indarra, legezko konstituzioaren balioarekiko eta era arrazional batean sorturiko arauen bidez oinarrituriko

«gaitasun»arekiko fedearen indarrean bermaturiko agintaritza, hau da, legez ezarritako egitekoekiko mendekotasunezko jarreran bermatua: gaurko «estatuko zerbitzariak» eta haren antzeko agintedun guztiak erabiltzen dutena bezalakoa. Garbi dago, egiaz, beldurrezko eta itxaropenezko —beldurra indar magikoen edo agintedunaren mendekuaz, itxaropena mundu honetako edo besteko saria izango dugulakoa— arrazoi izugarri handiek eta era guztietako interesek baldintzatzen dutela obediencia. Hori buruz geroago. Baina obediencia horren «zilegitasun»-arrazoiak arakutzen direnean, hiru mota «garbi» horietako batekin egiten dugu topo beti. Eta zilegitasun-uste horiek eta horien barneko oinarria garrantzi handikoak dira agintaritzaren egiturari dagokionez. Mota garbiak nekez aurkitu ohi dira errealtatean. Baina gaur ezin hel diezaiokegu mota garbi horien aldaketa, xehetasun eta konbinazio biziki katramilatuei: hori «zientzia politiko orokorreko» arazoei dagokie.

Hemen mota horietako bigarrena interesatzen zaigu bereziki: «buruzagiaren» «karisma» pertsonal soilari obeditzen diotenen jaiaren eraginez datorren agintaritzaren. Hemen oinarritzen baita lanbidearen ideia bere adierazpen sakonean. Profetaren edo gerra-buruzagiaren edo eklesian edo parlamentuan demagogo handiaren karismarekiko jaiarak esan nahi du hura barnetik gizakien gidari «deitutzat» hartua dela, gizakiek ez diotela jarraitzen ohituraren edo konstituzioaren eraginez, sinetsi egiten diotela baizik. Eta bera bere auzirako bizi da, «bere obrari emana dago», baldin uneko igozale hertsia eta harro bat ez bada. Baina haren pertsonari eta tasunei atxikitzen zaie segizioaren jaiara: jarraitzaileena, kidetasun erabat pertsonala. Iraganean izan diren bi irudi garrantzitsuenetan, aztiarenean eta profetarenean alde batetik eta gerra-printze hautatuarenean, talde-buruarenean, *condottiere*arenean bestetik, eskualde eta historiako garai guztietan azaldu da buruzagitza. Halere, mendebaldeari bereziki datxekiona —eta hori da hurbilagotik datorkiguna— «demagogo»

librearen irudia da, lehenbizi mendebaldeko eta batez ere mediterranear kulturako propio den hiri-estatuaren eremuan garatua, eta gero «alderdi-buru» parlamentarioarena, orobat mendebaldeko lurretan estatu konstituzional jatorrizkoan garatua.

«Bokaziozko» politikari hauek, hitzaren zentzu hertsiean, ez dira, noski, inon botereagatik borroka politikoaren zereginean irudi erabakigarri bakarrak. Askoz erabakigarriagoak dira haiek eskuetan dituzten baliabideak. Nola jokatzten dute agintzen duten indar politikoek beren autoritatea indartzeko? Autoritate ororentzat balio du galderak, beraz baita autoritate politikoarentzat ere hark izan ditzakeen era guztietan: tradizionalarentzat bezala legezkoarentzat eta baita karismadunarentzat ere.

Administrazio jarraituaren premia duen agintaritza-ekimen orok behar du, alde batetik, legezko bortxaren eskubidea beretzat eskatzen duten jaunekiko obedientziara erakartzea giza jarduera, eta bestetik, obedientzia horren kariaz, hala behar denean, indar fisikoa erabiltzeko beharrezko diren ondasunak eskura edukitzea: administrazioko pertsona talde bat eta administratzeko behar diren baliabideak.

Agintaritza-ekintza politikoa, beste ekintza edozein bezala, kanpora begira ordezkatzten duen administrazioko taldea ez dago bortxa-egileari lotua, noski, aipatu berri dugun zilegitze-iritzi horren arabera bakarrik. Bai, aldiz, interes pertsonalera zuzentzen diren bi baliabideei: diru-sariari eta gizarteko ohoreari. Mendekoen feudoak, funtzionario ondaretuak, estatu-zerbitzari modernoek irabaziak, zaldunen ohoreak, mailari dagozkion pribilegioak, funtzionario-ohoreak... horiek osatzen dute saria, eta sariak berak eta haiek galtzeko beldurra dira administrazioko taldeak bortxa-egilearekin bat egiteko oinarriak. Gauza berak balio du buruzagitza karismatikoari dagokionez ere: gudariaren segizioak ohorea eta harrapakinak jasotzen ditu, «spoils»

delakoak: menderatuen esplotazioa karguen monopolioaren bidez, politikoki baldintzaturiko mesedeak eta hantuste-sariak demagogoaren segizioarentzat.

Indarraren bidezko agintaritzari eusteak kanpotiko ondasun material batzuk behar ditu, enpresa ekonomiko batekin gertatzen den bezalaxe hain zuzen ere. Hala bada, estatuko erakunde guztiak bi sailetan bana daitezke, zein printzipiotan oinarritzen diren kontuan hartuz. Batean, giza sail batek —dela funtzionarioena edo beste edozeinena, zeinen obediencia gogoan hartu behar duen agintedunak—, bere jabegokoak ditu administrazio-bitartekoak, edozein direlarik ere: dirua, eraikuntzak, gerrarako materiala, garrarioa, zaldiak edo beste; edo bestela administrazio-taldea administrazio-bitartekoetatik aparte dago, gaur enplegatua edo proletarioa enpresa kapitalistaren barruan produkzio-baliabide materialetatik «apartaturik» dagoen bezala. Bestean, bortxadunak administrazioa berak antolaturiko zuzendaritzapean dauka eta zerbitzari pertsonalen edo enplegaturiko funtzionarioen edo begiko eta konfiantzazko pertsonalen bidez administratzen du, eta hauek ez dira eskubide propioz enpresako baliabideen jabe, baizik jaunak hartara eramanak. Bereizketa hori iraganeko administrazio-antolaketa guztietan aurkitzen da.

Kudeaketa-material guztiak edo zati bat mendeko administrazio-taldearen eskura dauzkan elkarte politikoa «korporazioen arabera» antolaturiko elkarte politikoa deituko dugu. Elkarte feudalean, adibidez, basailuak bere kabuz egiten zien aurre administrazioko eta justiziako gastuei bere esku jarritako feudoaren barruan, gerrarako ere berak hornitzen zuen bere burua; gauza bera egiten zuten haren mendekoek ere. Horrek, jakina, ondorioak zituen jaunaren botereari zego-kionez, jaunari botere hori basailuen leialtasun pertsonaletik baitzetorkion, eta basailuek, berriz, eskualde feudalak eta gizarteko ohoreak, beren «zilegitasuna» hitz batean, jauna-rengandik jasotzen baitzuten.

Alde guztietan, halere, baita eraketa politiko zaharretan ere, jaunaren beraren zuzendaritza aurkitzen dugu bere mende daudenen bitartez gauzatua, alegia esklabo, etxeko funtzionario, zerbitzari, «begiko» pertsonalen bitartez, eta bere erreserba material edo diruzkoetatik harturikoekin ordaindutako prebendadunen bitartez saiatzen da administrazioa bere eskuetan hartzen, baliabideak bere sakelatik, bere ondareko emaitzetatik ordaintzen, berari soilik zuzenean loturiko armada bat sortzen eta bere aletegietatik, bere biltegietatik, bere armategietatik hornitzen. «Korporazioaren araberrakoa» jaunak «aristokrazia» autonomo baten laguntzaz agintzen duen bitartean, hau da agintea haiekin partitzen duen bitartean, beste honetan etxekoetan edo plebeioetan bermatu beharko du: ondasunik ez dutenetan, gizartean ohore propiorik gabeko sailetan, materialari dagokionez harekin erabat kateaturik daudenak eta beren eskuz lehian sar litekeen inolako indar propiorik ez dutenak baitira. Aginte patriarkal edo patrimonial mota oro, sultanen gisako despotismo oro edo estatu-antolakuntza burokratiko oro gisa honetakoak dira. Bereziak estatu-antolakuntza burokratikoak, zeinaren emaitzarik arrazionalena baita hain zuzen ere estatu modernoak.

Alde guztietan, estatu modernoaren garapenak abiapuntu bera du: printzeak bere ondoan dituen administrazioko indardun «pribatu» autonomoen —administrazioko edo gerrarako materialen jabeak, finantza-enpresen eta politikoki erabil daitezkeen era guztietako ondasunen jabeak— desjabetzea martxan jartzen duenean. Prozesu honek analogia erabatekoa erakusten du enpresa kapitalistaren garapenarekin zeinak ekoizle independente guztiak poliki-poliki desjabetzea eskatzen baitu. Eta azkenik ikusten da nola estatu modernoan kudeaketa politikorako baliabide guztiak eskura dituen aginteak buru bakar batean biltzera jotzen duen; funtzionarioa ez da jada eralgitzen duen diruaren jabe, ezta kontrolatzen dituen eraikuntza, ondasun eta tresnena ere. Gaurko estatuak —eta honek badu garrantzirik kontzeptuen aldetik— lortu du

erabat bereiztea, batetik, administraziooko zuzendaritza, funtzionarioak eta administraziooko langileak, eta bestetik, kudeaketa-baliabideak. Orduan abiatu zen ibilbide guztiz berri bat, gaur gure begien aurrean garatzen ari dena: hain zuzen ere kenzaileari baliabide politikoak eta botere politikoa kendu nahi diona. Hori da iraultzak (Alemanian, 1918koak) dirudienez erdietsi duena: zeuden agintarien ordezt buruzagi berri batzuk jarri ditu, eta hauek usurpazio bidez edo hauteskunde bidez administraziooko taldearen jabe edo ondasun materialen aparatu politikoaren jabe egin dira eta zilegitasuna —alde batetik eskubide osoz— mendekoen borondatetik jaso dute. Beste kontu bat da ea arrakasta —gutxienez itxurazko— honetan oinarriturik eskubide osoz itxaron daitekeen desjabetzea ere enpresa kapitalistaren barruan egin ahal izango den, haren zuzendaritza, dauden analogia handiak gorabehera, administrazio politikoaren aldean guztiz bestelako arauz egi ten denez. Gaur ez dugu jarrerarik hartuko puntu horri dagokionez. Gure gogoeta egiteko, soilik kontzeptuari dagokiona ekarriko dut, alegia estatu modernoa dominazio-erakunde bat dela, lurralde-esparru batean eta arrakastaz legezko (legez babestutako) indarkeria baliatzen eta monopolizatzen duena, eta estatu-buruzagitzaren eskuetan batzen dituela botere- eta kudeaketa-baliabide guztiak eta horretarako baliabide horiek lehenago eskubide osoz eskura zituzten funtzionario maila guztiei kentzen dizkiela, haien ordezt buruzagitza hori jarri delarik gailurrean.

Politika, albo-lanbide

Munduko lurralde guztietan, arrakasta desberdinez gauzatu den desjabetze-prozesu politiko honetan zehar azaldu dira, eta egiaz hasiera batean buruzagi en zerbitzuan, «lanbidez politikari» diren lehen kategoriak, bigarren zentzu batean: jende bat, zeina, buruzagi karismatikoa ez bezala, jaun izan nahi ez zuena, baizik jaun politikoen zerbitzuan sartu zena. Borroka horretan printzeen esanetara jarri ziren eta

haien politika aldezte a ogibide bihurtu zuten batetik eta beren bizitzako eduki ideal bestetik. Berririo mendebaldean aurkitzen dugu lanbidez politikari den profesional mota hau printzearena ez den beste aginte batzuen zerbitzuan. Iraganean haien ahal eta desjabetze politikorako tresna garrantzitsu izan ziren. Aurrera egin aurretik, azal dezagun alderdi guztietatik argitasunik handienaz zer esan nahi duen politikari profesionala izateak. Politika egin daiteke —hau da, era desberdinetan eragin daiteke aginte-banaketan, eraketa politikoen artean edo haietako bakoitzaren barruan— bai noizbehinkako politikari bezala, bai bigarren lanbidez politikari den baten kasuan bezala edo lanbide nagusi lanbide politikoa duen baten kasuan bezala, jarduera ekonomikoan gertatzen den legez. Gu guztiok gara noizbehinkako politikari gure boto-eskubidea gauzatzen dugunean, esate baterako, edo borondate-azalpenen bat (adibidez, bilkura politiko batean gure onespina edo gaitzespena adieraziz, hitzaldi politiko bat eginez) gauzatzen dugunean, eta jende askok politikarekiko duen jarrera ekintza horietara mugatzen da.

Gaur egun, bigarren lanbidez dira politikari, esate baterako, elkarte politikoetako konfiantzazko gizonak eta presidentiak, egiteko hau —arau den bezala— premia denean betetzen dutenak baina ez materialki ez idealki horren arabera inolaz ere bizi ez direnak. Egoera berean daude Estatuko Kontseiluko eta beste aholkularitza sailtako kideak ere, eskatzen zaienean soilik jartzen baitira lanean, eta era bertsuan, orobat, gure parlamentarietako sail nahikoa zabala, bilkura-garaietan egiten baitute soilik politika. Joandako garaietan halako sailak ere izaten ziren, hain zuzen ere gorteko ganberetan. Ganberatzat hartzen ditugu gerrarako edo administraziorako baliabide garrantzizkoenen jabeak edo pribilegio pertsonalak zituztenak. Haietako asko ez zeuden prest inondik ere beren bititza osoa edo zati handi bat, edo are inoiz ere ez, politikari emateko. Aldiz, jaun-ahalmena aprobetxatzen zuten errentak eskuratzeko, edo abantailak izateko

besterik gabe, eta talde politikoaren alde jarduten zuten beren jaunak edo beren maila berekoek berariaz eskatzen zietenean. Era bertsuan gertatzen zen printzeak bere esku bakarrik egongo zen enpresa politiko bat sortzean bere alde jarriko zituen indar laguntzaileekin ere. Etxeko kontseilariek eta, oraindik atzerago joz, printzearen *curian* edo beste aholkulari taldeetan zeuden aholkulariek ere izaera horixe bera zuten. Baina printzeek ez zuten aski, inolaz ere, laguntzaile noizbehinkako edo erdi profesional hauekin. Beraz, beharturik zeuden guztiz beren zerbitzura egongo zen talde bat, indar laguntzaile profesionalen talde bat sortzera. Indar laguntzaile hauek nondik hartzen zituen, gizarte-maila hari loturik geratzen zen; beraz, sortzen ari ziren forma politiko dinastikoen egiturak hein handi batean, eta ez bakarrik haiek, baita haietan garatu zen kultura guztia ere. Premia berean aurkitu ziren, eta arrazoi handiagoz, noski, printzeen indarra erabat ezabatzeko edo neurri handi batean bederen mugatzeko, elkarte (ustez) libre bezala eratu ziren talde politikoak —«libre» ez indarrezko nagusi orotatik libre zeudelako, baizik eta onartzen ez zutelako tradizioaren kariaz ezarritako printzearen bortxa edo indarkeria zilegizkoa (gehienetan erlijiosoki sagaratuak) autoritate ororen iturri bakarra zenik. Elkarte hauek mendebaldean dute beren sorburua eta haien muina hiria da elkarte politiko bat den aldetik, era horretan azaltzen baita lehenbizikoz Mediterraneoako kultur giroan. Zer itxura zuten kasu hauetan guztietan politikari nagusiki profesionalek?

Politika, lanbide nagusi

Bi era daude politika inoren lanbide bihurtzeko. Edota politika»rako» bizi da, edo bestela, politika»tik». Kontrajar-tze bat dago, baina batak ez du inondik ere bestea ukatzen. Oro har, bestalde, biak egin ohi dira era idealean gutxienez, eta gehienetan baita era materialean ere. Politika»rako» bizi denak «hura bere bizitza» bihurtzen du zentzu barnekoan: edota erabiltzen duen ahala edukiz atsegina hartzen du, edota

bere oreka eta lasaitasuna elikatzen ditu bere bizitzari, «zerbaiten» zerbitzuan ipini duen, zentzu bat eman dion kontzientziarekin. Barneko zentzu honetan, egiaz helburu baterako bizi den gizon serio oro helburu horretatik ere bizi da. Hortaz, autuaren alderdi askoz zabarrago batean oinarritzen da bere-izkuntza, ekonomian alegia. Politika»tik» bizi da hura diru-sarrera iraunkor bihurtzen saiatzen dena; politika»rako» bizi da, aldiz, egoera horretan aurkitzen ez dena. Norbait zentzu ekonomiko honetan politika»rako» biziko bada, jabego pribatuaren antolaketaren agindupean nahi baduzue, baldintza oso azalekoak bete beharko ditu: baldintza normaletan, politikak berari ekar diezazkiokeen irabazietatik ekonomikoki libre egon behar du. Horrek esan nahi du, era sotilenean esanda, ondasunduna izan behar duela edo bere aldetik nahikoa irabazi ekarriko dizkion egoeran bizi dela. Hala gertatu ohi da gutxienez baldintza normaletan. Egia da gerrako printze baten jarraitzaileek eta kaleko gizandi iraultzaile batenak ez dutela galdetzen ekonomia normaleko baldintzei buruz. Biak bizi dira harrapakinetatik, lapurretatik, konfiskazioetatik, zergetatik, baliorik gabeko baliabideak erostera behartzetik: guztiak, funtsean, gauza bera dira. Baina ez dira egunoroko gertakariak derrigorrean; egunoroko ekonomian norberaren ondasunak betetzen du eginkizun hori. Baina ez da aski horrekin bakarrik: ekonomikoki independente izan behar du gainera, hau da, bere sarrerek ez dute egon behar beti erabat edo batez ere bera pertsonalki, bere lan-indarra eta bere pentsamendua, haren zerbitzuan jarri beharrean. Ekonomikoki independenteena, zentzu horretan, errentaduna da, hau da iraganeko jaunak bezala, lursail handien jabe, eta gaurko nobleak bezala, erabat lanik egin gabe, lurraren errentatik —antzinatean eta Erdi Aroan esklaboetatik ere bai— edo tituluen errentetatik edo balio-paperekin gisako beste errenta-iturburu modernoetatik irabazia ateratzen duena. Gaur egungo langileak, enpresariak —eta hori biziki nabarmentzekoa da—, baita enpresari moderno handiak ere, ez dira, zentzu horretan,

independente. Izan ere eta hain zuzen ere, enpresaria —eta askoz gehiago industrialia nekazaritzakoa baino, nekazaritza urte-sasoiei lotua dagoenez gero— bere enpresari lotua dago eta ez da librea. Oso zaila gertatzen zaio sarri ordezkaturiko duenik aurkitzea, denbora puska baterako izanda ere. Sendagilea ere, adibidez, apenas den librea, eta zenbat eta arrakastatsuagoa orduan eta gutxiago. Errazago dauka enpresa-arrazoiz teknikoengatik besterik gabe legegizonak —eta horregatik politikari profesional bezala ere paper askoz handiagoa, sarri eiki nagusia, jokatu du. Ez dugu segituko kasuistika honekin; halere, saiatuko gara ondorio zenbait argitzen.

Estatu baten edo alderdi baten zuzendaritzak, politikarako soilik eta ez politikatik (hitzaren zentzu ekonomikoan) bizi den jendearen bitartez eraturiko estatu bateko edo alderdi bateko zuzendaritzak politikoki zuzentzen duten klaseen erreklutatze «plutokratiko» bat eskatzen du derrigor. Horrekin ez da onartzen noski alderantzizkoa, alegia halako zuzendaritza plutokratiko batek bere aldetik ez duela esan nahi politikoki agintzen ari den klasea ez denik saiatzen politika»tik» bizitzeko, hau da, ez denik ahalegintzen bere aginte politikoa erabiltzen bere interes ekonomiko pribatuetarako. Horri buruz ez da hitzik esaten, noski. Ez da sekula klaserik izan era batera edo bestera hori egin ez duenik. Baina horrek esan nahi du besterik gabe politikari profesionalak ez daudela behar turik beren lan politikoengatik ordainketa bat bilatzera, dirugabeak hori kontuan hartu behar duenean. Eta, bestalde, horrek ez du esan nahi politikari dirugabeek soilik edo batez ere politikaren bidez beren premien asetzea bilatu behar dutenik, guztiz edo bereziki «beren auzian» pentsatzen ez dutenik. Ez legoke oker handiagorik. Esperientziak diotenez, gizaki dirudunarentzat bere segurtasun ekonomikoaren kezka da —jakinaren gainean edo jakin gabe— bizitzako jokabide osoaren ardatza. Interesik eta ikuspegi materialik batere gabeko idealismo politikoa aurkitzen da bereziki, hor bakarrik ez bada ere, hain zuzen ere beren ondasun ga-

beziagatik beragatik gizarte jakin baten ordena ekonomikoa babesteko interesik ez duten klaseetan (sail interesatuetan), eta horrek balio du garai berezietarako, iraultzaileentzat. Horrek, ordea, esan nahi du pertsonal politikoaren, zuzendaritzakoaren eta haien segizioaren erreklutatze ez-plutokratikoa honako baldintzari lotua dagoela, alegia politikari horiek enpresa politikotik soldata erregularra eta seguruak hartzen dituzte. Politika izan daiteke ohorezkoa, eta orduan pertsona ekonomikoki independenteek, hau da, dirudunek, errentadunek bereziki, zuzenduko lukete. Edota bestela haien zuzendaritza dirugabeen eskuetan jarriko da, eta orduan ordaindu egin behar zaie. Bestalde, politikatik bizi den politikari profesionala izan daiteke prebendadun soila edo funtzionario soldatapekoa. Edota petxa eta zerbitzu jakin batzuen eskubideetatik datozen irabaziak jasotzen ditu (sariak eta eroskeriak irabazi mota honen aldagarri oker eta formalki legez kanpoko baino ez dira), edota jasotzen du kargu-sari finko bat salgaietan edo dirutan, edo bietan batera. Enpresari baten itxura har dezake, *condottiere*arekin edo errentariarekin edo kargu bat erosten zuenarekin iraganean gertatzen zen bezala eta gaur *boss* amerikarrarekin gertatzen den bezala, eta bere influentziak erabiliko ditu, etekinak emango dizkion kapital-inbertsioztat jotzen baititu honek egiten dituen gastuak. Edo soldata finko bat jasotzen du, egunkari politiko bateko kazetariarekin, edo alderdi bateko edo ministro edo gaurko funtzionario politiko baten idazkariarekin gertatzen den bezala. Garai batean, printzeek, konkistatzaileek edo alderdi garaileetako buruzagiek beren jarraitzaileak saritzeko erabili ohi zituzten ohiko ordainketak izan ohi ziren feudoak, lur-emaitzak, era guztietako prebendak eta, geroago, diruzko ekonomiaren garapenarekin, gehigarri bereziak. Gaur zerbitzu leialen ordain gisan alderdiko buruzagiek eman ohi dituzten ordainak era guztietako karguak dira alderdietan, egunkarietan, anaidietan, gizarte segurantzako kaxetan eta udaleko eta estatuko erakundeetan.

Alderdien arteko borroka orok ez bakarrik dauka xede objektibo bat, baizik areago, eta batez ere, karguen banaketaren kontrola. Alemaniako joera zentralisten eta partikularisten arteko gatazka guztiak auzi beraren inguruan mugitzen dira: karguen banaketa noren eskuetan dagoen, Berlingo agintea edo Munichekoa, Karlsruhehekoa edo Dresdekoa. Alderdi politikoei min handiago ematen die karguetan parte-hartze txikiagoak beren helburu objektiboen kontrako ekintzak baino. Frantzia prefeten aldaketa politiko bat beti jo izan da iraultza handiagotzat, eta gobernu-programaren aldaketak baino zarata gehiago sortzen du, kasik esaldien gisako esanahia duenez. Alderdi batzuk, amerikarrak adibidez, konstituzioa ulertzeko erari buruzko eztabaidak desagertu zirenetik, kargu-ehiztari bihurtu dira, eta beren helburu-programa aldatu egiten dute bozak eskuratzeko posibilitateen arabera. Duela urte gutxira arte Espainian bi alderdi handiak txandaka ibili ohi ziren, aginteak prestatu-riko «hauteskudeen» bitartez eta bakoitzaren jarraitzaileei karguak emateko txanda finko bati jarraituz. Espainiako antzinako kolonietan, bai «hauteskudeak» bai «iraultza» deituetan, aska estatalak zeuden auzitan, haietan asetzeko irrikan izaten baitziren irabazleak. Suitzan alderdiek bakoitzaren bozen arabera banatzen dituzte karguak, eta gure egitasmo konstituzional «iraultzaileetako» batzuek, adibidez, Badenerako eratu zen lehenak, sistema hau ministerio-etara hedatu nahi izan zituzten, estatua eta estatuko karguak prebendak banatzeko erakundeak balira bezala erabiliz. Berziki Zentroko Alderdia gogoberotu zen horrekin, eta konfesioen arabeko kargu-banaketa, lorpenak kontuan hartu gabe beraz, bihurtu zuen Badenen bere egitasmoko puntu nagusia. Burokratizatzeko orokorraren ondorioz datorren kargu kopurua ugaltu eta haiekiko irrika, etorkizuna ziurtatzeko modu bezala, handitzen delako, joera honek gora egiten du alderdi guztietan, eta jarraitzaileek alderdiok kargu bat eskuratzeko bitartekotzat jotzen dituzte.

Funtzionario modernoa

Joera horren kontra dago, ordea, funtzionario moder-
noen garapena: urte luzeetako eskola-prestaketaren bidez,
langile talde intelektual espezializatua, guztiz kualifikatua
bihurtu da, prestutasunaren interesetan klase-ohore erabat bi-
zi batekin. Ohore hori gabe, izan ere, ustelkeria izugarriaren
eta arrunckeria lotsagarriaren arriskua gure gainean izango
genuke patu bezala eta are estatuko aparatuaren beraren lor-
pen teknikoak ere arriskuan leudeke, ekonomiari dagokionez
hauen garrantzia areagotzen ari denean eta oraindik areago-
tuko denean sozializatzeko gero eta handiago baten bidez. Esta-
tu Batuetan, politikari kargu-ehiztarien bidez amateurren ad-
ministrazioa, ehunka mila funtzionario —posta-banatzaillee-
taraino—, presidentearen hautaketaren arabera aldatzen zen
eta ez zen ezagutzen bizitza osoko funtzionarioa, baina aspal-
di eraberritu zen hori Civil Service Reforme-ren eskutik. Ad-
ministrazioaren premia tekniko soil eta alboraezinek izan zu-
ten eragina eraberritze horretan. European, dagoeneko boste-
hun urte daramatzan garapenaren bidez, lanaren araberrako fun-
tzionarioak sortu dira. Italiako hiriek eta *Signoriek* eman zio-
ten hasiera, eta monarkien artean, konkistatzaile normandia-
rren estatuek. Printzeen finantzen kariatz gauzatu zen urrats era-
bakigarria. Max enperadorearen administrazio-eraberritzean
ikus daiteke zein zaila gertatzen zitzairen funtzionarioei, baita
premiarik handienen presiopean eta turkiarren mehatxupean
ere, printzeari finantzen arloan boterea eraztea, alor hori
zenean, hain zuzen ere, garai hartan oraindik ezer baino lehen
zalduna zen gobernari baten diletantismoari lotzen zailena.
Gerrako teknikak ekarri zuen ofizial profesionala; zuzenbi-
de-prozeduraren fintzeak legelari eskolatua. Hiru alor horie-
tan atera zen garaile funtzionario profesionala estatu garatue-
tan XVI. mendean. Era horretan, bi prozesu abiatzen dira aldi
berean: batetik printzeek estamentuen gainean zuten aginte
absolutua gora egin zuen eta bestetik autokrazia hori astiro-
-astiro funtzionario profesionalen eskuetan utzi zuen.

Une berean funtzionario eskolatu profesionalaren igo-tzearekin batera gauzatu zen orobat —gehiegi ez igartzeko eran inolaz ere— politikari buruzagien garapena. Beti eta mundu guztian izan zen printzeen aholkulari egiaz erabakigarririk. Ekialdean, gobernuaren arrakastaren erantzukizun pertsonala sultanarengandik ahalik gehien urruntzeko premiak bisir handiaren irudi tipikoa sortu zuen. Mendebaldean, Karlos V.aren garaian —Makiaveloren garaian, beraz— eta bereziki enbaxadore veneziarren eraginez, giro diplomatikoetan jaiera handienaz irakurriak baitziren haien mezuak, diplomazia izan zen lehena arte berariaz landu bihurtzen; haren zaleak, gehienetan heziketa humanista zutenak, beren artean iniziatuen klase eskolatu gisan tratatzen ziren, Txinako inperioa estatutan zatitu zen azken garaiko estatu-gizon humanisten gisan. Politika osoa, baita barnekoa ere, zuzendaritza bakar batean, estatista bakar baten eskuetan azkenik eta ezinbestean jartzeko premia, ordea, garapen konstituzionalarekin etorri zen. Ordura arte beti izan ziren, noski, nortasun bakan batzuk, aholkulari gisan jokatzeko zutenak, edo, zuzenago esanda, printzeen gida gisan zihardutenak. Baina, estatu aurreratuetan ere, botereen antolaketa hasieran beste bide batzuetatik ibili zen. Administrazioako aginte gorenak, kidego gisakoak, azalduak ziren. Teorian eta, neurri gero eta txikiagoan, baita praktikan ere, kidego gisako horiek printzearen gidaritzapean egiten zituzten beren saioak, hau zelarik erabakia hartzen zuena. Irizpen eta kontrairizpenetara, gehiengoaren eta gutxiengoaren boz arrazoituetara zeraman kidego-sistema honekin eta, geroago, agintari ofizialen parean jokatzeko eta Estatu Kontseiluaren (edo edozein delarik ere kasu bakoitzean estatuko agintaritza deitzen dena) erabakiak bideratzen zituen bere konfiantzako gizonez osaturiko kontseilua —«kabine-tea»— sortzearekin, printzea, betiere egoera diletante handi-goan, saiatu zen ihes egiten funtzionario profesionalen presio gero eta handiago eta ezinbestekoari, gidaritza gorena bere eskuetan gordez. Alde guztietan gertatu zen ezkutuko borroka

hau autokraziaren eta funtzionario profesionalaren artean. Parlamentuari eta haietako alderdi-buruen botere-irritsari zegokionez bakarrik aldatu zen egoera. Bilakaera berri honetako baldintzak lurralde bakoitzean desberdinak izan baziren ere, itxuraz bat bera zen ondorioa ekarri zuten. Desberdintasun jakin batzuekin, noski. Hala, dinastiek botere egiazkoa eskutan gorde zuten lekuetan —Alemanian bezala, adibidez— printzearen nahikariekin bat egin zuten funtzionarioenekin parlamentuaren eta beronen botere nahien kontra. Funtzionarioekin interes berezia zuten buruzagitzako postuak, hau da ministro-postuak, beren sailetatik hartuak izan zitezten, funtzionarioen aurreratzearen helburu izan zitezten. Erregeekin, bestalde, interesa zuten beren estimuaren arabera atxikimendu berezia zioten funtzionarioen artean ministroak izendatzeari. Bi alderdiak, areago, interesaturik zeuden zuzendaritza politikoak parlamentuari batera eta era hertsia-hertsian aurre egin ziezaion, beraz, kidego-sistema batasunezko kabinete-buru baten bidez ordezkatu izan zedin. Erregeekin, bestalde, behar zuten, gatazka alderdikoietatik eta alderdien erasoetatik era formal soilean libre geratzeko, bera babestuko zuten arduradun bat, hau da, parlamentuari erantzun eta hari aurre egin eta alderdiekin tratatuko zuten figura bat. Interes horiek guztiek alde bat berera jotzen zuten: batasunean zuzenduko zuten ministro-funtzionario bat etorri zen. Eragin handiagoa zuten oraindik bateratzerantz jotzen zuten parlamentuaren boterearen bilakae-rak, parlamentuak —Ingalaterran bezala— erregeari gaina hartu zion lekuetan. Hemen kabinetea garatu zen batasuna ematen zion parlamentu-burua, *leader*-a, buruan zuela, gehiengo zuten alderdiaren batzorde bezala, lege ofizialek eza-gutzen ez baina politikoki botere erabakigarri bakarra zena. Kide ofizialak ez ziren, kide ofizial ziren aldetik, alderdie-tako botere-erakunde egiazki dominatzaileak, eta ezin izan zitezkeen egiazko gobernuaren titular. Agintzen zuten alderdi batekin beharrezkoagoa zuten, ezer baino lehen, barruan botere-a gordetzeko eta kanpoan politika handia egin ahal izateko,

erakunde bortitz bat, haren konfiantza izango zuena eta benetako zuzendariek bakarrik osatua; erakunde hau kabinetea zen hain zuzen. Aldi berean, jendearen aurrean, eta bereziki parlamentarien aurrean, erabaki guztien erantzukizuna izango zuen buruzagi bat behar zuen: kabinete-burua. Ministerio parlamentarioaren sistema ingeles hau kontinentera aldatua izan zen. Amerikan eta haien eragina jaso duten demokrazietan bakarrik eratu da, sistema honen kontra, beste bat bestelakoa, non alderdi garailearen burua jarria den, herri-hauteskunde zuzenaren bidez, berak izendatzen duen funtzionario talde baten buruan, eta parlamentuaren onarpenarekiko loturarik gabe geratzen da, aurrekontuari eta legediari dagozkienetan izan ezik.

Politika, alderdi modernoek egin zuten bezala, boterea erdiesteko eskola bat eta haren metodoak eskatzen zituen enpresa bihurtzeak herri-funtzionarioak bi kategoria desberdinetan, ez ordea guztiz hertsietan, banatzea ekarri zuen: funtzionario ofizialak alde batetik eta funtzionario politikoak bestetik. Funtzionario politikoak hitzaren zentzu hertsian kanpotik arauen arabera nabarmentzen dira honetan, alegia edozein unetan nahierara aldatuak eta kanporatuak edo bestela aginduak betetzera behartuak daudela, Frantzia prefetak eta beste lurraldeetan haien antzeko funtzionarioak bezala, justizia-egitekoa duten funtzionarioen independentziaren guztiz bestelako era batean. Ingalaterran funtzionario politiko dira parlamentuko gehienak, eta, hortaz, kabinetea aldatzen denean, beren konbentzio tinkoaren arabera kargutik apartatzen dira funtzionario guztiak. Bereziki batzen dira funtzionario politikoaren artean barne-administrazioaren ardura egotzi zaienak; eskumen honen zati osagarri da lurraldean ordena mantentzeko egiteko politikoa, hau da, bertan dagoen botere-erlazioak mantentzea. Prusian, Puttkamer-en dekretuaren arabera funtzionario hauek aginduz «Gobernuaren politika ordezkatzeari» zuten egiteko, eta hauteskundeetan eragina izateko aparatu ofizial

bezala ziren erabiliak, prefeta frantsesekin gertatzen zen bezala. Sistema alemanean, gainerako lurraldeetan gertatzen denaren alderantziz, funtzionario politiko gehienek gainerako funtzionarioek dituzten arau berberak bete behar dituzte beren karguak eskuratzeko, horretarako eskatzen zirelarik, arau orokor bezala, titulu akademiko bat, gaitasun-frogak eta alde zuretik zerbitzu-denbora bat egin izana. Gure artean funtzionario profesional modernoaren bereizgarri hori ez duten bakarrak aparatu politikoaren buruak dira, ministroak. Erregimen zaharraren garaietan, Prusian, gerta zitekeen norbait Hezkuntzako ministro izatea goi-irakaskuntzako zentro batean sekula izan gabe, eta, aldiz, printzipioz, kontseilari izateko ezinbesteko baldintza zen agindutako frogak gainditzea. Garbi dago, adibidez, Althoff Prusiako Irakaskuntzako ministro zenean, funtzionario profesional berezituak —kontseilariak edo sailburuak esate baterako— haien burua baino askoz hobeto informatuak zeudela arloko egiazko arazo teknikoei zegokienez. Gauza bera gertatzen zen Ingalaterran. Hortaz, funtzionario hauek ziren egunoroko premien aurrean egiazko boterea zutenak. Hori ez da berez inolako lelokeria. Ministroa, ezer baino lehen, agintean dagoen konstelazio politikoaren ordezkaria zen hain zuzen, eta haren egitekoa zen haien erabaki politikoak aldezte eta azpian zeuzkan funtzionario profesionalen proposamenak aurkeztea edo haiei ildo politikoak eta arauak ematea.

Gauza bera gertatzen da enpresa ekonomiko pribatuan ere: egiazko subiranoa, akziodunen biltzarra, funtzionario profesionalak gidatzen duten herria bezain eraginik gabea da enpresaren zuzendaritzari dagokionean. Beren aldetik, enpresaren politika finkatzen duten pertsonak, bankuek mende daukaten Administrazio Kontseiluko kideek, ildo politiko nagusiak finkatu eta hura administratuko duten pertsonak izendatu baino ez dute egiten, eta ez dira, ordea, berenez teknikoki hura eramateko gauza. Gaurko estatu iraultzaileak orain artekoan ez du funtsezko ezer berritu alde horretatik,

metrailadoreak eduki eta funtzionario profesionalak buru eta beso betearazle bezala erabili nahiko zituzketen amateur soil batzuei boterea eskuetan jarri baino egin ez duenez. Beste era batekoak dira estatu mota berri honek dituen nekeak, baina gaur ez gara horretan sartuko.

**Politikari profesionalak:
elizgizona, literatoa, gorteko noblezia, gentry-a**

Orain darabilgun auzia da ea zein den politikari profesionalaren izaera tipikoa, nola buruzagiarena hala haren jarraitzaileena. Denbora joan ahala aldatuz joan da, eta gaur oraindik aldeak ditu.

Politikari profesionalak iraganean, lehenago ikusi dugunez, printzeek estamentuekin zuten borrokan nahastu ziren, lehenbizikoen zerbitzuan. Ikus ditzagun irudi nagusiak labur-labur.

Estamentuen kontra, estamentu-izaerarik ez zuten gizarteko sail arruntetan bermatu zen printzea. Hauen artekoak ziren lehenengo elizgizonak Mendebaldeko eta Ekialdeko Indietan, Txina budistan eta Japonian eta Mongolia lamatarrean bezala baita Erdi Aroko lurralde kristauean ere. Teknikoki, idazten zekitelako. Brahmanak, apaiz budistak, lamak edota bestela apezpikuak eta apaizak hautatzen ziren kontseilari politiko bihurtzeko, haien artean idazteko gaitasuna zuen administrazio-indarra zuelako, eta enperadoreak, printzeek edo khanak aristokraziaren kontra erabil zitzakeelako. Elizgizona, eta bereziki elizgizon ezkongabea, garai hartako interes politiko eta ekonomiko arruntek sor zezaketen irritsetatik urrun zegoen, eta batez ere, basailuak ez bezala, libre zegoen bere nagusiaren kaltetan eta bere ondorengo propioen mesedetan indar politiko propio bat eskuratu nahi izateko tentaziotik. Bere estamentuko tasunek berek ezinbestean «apartatuta» zeukaten printzearen administrazioko kudeaketa bitartekoetatik.

Gisa bereko bigarren maila batean humanistikoki hezitako literatoak zeuden. Izan zen garai bat non hitzaldi latinoak eta bertso grekoak egiten ikasten zen kontseilari politiko izateko, eta, bereziki, printze baten memorandum-idazle politiko izateko. Garai horretan lehen eskola humanistak loratu ziren, eta printzeek Poetikako lehen katedrak sortu zituzten. Garai hori gure artean oso azkar pasatu zen, eta gure irakaskuntza-sistema era iraunkorren taxutu bazuen ere, ez du izan ondorio politiko sakonik. Erabat bestela gertatu zen Asiako ekialdean. Txinako mandarina da, edo hobeto esanda izan zen, jatorriz gure Berpizkudean lehen humanista: humanistikoki hezitako literato bat, antzinate zaharreko literatur monumentuak ezagutu eta aztertu zituen. Li Hung Tchang-en egunkaria irakurtzen dugula, ikusten dugu gehien harrotzen zuena poemak idaztea eta kaligrafo on bat izatea zela. Gizarte-sail horrek, antzinateko Txinako ereduaren gainean eraikiriko bere konbentzioekin, Txinaren patu guztia zertu du; eta antzekoa zatekeen gure patua baldin humanistek beren garaian aukerarik txikiena izan bazuten arrakasta bera erdiesteko.

Hirugarren saila zen gorteko noblezia. Printzeak lortu zuenean nobleziari gizarteko sail bezala hark zuen botere politikoa kentzea, hura gortera erakarri zuen eta eginkizun politiko eta diplomatikoetan erabili zuen. Gure hezkuntza-sistemaren eraldaketa XVII. mendean horrek aldatu zuen, alegia literato humanisten ordezkari printzearen zerbitzura gorteko nobleziatik zetozen politikari profesionalak sartu izanak.

Laugarren saila osatzen du irudi bereziki ingeles batak: noblezia txikia eta hirietako errentadunak hartzen dituen patriziatu bat, teknikoki *gentry* deitu ohi dena: hasieran printzeak baroien kontra jartzeko erabili zuen sail hori, eta ki-deei *self-government*eko karguak eman zizkien, gerora haien menpekoago bihurtzeko. Udal administrazioko kargu guztiak haien esku jarri zituen, karguak doan betetzen zituztelarik gizarteko beren indar propioaren mesedetan. Era horretan

salbatu da Ingalaterra kontinenteko estatu guztien patua izan zen burokratizaziotik.

Politikari profesionalak: legelaria, abokatua, demagogoa

Bosgarren saila Mendebaldekoa zen berariaz, Euro-pako kontinentekoa bereziki, eta aparteko garrantzia zuen hango egitura politiko osorako: unibertsitatean ikasitako legelariak. Ezertan ez da azaltzen Zuzenbide Erromatarraren eragin bortitza nabarmenago, inperio berantiar burokratizatuak eratu zuen bezala, gertakari honetan baino, alegia: estatu arrazional bihurtzeko, enpresa politikoaren eraberritzea gauzatu zutenak legelari unibertsitarioak izan zirela. Ingalaterran ere gisa berean gertatu zen, baina legelarien korporazio nazional handiek eragotzi zuten Zuzenbide Erromatarraren hartzea. Munduan beste inon ez da ikusi antzeko gertakizunik. Ez legeari dagokion pentsamendu arrazional bateko osagaiek Indiako Mîmâmsâ Eskolan, ez antzinako pentsamendu juridikoarekiko jaiarak Islamean eragotzi ahal izan zuten pentsamendu teologikoak pentsamendu juridiko arrazionala estal zezan. Bereziki lortu ez zutena izan zen prozedura osorik arrazionalizatzea. Hori lortu zen legelari italiarrek jurisprudenzia erromatar zaharra hartu izanari esker; hiri-estatu bezala jaio eta munduko inperio bihurtzen den era politiko guztiz bakar baten emaitza da hori. Hartze horrekin batera lagun egin diote helburu bera lortzeko Behe Erdi Aroko kanonisten eta pandektisten *usus modernus* delakoak eta teoria jusnaturalistak, pentsamendu kristautik sortuak baina gerora sekulartuak. Arrazionalismo juridiko honen ordezkari handiak izan dira Italiako *podestà*, Frantzian erregearen legelariak, jaunen dominazioari amaia emateko erregeak baliatu zituen bitarteko formalak sortu zituztenak, kontziliarismoko kanonistak eta teologo jusnaturalistak, legelari gortesauak eta kontinenteko printzeen epaile ilustratuak, monarkomanoak eta Zuzenbide Naturalen leko teorikoak Holandan, Koroako eta Parlamentuko lege-

lariak Ingalaterran, Frantziako Parlamentuko *Noblesse de Robe* delakoa, eta, azkenik, Iraultza-garaiko abokatuak. Horiek gabe ez estatu absolutuaren sorrera ez Iraultza dira pen tsatzekoak. Baldin erreparatzen badira Frantziako Parlamen- tuko *remontrances*-ak edo Frantziako Estatu Orokorretako *Cahiers*-ak XVI. mendetik 1789. urtera arte, alde guztietan aurkituko duzu legelarien espirituak. Konbentzio frantseseko kideen lanbideak aztertzean, denak arau berberen arabera hautatuak, proletario bat bakarra aurkituko dugu, eta enpre- sari burges oso gutxi eta klase guztietako legelari pila handi bat, hauek gabe ezinezko baitzen intelektual erradikalak eta haien egitasmoak sustatu zituen espirtu berezia pentsatu ere egitea. Harrezkero abokatu modernoaren irudia hertsiki loturik dago demokrazia modernoari. Eta abokatuak, gure zentzuan, klase autonomo bezala, Mendebaldean bakarrik daude, Erdi Aroz geroztik gainera, prozeduraren arraziona- lizatzearen eraginez prozedura germaniar formalistako «bi- tartekotik» abiatuz garatu zirenean.

Abokatuen garrantzia mendebaldeko politikan ez da halabehar soila alderdiak azaldu zirenetik. Alderdien bidezko enpresa politikoa interesdunen enpresa da —aurki ikusiko dugu zer esan nahi duen horrek—. Eta interesdunen auzi bat era eraginkorrean eramatea da abokatu ikasiaren lanabesa, eta horretan —etsaien propagandaren gailentasunak irakatsi digunez— abokatu edozein funtzionarioen gainetik dago. Argudio ahuletan oinarritutako auzia, zentzu horretan txarra, teknikoki on bihur dezake, eta auzia irabazi. Baina behin bai- no gehiagotan ikusi behar izan dugu nola politikan sartu den funtzionarioak txar bihurtzen duen, bere kudeaketa tekniko txar baten bidez, zentzu horretan ona zen auzi bat. Politika gero eta sarriago jendeari begira egin ohi da gaur, eta, hor- taz, hitz mintzatua eta idatzia erabiltzen du baliabide gisa. Hitzak neurtzea da abokatuaren egiteko muineko eta berezia, baina ez funtzionarioarena, bera ez baita demagogo, eta ez du izan beharrik ere, bere izaeraren arabera ez baitu izan behar,

eta gainera, demagogo oso txarra izan ohi da egiaz, horretan saiatzen denean.

Egiazko funtzionarioak —haxe da gure aurreko erregimena juzgatzeko ezinbestekoa— berez ez du politikarik egin behar, baizik eta administratu egin behar du, alderdikeriari gabe —eta horrek politiko deituriko funtzionarioentzat ere balio du, ofizialki bederen, behintzat estatu-arrazoi bat, hau da agintean dagoen ordenaren bizi-interesa auzitan ez dagoen bitartean. *Sine ira et studio*, «amorrurik eta aurreiritzirik gabe» bete behar du funtzionarioak bere egitekoa. Debekaturik dauka, hain zuzen ere, politikariek, bai buruek, bai jarraitzaileek, beti eta derrigor egin behar dutena. Alderdikeria, borroka eta irrika (*ira et studio*) dira politikariaren eta bereziki buruzagi politikoaren osagai. Haren jarduera guztia funtzionarioaren jarduera gidatzen duena ez bezalakoa da, eta kontrako erantzukizun-printzipio batean dago kokatua. Funtzionarioaren ohorea da berak okertzat daukan goragoko agintari baten agindua zehatz eta arreta handienaz, bere uste eta iritzikoa balitz bezala, betetzea, agintariak hari irmo eusten diolako, eta bere erantzukizuna, hortaz, harengan uzten du noski. Bere buruaren ukapen eta diziplina etiko hori gabe, hitzaren zentzurik gorenean, administrazioko makinaria guztiak porrot egingo luke. Buruzagi politikoaren ohorea, berriz, estatuburu zuzendariarena alegia, berak egiten duenaren erantzukizuna bere gain hartzean datza, erantzukizun hori ezin baitu albo batera utzi edo beste norbaiten bizkarrera bota. Zentzu etiko handia duten funtzionarioak, gure artean tamalez zuzendaritzako karguak behin eta berriro izan dituztenak, politikari txarrak dira hain zuzen, erantzukizunik hartzen ez dutenak, eta, hortaz, ikuspuntu honetatik, etikoki gorrotagarriak. Haxe da funtzionarioen gobernua deitu ohi duguna, eta ez zaio funtzionarioen ohoreari hobetik egiten esaten badugu, lortu den arrakastaren ikuspuntutik, sistema hau politikoki faltsua dela. Baina itzul gaitezen berriro politikari mota desberdinetara.

Demagogoia da, hain zuzen ere, estatu konstituzionala eta era osoagoan demokrazia agertu zenetik, politikari buruzagiaren prototipoa mendebaldean. Hitz horrek duen keru txarrak ez digu ahantzarazi behar ez zela izan Kleon baizik eta Perikles izen hori lehenbizikoz eraman zuena. Kargurik batere gabe edo hauteskunde bidez betetzen zen kargu bakarra hartuz (zozketaren bidez betetzen ziren gainerako karguak), estrategia gorenarena, demagogoak Atenasko *Demos*-eko *Eklezia* subiranoa zuzendu zuen. Demagogia modernoak ere hitzaldia erabiltzen du, jakina, kopuruari dagokionez izugarrizko neurrian gainera, hautagai moderno batek egin behar dituen hauteskundeetako hitzaldiak kontuan hartzen bada. Baina hitz inprimatua era iraunkorragoan erabili ohi du. Publizista politikoa da, eta inor baino gehiago kazetaria, mota horretako ordezkariarik nabarmenena gaur egun.

Politikari profesionalak: kazetari politikoa

Ezinezkoa da, hitzaldi honen mugen barruan, gaurko kazetaritza politikoaren soziologia egitea, edozein ikuspegi-tatik kapitulu bat osoa baita berez. Baina zerbait beharrezko zaigu hemen. Kazetaria, gainerako demagogoen antzera, eta orobat (kontinentean bederen, Ingalaterran gertatzen denaren eta Prusian lehenago gertatzen zenaren alderantziz) abokatuaren eta artistaren antzera, gizarteko sailkapen zehatz orotatik kanpo geratzen da. Paria kasta moduko bateko kide da, gizartea beti etikoki behe-renean daudenen arabera juzgatzen duena. Horregatik kazetariei eta haien lanari buruzko iritzi bitxiak ohikoak dira. Kazetari-lan benetan on batek beste edozein lan intelektual batek adina espiritu eskatzen duela —bereziki kontuan hartuz segituan, agindu ahala, egin behar dela, eta eragina izan behar duela, sorkuntzarako guztiz bestelako baldintzetan—, hori ez dute denek gogoan hartzen. Erantzukizuna askoz handiagoa dela, eta batez beste kazetari zintzo baten erantzukizun-zentzua ez dagoela beste intelektualena baino beherago —baizik gorago, gerrak erakutsi

duenez—, hori ez da gogoan hartzen, ohi bezala kazetari-lan erantzukizunik gabeak, haien eragin beldurgarriagatik, gogoan hartzen direlako. Ez du inork sinesten, oro har, kazetari saiatu baten zuhurtzia gainerako pertsonena baino handiagoa denik, eta, hala eta guztiz ere, horrela da. Lanbide honen inguruan dauden tentazio askoz bortitzagoek, gaurko kazetaritzak bere jarduera garatzeko dauzkan baldintzekin batera, ekarri dute jendeak prentsa mespretxuz eta koldartasun penagarri batez ikustea. Zer egin beharko litzatekeen, horretaz ez gara gaur mintzatuko. Hemen interesatzen zaigu aztertzea kazetarien patu politiko-profesionalari buruzko auzia eta haien aukerak agintaritzako egoerara iristeko. Orain arte hori alderdi sozialdemokratan bakarrik izan da posible, eta haren barruan erredaktore-karguak funtzionarioen postu ziren hain zuzen ere eta ez buruzagitza erdiesteko maila.

Alderdi burgesetan, bide horretatik boterera iristeko posibilitateak oro har aurreko belaunaldian baino txikiagoak dira orain. Garrantzizko alderdi orok zuen prentsaren gainean eragina izateko eta harekiko lotura izateko premia, baina nekez pentsa zitekeen, salbuespenak salbuespen, haien sailetatik alderdiko buruak sortuko zirenik. Horren arrazoia dago kazetariaren «autonomia-gabezia» gero eta handiagoan, bereziki ondasunik gabeko eta, hortaz, profesionalki loturiko kazetarienean, hori kazetaritzako enpresaren intentsitatearen eta gaurkotasunaren igotzeak baldintzatzen baitu. Egunoroko edo asteroko artikuluen bidez ogia irabazi beharra katea hanketan eramatea bezala da politikarientzat, eta ezagutzen ditut adibide batzuk buruzagi-izaera zutenak kasik etengabe kanpotik eta bereziki barrutik elbarriturik geratu direnak aginterako bidean. Antzinako erregimenean, estatuan eta alderdian agintean zegoen boterearekiko prentsak zituen harremanak ezin kaltegarriagoak izan ziren kazetaritzaren mailari dagokionean; kapitulu bat osatzeko gaia emango luke honek. Harreman horiek bestelakoak ziren lurralde etsaietan. Baina han eta estatu moderno guztietan balio du dirudienez

esaera honek: zenbat eta eragin politiko txikiagoa izan kazetariak, orduan eta eragin handiagoa du prentsako jauntxo kapitalistak —«Lord» Northcliffe baten gisakoek.

Gure artean, batez ere hitzezko iragarkiak zituzten egunkariak, *Generalanzeiger* bezalakoek, bereganatu zituzten prentsako partzuergo handiek arretarik handienaz lantzen zuten axolagabekeria politikoa. Politika autonomo bategin ez zuten zer irabazirik eta, gainera, agintean zeuden botere politikoen onginahi ekonomikoki errentagarria galtzeko arriskua zuten. Ordainduriko iragarkien negozioa izan zen, gerra-garaian, prentsaren gainean estilo handiko eragin politikoa izateko bidea, eta orain, dirudienez, hortik jarraitu nahi da. Baldin espero badaiteke ere prentsa handiak eragin honi ihes egingo diola, orri txikien egoera askoz okerragoa da tamalez. Edozer delarik ere, eta edozein delarik ere haren erakarpena eta jarraitzen duenarekiko eragina, ekimen-possibilitateak eta, batez ere, erantzukizun politikoa emateko gaitasuna, kazetaritza ez da gaur egun (beharbada esan beharko litzateke jada, edo ez dela oraindik) gure lurraldean ohiko bidea buruzagitza politikora igotzeko. Zaila gertatzen da esatea ea egoera hau aldatuko litzatekeen kazetari askok, denek ez bada ere, beharrezko jotzen duten anonimotasunaren printzipioa alde batera utziko balute. Egunkari batzuetako zuzendaritza beti beren izenaz sinatzen zuten idazle bereziki kontrataturikoen eskuetan ipiniz, prentsa alemaniarrak eskaini digun esperientziak erakutsi du kasu nabarmen batzuekin tamalez ez dela pentsa zitekeen bezain segurua bide horrek erantzukizun-zentzu garaiagoa ekartzea. Alderdien artean bereizkuntzarik egin gabe, izenik txarrena zuten egunkariak izan ziren bide horretan saiatu eta tirada handiena lortu zutenak. Horrela jokatu zuten pertsonak, argitaldarien eta albistari sentsazionalistek lortuko zuten dirua beharbada, baina seguruenera ez ohorerik. Baina ezin berma daiteke esperientzia honetan printzipioa ukatzeko; oso katramilatua da auzia, eta gertakari horrek ez du balio orokorrik. Baina orain arte

hori ez da izan bidea egiazko buruzagitzarako edo erantzukizunezko enpresa politikorako, eta ezin iragar daiteke aurrez nola antolatuko diren gauzak etorkizunean. Edozer delarik ere, kazetari-jarduera da oraindik ere garrantzizko bideetako bat jarduera politiko profesionalerako. Edozeinentzat ez den bide bat, noski. Inolaz ere ez, izaera ahulekoentzat, ez bereziki beren barne-oreka estamentuzko egoera seguru batean bakarrik jartzen dutenentzat. Zientzia-gizonaren bizitza bere hasieran nahikoa halabeharrezkoa bada ere, laster aurkituko du bere inguruan estamentuzko konbentzio sorta bat bidea aurkitzen lagunduko diona. Kazetariaren bizitza, ordea, gora-beheratsua da alde guztietatik, eta beste egoeretan ez bezala, bere barneko segurtasuna zalantzan jartzen duten baldintzez inguratua dago. Eta beharbada ez dira txarrenak izango lanbide profesionaleko esperientzia sarri mingotsak. Garaitzen duten kazetariak dira erronka bereziki zailen aurrean aurkitzen direnak. Ez da huskeria bat mundu honetako handikien saloietan mugitu beharra, haien maila berean eta sarri beldurrak sortzen dituen balakuez inguraturik, jakinaren gainean aldi berean alde egin bezain laster litekeena dela gonbidatzailea gainerako gonbidatuen aurrean desenkusatu beharrean izatea «prentsako bihurriekin» tratua duelako. Ez da huskeria, halaber, «merkatuak» eskatzen dituen auzi guztiei eta bakoitzari buruz, pentsatu ahala guztiei buruz iritzia bertatik eta konbentzitzeko moduan eman beharra, honek dituen ondorio mingotsekin. Ez da harritzekoa kazetari humanoki desbideratu edo mespretxagarririk egon egotea, bai ordea, hala eta guztiz ere, kanpoan daudenek usteko ez zuketen bezala, klase honetan gizaki baliotsu eta egiazko asko egotea.

Baldin kazetariak politikari profesionalen sailekoa den aldetik iragan nahikoa luzera begira badezake ere, alderdiko funtzionarioaren irudia da azken mendeetako eta, zati batean, azken urteetako garapenaren emaitza. Alderdiaren izaerari eta antolakuntzari begiratu bat eman behar diogu, irudi horren kokapena bere garapen historikoan ulertu ahal izateko.

Alderdiaren izaera eta antolakuntza: ospetsuak, parlamentariak

Talde politiko nolabait zabal batean, hau da nekazari-kantoi txikiko esparru eta eginkizun-barruti handiago batean, aldikako hauteskondeak dituen batean, enpresa politiko interes dutenen enpresa da derrigorrean. Hau da, lehenbiziko mailan bizitza politikoan, beraz botere politikoan, parte-hartzean interesaturik dagoen kopuru nolabait txiki batek jarraitzaileak sortzen ditu propaganda librearen bidez; aurkezten dira haiek edo haiek bultzaturikoak hautagai bezala, dirua biltzen dute eta haien aldeko bozak bilatzen dituzte. Ez da pentsatzekoa erakunde handietan hauteskondeak egin daitezkeenik oro har helburu hori duten enpresarik gabe. Praktikan horrek adierazten du bozketa-eskubidea duten hiritarrak izaki politikoki aktiboak edo pasiboak izaten direla, baina banaketa hori norberaren borondatearen arabera gertatzen denez, ezinezkoa da hura desegitea derri-gorreko bozketaren edo «korporazio» bidez ordezkartzaren kontra edo zuzenean edo zeharka errealitate honen kontra, alegia politikari profesionalen kontra joango litzatekeen beste ezeren bidez. Batetik, buruzagitza eta haren segizioa propaganda librearen osagai aktibo bezala, eta bestetik, jarraitzaileak eta hautesleria pasiboa, buruzagiaren hautaketari dagokionez; horiek dira osagarri ezinbestekoak alderdi bakoitzaren bizitzarako. Baina alderdiek egituraren aldetik aldeak dituzte beren artean. Hala, adibidez, Erdi Aroko «alderdiak», guelfoak eta gibelinoak bezalakoak, segizio soilik pertsonalak ziren. *Statuto della parte Guelfa* bakoitza ikertzean, *nobilien* (jatorriz *nobiliak* ziren zaldunen gisara bizi ziren familiak, eta, hortaz, feudo bat har zezaketenak) ondatsunen bahitzea, karguetatik eta bozketa-eskubidetik apartaturik egotea, herri-arte alderdi-komiteak, hango erakunde militar zurrinak eta salatzailentzako sariak..., hori guztia ikertzean batek tentazioa dauka gogora ekartzeko boltxebismoa eta sobietak, eta arreta handiz hautaturiko haien mili-

ziak (bereziki Errusian) eta espioitzako erakundeak, haien bahiketak, «burgesei» —hau da enpresariei, merkatariei, errentadunei, elizgizonei, iraultako dinastiako kideei eta poliziako agentei— armak eta eskubide politikoak eraztea. Harrigarriagoa gertatzen da oraindik analogia, baldin kontuan hartzen bada, alde batetik, ezen alderdi guelfoaren erakunde militarra zaldunen milizia soilak zela, non halakoak zirenak bakarrik sartzen ziren, eta zuzendaritzako kargu guztiak nobleek betetzen zituztela, eta, bestetik, sobietek enpresari ondo ordainduak zituztela, Taylorren sistema eta miliziako eta laneko diziplina gorde zituztela, edo hobeto esanda, berriro ezarri zituztela, eta atzerriko kapitalak bilatu zituztela; hitz batean estatuaren eta ekonomiaren martxari eusteko burges bezala jo zituzten erakunde guztiak berriro onartu behar izan zituztela, eta areago, Okrana zaharreko agenteetara jo behar izan zutela berriro beren botereko tresna nagusi bezala. Baina gure auzia ez dira hemen indar-erakundeak, politikari profesionalak baizik, zeintzuk alderdiaren propaganda «baketsu» zuhurraren bidez bozketaren merkatutik agintera iristen saiatzen diren.

Alderdi horiek ere, gure ohiko zentzuan, hasieran aristokraziaren segizio soilak ziren, Ingalaterran adibidez. Arrazoi batengatik edo bestearengatik pare (*peer*) bat alderdiz aldatzen zenean, harekin zerikusirik zuen guztia orobat kontrako alderdira pasatzen zen. *Reformbill* promulgatu arte, nobleziako familia handiek, errege-familia barne, hauteskunde-barruti kopuru izugarri handi baten patronatua zeukaten. Aristokraziako alderdi horietatik hurbil zeuden handikien alderdiak, burgesiak agintea hartu zuenean alde guztietan azaldu zirenak. Mendebaldeko propio diren intelektual taldeen gidaritza espiritualaren eraginez, hezkuntza eta ondasunak zituzten talde sozialak alderditan banatu ziren, hein batean klaseen arteko aldeengatik, hein batean familiako tradizioengatik eta hein batean arrazoi ideologiko soilengatik zerturik. Elizgizonek, maisuek, irakasleek, aboka-

tuek, sendagileek, botikariek, nekazari aberatsek, fabrikanteek eta, Ingalaterran, *gentlemen*en artean sartu ohi den talde sozial horiek guztiek behin-behineko elkarteak sortu zituzten lehen une batean; krisi-garaietan burgesia txikia gaineratu zitzairen eta, inoiz edo behin, proletarioak berak ere bai, oro har, beren sailetatik ez zetozen buruzagiak izan zituztenean. Bilakaeraren une honetan oraindik ez dago lurraldean alderdirik lekuarteko antolakuntza duen elkarte iraunkor bezala. Leku jakin bateko talde desberdinen arteko batasuna parlamentarietarako bakarrik segurtatzen dute, eta leku bakoitzeko handikiek aparteko eragina dute hautagaiak hots egiteko orduan. Programak sortzen dira, hein batean, hautagaien propagandako deklarazioetatik eta hein batean handikien batzarrekiko atxikimenduetatik eta parlamentarien taldeen erabakietatik. Klubeko zuzendaritza edo, gehienetan bezala, halakorik ez dagoen lekuan, garai normaletan horretan ari ohi diren pertsona gutxi batzuen eskuetan geratzen da enpresa politikoaren kudeaketa eta antolakuntza, eta haiek albo-lanbide bezala hartzen dute edo ohore gisan egiten dute behin-behineko lana. Kazetaria ez beste inor da politikari profesionala, eta kazetaritzako enpresa da, oro har, enpresa politiko iraunkor bakarra. Honen ondoan parlamentuko saioa baino ez dago. Parlamentarietarako eta buruzagietarako bazekiten noski, tokiko zein handikirengana jo behar zuten ekimen politiko jakin bat egin nahi zutenean. Hiri handietan bakarrik daude, halaz ere, alderdietako zirkuluak, beren bazkideen aldetik ekarri moderatuak jasotzen dituztenak eta diputatuen txostenak entzuteko aldikako bilkurak eta batzar irekiak egiten dituztenak. Hauteskunde-garaira mugatzen da bizitza.

Barruti-hauteskundeetarako konpromisoan eta lurralde osoan esparru zabaletan programa bateratu eta onartuan eta lurraldean propaganda bateratuan parlamentarietarako duten interesak osatzen du alderdiaren bateratze gero eta hertsia. Halere, alderdiak herrietako sailen sare bat jarri badu ere hiri ertainetan eta lurralde osoan talde parlamentarietarako baz-

kide batekin harreman iraunkorrak dituzten konfiantzazko gizonak ipini baditu, alderdiaren aparatuaeren egiturak ez du aldaketarik, handikien elkarte-izaera gordetzen du oraindik printzipioz. Bulego nagusi horretatik aparte ez dago oraingoz funtzionario ordaindurik; jaun ongi ikusiak dira, bestela ere duten itzalagatik ezagunak, herrietako elkarteak zuzentzen dituztenak: parlamentuz kanpo dauden handiki horiek dira parlamentuan diputatu gisan postua duten politikari handikien pareko eragina dutenak. Alderdiak argitaraturiko korrespondentziak ematen du gero eta neurri handiagoan prentsarako eta herrietako batzarretarako elikadura espirituala. Ezinbestekoak izango dira diru-ekarpen aratuak; zati batek zentralak dituen diru-kostuak ordaindu beharko ditu. Aldi horretan aurkitzen ziren aspaldi ez dela Alemaniako alderdi gehienak. Frantzia lehenbiziko aldia aurkitzen ziren hein batean: parlamentarien arteko lotura hauskorra zuten, lurralde osoan handiki kopuru txikia eta hautagaiek edo haien patroiek landuriko programak barruti bakoitzean eta hauteskunde bakoitzerako, parlamentarien erabaki eta programekiko atxikimendu handiagoa edo txikiagoa. Neurri batean bakarrik hautsi da gaur sistema hau. Politika beren lanbide nagusizat zeukatenen kopurua, beraz, mugatua zen funtsean: hautaturiko diputatuak, erakunde zentraletako funtzionario batzuk, kazetariak eta, Frantzia, kargu politikoan zeuden kargu-ehiztariak edo haien bila zebiltzanak. Politika formalki albo-lanbide zen batez ere. Parlamentari ministrogaien kopurua ere oso mugatua zen, baina orobat handikien izaeragatik, baita hautagaiena ere. Zeharka enpresa politikoan, bereziki materialki, interesa zutenen kopurua, ordea, oso handia zen. Ministerio batek har zitzakeen erabaki guztietarako eta arazo pertsonal guztiak konpontzeko hauteskunde-posibilitateen gainean izan zezaketen eragina hartzen zen kontuan eta, bestalde, edozein nahi lortzeko, barrutiko diputatuaren bitartekotzara jotzen zen, hari entzun egin behar baitzion nahitaez, gogo onez edo txarrez,

ministroak, haren gehiengokoa bazen (eta horregatik denak saiatzen ziren hala izan zedin). Diputatu bakoitzak zeukan karguen patronatua eta, oro har, arazo guztiena bere barrutian, eta, aldi berean, herrietako handikiekin harremanetan egon behar zuen beti berriro hautatua izateko.

Alderdiaren bizia eta antolakuntza: alderdiko funtzionario modernoak

Handikien girokoen eta bereziki parlamentarien mende-kotasunaren egoera idiliko honi kontrajartzen zaizkio erabat alderdi-antolakuntzako era modernoak. Demokraziaren, masen hauteskunde-eskubidearen, masen propaganda-premiaren eta masen antolakuntzaren, zuzendaritzaren batasun hertsienaren garapenaren eta diziplina zorrotzenaren seme dira. Amaitu dira handikien mendekotasuna eta parlamentarien gobernuak. Politikari profesionalek hartzen dute enpresa politikoa beren eskuetan, parlamentutik kanpo. Dela enpresari bezala —*boss* amerikarra edo *Election agent* ingelesa—, edo soldatapeko funtzionario bezala. Formalki demokratizatzeko zabal bat gertatzen da. Ez da jada frakzio parlamentarioa behar diren programak lantzen dituenak, ezta herrietako handikiak hautagaien aldarrikatzea erabakitzen dutenak ere. Alderdikideen batzarrak bere esku gordetzen ditu egiteko hauek, eta hautagaiak izendatzen ditu eta goragoko batzarretara joango direnak izendatzen; goragoko batzar horietatik bat baino gehiago egingo dira, ahal bada, alderdiaren batzar nagusira iritsi arte. Egiaz, eta haren izaeraren arabera, boterea, edozein modutan, enpresa barruan lan egiten dutenen esku dago edo enpresa zuzenean edo diruaren aldetik menderatzen dutenen esku, hala nola babesleen edo interesatuen klub politiko bortitzen zuzendarien esku (Tammany Hall). Erabakigarria da giza aparatu hori guztia —«makina», lurralde anglosaxoietan erabiltzen duten hitz guztiz adierazgarria baliatuz—, edo hobeto esanda, makina hori gobernatzen dutenak parlamentarioak indargetzeko gauza direla eta hein

batean beren nahia ezar diezaieketela. Garrantzi berezia du honek alderdiko zuzendaritza hautatzean. Alderdiko makinaria atzetik daukana bihurtzen da orain buruzagi, parlamentuaren gaintik pasatuz, hala behar bada. Halako makinaria bat sortzeak esan nahi du, bestela esanda, plebiszitu bidezko demokrazia ezartzea.

Garbi dago alderdiko militanteek, batez ere funtzionarioek eta enpresariak, buruzagiaren arrakastatik ordaina espero dutela, dela kargutan dela bestelako abantailatan. Eta erabakigarriena da harengandik espero dutela eta ez parlamentarioengandik edo ez hauengandik bakarrik. Espero dute, batez ere, buruzagiaren nortasunaren eragin demagogikoak bozak eta mandatuak irabaztea alderdirako hauteskunderetako borrokan; era horretan boterea lortuko du buruzagiak eta, ondorio gisan, haren jarraitzaileen posibilitateak handituko dira altuenera irrikatzen duten ordaina erdiesteko. Halaber, idealki, alderdi politiko ororen indar eragile garrantzitsuenetako bat da hain zuzen ere gizaki batek, fededun baten antzera, nortasun baten alde eta ez hainbeste programa abstraktu nola-halako baten alde lan egitean sentitzen duen poztasuna. Hauxe da buruzagitza ororen osagai karismatikoa.

Era hau gailendu da neurri oso desberdinetan alderdi eta lurraldearen arabera, eta beti etengabeko borrokan beren eragina gorde nahi duten handikiekin eta parlamentariekin. Estatu Batuetako alderdi burgesetan gailendu zen lehenbizi, geroago alderdi sozialdemokratetan, batez ere alemaniarrean. Horretara daraman bilakaerak atzerakadak jasaten ditu orokorki onartua den buruzagirik ez dagoen bakoitzean, eta areago buruzagi hori izan badenean baina alderdiko handikien harrokeriari eta interesei amore eman behar zaienean. Arriskurik handiena, halere, zera da, alegia: makina ibilarazten duen lana beren eskuetan duten alderdiko funtzionarioen mende erortzeko arriskua. Inguru sozialdemokrata batzuen iritziz, haien alderdia burokratizatze honen opari izan da.

Funtzionarioak, hala eta guztiz ere, nahikoa erraz makurtzen dira demagogikoki jokatzeko duen nortasun handiko buruzagi baten aurrean, haien interesak, bai materialak bai espirituak, alderdiak boterea hartzeari loturik baitaude hain zuzen, eta, bestalde, buruzagi baten alde lan egiteak barneko poza sortzen du berez. Askoz zailagoa da buruzagi baten igoera, funtzionarioez aparte alderdian eraginik duten handiki batzuk daudenean, alderdi burges gehienetan gertatzen den bezala. Handiki hauek, izan ere, lehendakaritzako edo komite desberdinetako kide bezala, dituzten postu txikietan daukate jarriak begiak. Demagogoaren kontrako erresuminak, *homo novus* den aldetik, alderdi barruko esperientziaren nagusitasunarekiko uste osoak (objektiboki behin baino gehiagotan nahikoa inportantea da, noski) eta alderdiko tradizio zaharrak hautsiko ote diren kezka ideologikoak zertzen du haien jarrrera. Alderdiko kide tradiziozale guztiak alde daude. Hautesle burges txikia eta, bereziki, nekazaritzako hauteslea aspaldidanik ezaguna duten handikiaren izenaren atzetik doaz eta harengan dute beren ustea; ez dute, ordea, batere usterik ezezagunarengan; baina, hala eta guztiz ere, arrakasta lortzen badu haren mende jarriko dira irmoki etorkizunerako. Ikus ditzagun orain adibide garrantzizko batzuk egiturazko bi era horien arteko borrokari buruzkoak eta Ostrogorskik bereziki ikertu duen plebiszitu bidezko eraren sorrerari buruzkoak.

Alderdiaren bizia eta antolakuntza: Caucus sistema Ingalaterran

1868ra arte alderdien antolakuntza kasik handikien erakunde soila zen han. Landan, *toriak* erretore anglikanoetan bermatu ziren, bai eta eskola-maisuarengan ere, eta batez ere *county* bakoitzeko lur-jabe handietan; *whigak*, berriz, predikari ez-konformista (halakorik zegoen lekuan), postaria, errementaria, jostuna, listaria, hau da jendearekin hitz egiten duelako eragin politikoa duen jendea hobesten zuen. Hirietan, ekonomiari eta erlijioari buruzko iritzi desberdinen arabera

egiten zen alderdien arteko bereizkuntza, edo bestela norberaren familia-tradizioari jarraiki besterik gabe. Edozer delarik ere, enpresa politikoaren titularrak handikiak ziren beti. Horren guztiaren gainera zeuden parlamentua, kabinetea eta alderdia, bakoitzak ministro-kontseiluko edo oposizioko lehendakaria zen bere *leader*-a zuelarik. Leader bakoitzak politikari profesional bat zeukan alboan akuilari (*whip*), eta honek alderdiaren antolakuntzako paper nagusia betetzen zuen. Haren eskuetan zeuden karguak, harengana jo behar zuten, beraz, postu-ehiztariek; auzi hauei buruz hauteskunde-barruti bakoitzeko diputatuekin hitz egiten zuen berak. Hortaz hasi zen astiro-astiro garatzen politikari profesional mota bat: herrietako agenteak hartzen ziren, hasieran ordaindu gabe eta gero konfiantzako gizonen postua hartu zuten. Horren ondoan, ordea, garatu zen hauteskunde-barrutirako enpresariudi kapitalista bat: *election agent* delakoa. Hau ezinbestekoa zen behin hauteskundeen garbitasuna ziurtatzeko legedi berria aldarrikatu ondoren. Legedi honen helburua zen, hain zuzen ere, hauteskunde-kostuak kontrolatzea eta diruaren indarrari aurre egitea, eta horretarako hautagaiak behartzen zituen hautaketa zenbat kostatu zen aitortzera; hala, hauek beharturik zeuden ez bakarrikARRANTATURIK geratzera hitzaldien poderioz, baizik areago, poltsa gure artean lehenago ohi zen baino gehiago zabaltzera. Legedi berriarekin, *election agent*-i hautagaiak kopuru jakin bat ordaindu behar zion, era horretan negozio polita eginez. Boterea alderdiko *leader*-aren eta handikien artean banatzean, bai parlamentuan bai lurraldean, hark Ingalaterran betidanik parterik onena izan zuen, politika iraunkor eta estilo handikoa egiteko aukera izateko ezinbesteko baliabide gisan. Hala eta guztiz ere, parlamentarien eta handikien eragina nahikoa handia zen.

Halako itxura zeukan, hortaz, alderdien antolakuntza zaharrak: hein batean handikien ekonomia eta hein batean enpresa bere enplegatu eta enpresariekin. 1868tik aurrera, ordea, lehenbizi herrietako hauteskundeetarako Birminghamha-

men eta gero lurralde osorako Caucus sistema deitua garatu zen. Erretore ez-konformista batek eta haren ondoan Joseph Chamberlainek eman zioten sorrera sistema honi. Bozketaren demokratizatzea izan zen aukera. Itxuraz demokrata zen elkarte-aparatu erraldoi bat sortu behar izan zen jendetza erakartzeko, hiri bakoitzeko auzune bakoitzean hauteskunde-elkarte bat finkatu, enpresa hau guztia atergabe mugiarazi eta dena sakon-sakon burokratizatu. Era horretan herrietako hauteskunde-komiteek ordainduriko enplegatu kopuru gero eta handiagoa azaltzen da, eta haietan sartu zen hautesleen ehuneko hamarra beharbada eta bitarteko nagusi sorta bat, hautatuak, baina kooptazio-eskubidearekin, alderdiaren politikaren sustatzaile bezala zihardutenak. Bilakerra horren guztiaren indar sustatzailea herrietako elkarteak izan ziren, udal politikan interesatuak bereziki (alde guztietan hori baita posibilitate material oparoenen iturburu), eta haiek izan ziren finantza-ekarpen garrantzitsuena egiten zutenak. Jada parlamentutik zuzendua ez zegoen makinaria hasiberri honek laster borrokatu behar izan zuen ordura arte boterea izan zutenekin, bereziki *whipekin*; herrietako interesdunetan bermaturik, garaitu egin zuen, halako moduan non *whipak* mendean geratu behar izan zuten eta harekin hitzartu. Horren ondorioa izan zen boterea gutxi batzuen eskuetan eta azkenik alderdiaren gailurrean kokaturik zegoen bakar batenean geratu zela. Alderdi liberalean, hain zuzen ere, Gladstone boterera igotzearekin loturik finkatzen da sistema. Makinaria honi handikien gainean garaipena azkar eman ziona Gladstone demagogia handiaren lilura izan zen; jendeak haren politikaren edukian eta, batez ere, haren nortasunaren izaera etikoan zeukan fede itsua. Hala azaltzen da plebiszitu bidezko zesarismoko osagai bat politikan, hauteskundeetako gudu-zelaiko diktadorea. Berehala jarriko zen agerian egoera berria. 1877an, nazioko hauteskundeetan lehenbizikoz erabiltzen denean, Caucusak garaipen distiratsua lortzen du: Disraeliren erorketa izan zen ondorioa, une-

rik arrakastatsuenan zegoenean. 1886an, makinaria halako moduan zegoen jada buruzagiaren pertsonarantz zuzendua non *Home-rule*-ren auzia planteatu zenean, aparatu osoak, goitik behera, ez zuen galdetu ea Gladstoneren iritzia objektiboki bere egiten zuen, baizik besterik gabe esan zuen «jarraitu egingo diogu egiten duena egiten duela» eta jarrera aldatu zuen haren aginduak betetzeko, Chamberlain, haren sortzailea, ataka gaiztoan utziz.

Aparatu-jende kopuru nahikoa handia eskatzen du makinaria honek. Gaur egun 2.000tik gora dira Ingalaterran alderdien politikatik zuzenean bizi direnak. Ugari dira, orobat, politikan interesdun edo kargu-ehiztari bezala laguntzen dutenak, udal politikan batez ere. Aukera ekonomikoez aparte, Caucuseko politikariari bere handinahia asetzeko posibilitateak eskaintzen zaizkio. «J.P.» izatera edo are «M.P.» izatera iristea handinahi (normal) handienen irritis naturala da, eta hezkuntza ona erakuts dezaketen pertsoneri, *gentlemeni*, ematen zaien grazia. Ohore goren bezala parearen duintasunak egiten du distira, diru-mezenas handientzat batez ere, eta ez da ahortzi behar alderdien finantzak, ehuneko berrogeita hamarra beharbada, emaitza anonimoetatik datozela.

Zein izan da sistema honen ondorioa? Bada, gaur parlamentari ingelesak, kabinete kide pare bat (eta bakarti batzuk) salbu, normalean astakume-bozkatzaile diziplinatu baino ez direla. Gure artean, Reichstag-en, herriaren alde lan egiten ari ziren itxurak egin ohi zituzten diputatuek parlamentu-saioetan beren mahaitxoetan norbere korrespondentziari erantzuten zioten bitartean. Ingalaterran ez dira beharrezkoak halako keinuak. Parlamentuko kideak egin behar duen gauza bakarra botoa ematea da eta alderdia ez saltzea; aukera bakoitzean kabineteak edo oposizioko *leader*-ak erabaki duena egiteko *whip*-ak deitzen duenean, azaldu egin behar du. Buruzagi bortitz bat dagoenean, *Caucus*aren makinariak irauten du kasik kontzientzia propiorik gabe eta buruzagiaren nahiari erabat

emana. Parlamentuaren gainetik, orduan, diktadore plebisztarioa dago, makinariaren bidez jendea bere atzetik daramana; bere segizioa osatzen duten prebendadun politikari soil baino ez dira harentzat parlamentariak.

Nola gauzatzen da buruzagiaren hautaketa? Hasteko, zein gaitasunen arabera? Horretarako —munduan erabakigarriak diren nahimenaren tasunez aparte— ezerk baino garrantzi gehiago dauka hitzaldi demagogikoak. Honen estiloa biziki aldatu da: Cobdenen garaian adimenera zuzentzen zen; Gladston, berriz, aditua zen «gertakariak berak mintza daitezen uztearen» neurritasun axalean; gaurko egunean, jendetzak mugitzeko Salbazioko Armadak erabili ohi duen mota bereko emoziozko baliabide soilak erabiltzen dituzte sarri. Bidezko da gaurko egoera «jendearen hunkiberatasuna erabiltzea oinarri duen diktadura» bezala kalifikatzea. Baina, aldi berean, parlamentu ingelesak batzordeka lan egiteko duen sistema guztiz katramilatuak politikariaren norabidean parte hartu nahi duen politikari orori laguntzeko posibilitatea ematen dio, eta are hartara behartzen du. Azken hamarkadetan karguan egon diren nolabaiteko garrantzia duten ministro guztiek beren atzetik hezkuntza lan oso, egiazko eta eraginkor hau daukate. Batzorde hauen bilkuretan egin ohi diren txostenen eta kritika irekiaren praktikak demagogoko soilak bazterten dituen hautaketa egiazko bihurtzen du eskola hau.

Alderdi bizia eta antolakuntza: Spoils sistema Estatu Batuetan

Halaxe, beraz, Ingalaterran. Baina hango Caucus sistema era ahul bat zen, alderdiaren antolakuntza amerikarrarekin konparatuz, honek printzipio plebisztarioa goiz eta bereziki era garbian markatu baitzuen. Washingtonen ustez, *gentlemenek* administraturiko elkarte bat izan behar zuen Amerikak. Garai hartan *gentleman* bat Amerikan ere lurjabea edo ikastetxe batean hezitako gizona zen. Askatasunaren lehen garaietan hala izan zen Amerika. Alderdiak eratzean,

Ordezkarien Ganbarako kideak zuzendari politiko bihurtzeko helburua izaten hasi ziren, handikien gobernuaren garaian Ingalaterran gertatu zen bezala. Alderdien antolakuntza oso zabarra zen. 1824ra arte iraun zuen egoera horrek. 1820ko hamarkada aurretik jada alderdien makinaria eratzen hasia zen zenbait udaletan, eta horiek izan ziren bilakaera berriaren mintegi. Baina Andrew Jackson Mendebaldeko nekazarien hautagaia lehendakari hautatzean azkenik tradizio zaharrak pikutara joan ziren. Formalki parlamentari nagusiek zeramatan alderdien zuzendaritza 1840a baino geroxeago amaitzen da, Calhoun eta Webster bezalako parlamentari handiak bizitza politikotik erretiratzen direnean, makinaria partidistaren aurrean, lurraldean parlamentuak jada bere botere kasik osoa galdu duelako. Makinaria plebiszitariora Amerikan hain goiz garatu izanaren arrazoia da han, eta han bakarrik, gobernuko burua eta karguak bere esku dituen patroia —eta hori da kontua— plebiszitu bidez hautaturiko presidentea dela eta, botereen banaketaren ondorioz, kasik askatasun osoz jokatzeko duela parlamentuaren aurrean. Hala lehendakariaren hautaketa bera da garaipenaren sari bezala prebenda eta kargu bilkin oparora eskaintzen duena. Spoils sistemak, Andrew Jacksonek printzipio sistematiko izatera jasoak, egoera honen ondorioak ateratzea besterik ez du egiten.

Zer esan nahi du alderdien antolakuntzari dagokionez Spoils sistemak kargu federal guztiak hautagai garailearen segizioari egozteak? Bada, erabat uste osorik gabe dauden alderdiak beren artean aurrez aurre jartzen direla, kargu-ehiztarien erakunde soilak, bakoitzaren programak hauteskunde bakoitzerako idatziak direlarik, botoak eskuratu beste posibilitaterik kontuan hartu gabe. Programak hauteskunde batetik bestera aldatu egiten dira, eta horretarako ez dago analogiarik aurkitzerik beste inon. Alderdiek, hain zuzen ere, kargu handien jabe egiteko egiten diren hauteskundeak dituzte helburu, eta horregatik borrokatzen dira: lehendakaria eta estatu-gobernariak hautatzeko hauteskundeak. Programak finkatu

eta hautagaiak izendatu bilkura nazionalek egiten dute, parlamentariak inolaz ere esku hartu gabe, hau da formalki, era guztiz demokratikoan *primaries*etan, alderdiko hautesleen biltzarren mandatua beren aldetik jaso duten ordezkarien batzarrez osaturik dauden alderdien biltzarrek egiten dute. *Primaries* hauetan jada estatuko buruzagitzako hautagaien izena gogoan hartuta dira hautatuak ordezkariak. Alderdi guztien barruan garatzen da gatazkarik gogorrena *nominaton* dela eta. Lehendakariaren eskuetan geratzen da beti 300.000tik 400.000ra funtzionarioen izendatzea, berak egin behar du hori estatu bakoitzeko senatariekin alde aurretik aholkatu ondoren. Senatariak, beren aldetik, kontsulta hau dela eta, politikari indartsuak dira. Baina ez da hala gertatzen Ordezkarien Ganbararekin, galdu egin baitute karguen jabegoa, ezta ministroekin ere, hauek, botereen banaketaren ondorioz lehendakariaren laguntzaile baino ez dira eta; lehendakaria herri-hautaketaren bidez dago egiaztatua mundu guztiaren aurrean, parlamentua bera barne, eta hortaz, bere kargua parlamentuaren konfiantzaz edo konfiantzarik gabe askatasun osoz bete dezake.

Era horretan bermaturiko Spoils sistema hau Amerikan teknikoki posible izan zen, kultura amerikarraren gaztetasunak *amateur*-en ekonomia bat posible egiten zuelako. Jakina, beren alderdiari baliagarri izatea beste kalifikaziorik ez zuten alderdiko 300.000 edo 400.000 gizakien eskutan egonik administrazioa, ezinbestean akats izugarri handiak izan behar zituen, eta, egiaz, posibilitate ekonomiko mugarik gabeak zituen lurralde batek bakarrik eraman zitzakeen ustelkeria eta eralgitze paregabeak ziren, hain zuzen ere, administrazio amerikarraren ezaugarria.

Alderdiaren bizia eta antolakuntza: boss, alderdia enpresa bezala

Bossa da alderdiko makina plebisitarioaren sistema-ekin azaltzen den irudi berria. Zer da *boss* hori? Enpresari

politiko-kapitalista bat, bere buruarentzako botoak biltzeko eginkizuna hartzen duena. Hasiera batean abokatu bezala, edo tabernari edo antzeko beste edozein negozioko enpresari bezala edo mailegu-emaile bezala dituen harremanak baliatuko ditu. Gero pixkanaka zabalduz joango da haren sarea, boto kopuru jakin bat kontrolatu arte. Behin horra iritsita, hurbilen dituen beste *bossekin* hasiko da harremanetan, eta jarraitutasun, trebetasun eta batez ere zuhertasun handia baliatuz karrera horretan bera baino lehen hasi eta aurrera joan direnen arreta erakarriko du, eta bera ere igo egingo da. Haren eskuetan dago alderdia. Diru-baliabideen iturburu nagusia da. Nola lortzen ditu diruok? Bada, hein batean bazkideen ekarpenen bidez; batez ere, haren bidez edo alderdiaren bidez kargura iritsi diren funtzionarioen soldatik ehuneko hainbat bilduz. Beste bide bat da eroskeria eta eskupekoa. Lege ugarietako bat zigorrik jasan gabe urratu nahi duenak *bossaren* adostasuna behar du, hori gabe nahi ez dituen ondorioak paira ditzake. Baina baliabide horiek guztiak ez dira aski enpresak behar duen kapitala inguratzeko. Hortaz, *bossa* ezinbestekoa da, areago, finantza-handiki handiek ematen duten dirua zuzenean jasotzeko. Handikiek ez lukete hauteskundeetarako ematen duten dirutza eman-go, soldatapean dagoen funtzionario bati edo denen aurrean kontu eman behar duen norbaiti eman beharko baliote. Diru kontuan duen gurbiltasun zuhurra dela eta, *bossa*, beste ezeren gainera, hauteskundeak ordaintzen dituzten giro kapitalistetako kidea da. Ez dabil gizarte-prestigioaren bila edo ospe bila; gainera, profesional hauek mespretxatuak izaten dira goi-mailako giro aristokratikoetan. Berak boterea nahi du, boterea diru-iturri bezala, baina baita boterea botereagatik beragatik ere. *Leader* ingelesak ez bezala, *boss* amerikarrak itzalean lan egiten du. Nekez entzungo zaio hizketan. Hizlariari iradoki egingo dio zer esan behar duen, baina bera isilik geratuko da. Oro har, ez du inolako kargurik, ez bada senatariarena senatu federalean; izan ere, konstituzio-

aren arabera senatariiek karguen patronatuan esku har dezaketenez, sarri *bossa* bera joaten da korporazio horretara. Karguen egoztea alderdiari eskainitako zerbitzuen arabera egin ohi da lehenbizi. Baina, sarri, diru truk ere eman ohi dira, eta are kopuru finkoak ere badaude kargu jakin batzuetarako. Kargu-salmenta bat da, azken batean, XVII. eta XVIII. mendeetan monarkia europarrek, Elizako estatuek barne, ezagutu zutenaren antzekoa.

Bossak ez du «printzipio» politiko irmorik, ez du uste sendorik, eta botoak nola erdietsi da galdetzen duen bakarra. Ez da harritzekoa, bestalde, gizaki ezjakina bada. Baina gehienetan, hori bai, bere bizitza pribatua egokia eta akatsik gabea da. Bere etika politikoan bakarrik dator bat une bakoitzean agintzen duen jarduera politikoaren batez besteko moralarekin, gutariko askok pilatze-garaian moral ekonomikoari dagokionez egin genuen bezala.

Ez dio axolarik batere gizarteak mespretxatzen badu lanbidez politikari, politikari profesionala, den aldetik. Batasuneko kargu handirik ez edukitzeak eta eduki ere eduki nahi ez izateak badu trukean abantaila bat: posible egiten du aukera ez gutxitan beste gizaki burutsuagoak, alderdikoak ez direnak, edo izen handikoak (eta ez bakarrik, gure artean bezala, alderdietako handikiak) hautagai bihurtzea, betiere botoak erakar ditzaketela pentsatzen bada. Hain zuzen ere, uste sendorik gabeko alderdi hauen egiturak, oinarri doktrinalik gabekoak, gizarteak mespretxatzen dituen bere boteredunekin, gure artean sekula gora iritsiko ez lirakeen gizaki baliotsuei lehendakaritzara iristeko aukera eman die. *Bossak*, noski, hortzez eta haginez aurre egingo dio bere botere eta diru-iturriak arriskuan jarriko dituen *outsider* orori, baina ez da harritzekoa, hautesleen faborea erdiesteko lehian, inoiz bere burua aurkitzea saldukeriaren etsai bezala aurkezten diren hautagaiak defenditzen.

Horra hor, beraz, alderdi-enpresa bat, bortizki kapitalista, goitik behera zorrotz antolatua, Tammany Hall bezalako klub hertsia eta hierarkiko eratueta bermatua; helburua da onura ekonomikoak lortzea eta administrazioa, eta bereziki udal administrazioa —Amerikan ere harrapakinik goxoa baita—, politikoki menderatzea. Estatu Batuetan «lurralde berri» bezala nagusi zen maila handiko demokrazia izan zen alderdien bizi-egitura hau posible egin zuena. Bi terminoen arteko lotura hau izan da sistema honen iraungitze astiroa ekarri duena. Amerika ezin goberna dezakete *amateuren* bakarrik. Duela hamabost urte langile amerikarrei galdetuta ea zergatik onartzen zuten mespretxatzen zituzten politikariek goberna zitzaten, honoko erantzun hau jaso zen: «Nahia-go dugu guk tu egiten diogun funtzionarioa eduki, eta ez guri tu egingo digun funtzionario-kasta bat sortu». Hauxe zen «demokrazia» amerikarraren ikuspuntu zaharra, eta garai hartan jada sozialistek erabat bestela pentsatzen zuten. *Amateuren* administrazioak ez du jada balio, eta Civil Service Reform delakoa bizitza osorako postu berriak, erretirodunak, ari da etengabe sortzen, eta ondorioa da hezkuntza unibertsitarioa daukaten funtzionarioak, gureak bezain kapazak eta erostezinak, ari direla postuak hartzen. Kasik 100.000 kargu daude jada hauteskundeetako bilkin ez direnak, baizik erretiro-eskubide batez hornituak daudenak eta gaitasun-proben bidez betetzen direnak. Honek astiro-astiro Spoils sistemaren atzerakada ekarriko du, bai eta, halaber, alderdiko zuzendaritzaren egitura aldatu beharra ere, igarri ezin dugun zentzu batean.

Alderdiaren bizia eta antolakuntza: alderdiak Alemanian

Hauexek izan ziren Alemanian enpresa politikoaren baldintzak. Lehenbizi, parlamentuaren ezintasuna, eta, honen ondorio bezala, buruzagi izateko tasunak zituen gizonik ez zela geratzen luzaz parlamentuan. Emanik hara joan nahiko zukeela, zer egin zezaken han? Administrazioko bulego ba-

tean huts bat gertatzen zenean, auzia zegokion funtzionarioari esan ziezaiokeen: «Badut nire barrutian gizon oso azkar bat, postu hori oso ondo beteko lukeena, emaiozu postua». Eta atseginez ematen zioten. Baina hori zen gutxi gorabehera parlamentari alemaniar batek egin zezakeena bere botere-sena asetzeko, baldin sen hori bazuen. Bigarrenik eta bigarren ezaugarri honek aurrekoa ere baldintzatzen du—, zenbaterainoko garrantzia zuen funtzionario espezializatuak Alemanian? Alor honetan lehen lekuan geunden munduan. Garrantzi horren ezinbesteko ondorioa zen funtzionario horrek zeukan irrika ez zela bakarrik funtzionario-postua betetzeko, baizik, areago, ministro postuak ere bete nahi zituen. Bavariako Landtag-ean joandako urtean esan da, erregimen parlamentarioa sartu ez sartu eztabaidan, ministerioak parlamentariak hartu behar bazituzten ez legokeela gai litzatekeen pertsonarik funtzionario izateko. Funtzionarioen administrazio honek gainera ihes egiten zien sistematikoki Ingalaterran batzorde parlamentarioek egiten duten bezalako kontrol orori, eta ezinezko zen horrela, salbuespen gutxi batzuk salbu, parlamentuaren baitan buruzagi administratibo egiazki baliotsuak prestatzea.

Hirugarren ezaugarria zen Alemanian, Amerikan gertatzen denaren alderantziz, alderdiek ideologia bat zutela, *bona fides* subjektiboarekin esaten zutela ezen alderdikideek «mundu-ikuspegi» bat ordezkatzeko zutela. Alderdi hauetan bi inportanteenak, Zentroko Alderdia eta Sozial Demokrazia, alderdi minoritario izateko asmo zuzenarekin sortuak izan ziren ordea. Zentroko buruzagiek Reich garaian ez zuten sekula ezkutatu parlamentarismoaren kontra zeudela, uste baitzuten gutxiengoan kokaturik egongo zirela eta orduan neke handiagoak izango zituztela beren kargu-ehiztariak kokatzeko, ordura arte egin zuten bezala, gobernuaren gainean presio eginez. Sozialdemokrazia printzipioz gutxiengoan alderdia zen eta parlamentarismoarentzat eragozpen, antolaketak politiko burgesarekin hitzartuz zikindu nahi ez zuelako. Bi alderdiak beren borondatez sistema parlamentariotik

kanpora geratzeak ezinezko bihurtu zuen parlamentarismoa sartzea.

Zein zen, orduan, politikari profesional alemaniarren zoria? Ez botererik ez erantzukizunik zuten, eta, hortaz, handikien paper nahikoa mendekoa joka zezaketen soilik, eta, horregatik, lanbide guztietan ohiko den gremio-espirituak bultzaturik zeuden azken garaietan. Politikari profesionalek postutxo txikietan eman beharra zuten bizitza osoa handikien giro hartan, gora egitea ezinezko baitzuen handikia ez zen gizon batek. Alderdi guztietatik, sozialdemokrata kanpoan utzi gabe noski, politika-ibilbide tragiko horren adibide izan zitezkeen hainbat izen aipa nitzake, buruzagi izateko tasunak zituztenak eta horregatik hain zuzen ere, handikiek bidea mozten zietenak. Handiki-elkarte bihurtzera eraman zituen bide hau segitu dute gure alderdi guztiek. Bebel, adibidez, bere adimena nahikoa apala izan bazitekeen ere, benetako buruzagia izan zen bere aiurri eta jite garbitasunagatik. Martiri bat izateak eta, jendearen ustez, haiei sekula huts egin ez izanak ekarri zuen ezen beti haren atzetik ibili zirela eta alderdi barruan seriozki aurre egingo zion inolako botererik ez zegoela. Hura hiltzean amaitu zen hori guztia eta funtzionarioen dominazioa abiatu zen. Funtzionario sindikalak, alderdiko idazkariak eta kazetariak igo ziren gora, funtzionarioen senak menderatu zuen alderdia, funtzionario benetan leialen senak —paregabe leiala esan daiteke, pentsatzen bada gauzak nola doazen beste lurraldeetan, bereziki Amerikan sindikatuetako funtzionario sarri salduei dagokienez—, baina lehen aipaturiko funtzionarioen nagusigoaren ondorioak alderdian sartu ziren.

Alderdi burgesak handikien elkarte soil ziren 80. urteetan jada. Egia da noiz edo noiz alderdiek, propaganda egiteko, alderdi-bazkidetzarik gabeko pertsona burutsuak erakarri behar izaten zituztela «guk halako eta halako izenak ditugu» esan ahal izateko. Ahal izanez gero, pertsona horiei hauteskundeetara aurkeztea eragozten zitzairen, eta ezinbestekoa

zenean bakarrik aurkezten ziren hautagai bezala, bestela ez zegoelako harrapatzerik interesatua. Espiritu horrek berak agintzen zuen parlamentuan. Gure alderdi parlamentarioak elkarteak ziren, eta hala dira oraindik ere. Reichstagean egiten den hitzaldi oro lehenago alderdian zentsuratua izan da, eta hori erraz igar daiteke izugarri aspergarriak izan ohi direlako. Hitzlari bezala izena emanda dagoenak bakarrik hitz egin dezake. Hori ohitura ingelesaren eta —nahiz arrazoi guztiz bestelakoengatik— ohitura frantsesaren guztiz kontra dago.

Alderdiaren bizia eta antolakuntza: etorkizuna

Orain, iraultza deitu ohi den eten bortitzaren ondorioz, aldaketa bat etorriko da beharbada. Beharbada, baina ez da gauza segurua. Hasieran, alderdiko aparatu mota berriak sortzeko ahaleginak azaldu ziren. Lehenbizi, *amateuren* aparatua. Sarri ahalegin hori goi-mailako eskola desberdinetako ikasleen aldetik abiatzen da bereziki: buruzagi izateko tasunak egotzen dizkioten norbaitengana jotzen dute, esanez: «Behar den lana guk egingo dugu zuretzat; zuzen gaitzazu». Bigarrenik: negozio-gizonez osaturiko aparatua. Inoiz gertatu da ezen gizaki talde batek, beren ustez buruzagitarako tasunak lituzkeen norbaitengana jotzen duela eskatuz, hauteskunde bakoitzerako diru kopuru baten truke, botoak irabazteko egitekoa har dezan. Zuek zinez galdetuko bazenidate ea bi aparatu mota horietatik zein iruditzen zaidan konfiantzazkoagoa ikuspegi tekniko-politikitik, erantzungo nizueke bigarrena dudala nahiago. Biak, edozein modutan, oso azkar puztu ziren burbuilak izan ziren, oso azkar lehertzeko. Lehendik zeuden aparatua apurtxo bat eraldatu ziren, baina lanean segitu zuten. Gertakari haiek zantzu bat izan ziren soilik, alegia aparatu berriak beharbada jarriko zirela baldin buruzagiak aurkitzen bazituzten. Baina ordezkaritza proporzionalak dituen eragozpen teknikoek eragotzi zuten hazkun-

dea. Kale-diktadore pare bat azaldu zen bakarrik, segituan desagertzeko. Eta kale-diktadura horien segizioa soilik izan zen antolatua diziplina irmo batekin; hortik dator gutxiengo horien boterea, gaur galtzeko zorian dagoena.

Demagun egoera aldatu egiten dela. Oso begien aurrean eduki behar da orduan ezen, esandakoaren arabera, alderdien zuzendaritzan buruzagi plebisitarioak izateak jarraitzailearen «desarimatzea» dakarrela, haren proletarizatze espirituala, esan daiteke. Buruzagiarentzako aparatu erabilgarria izateko, jarraitzaileak itsu-itsuan obeditu behar du, makina bihurtu, zentzu amerikarrean, eta ezin du handikien handinahien aurrean nahastu edo iritzia izateko tentazioa izan. Lincolnen hautaketa alderdiaren antolaketak izaera hori zuelako soilik gertatu zen, eta, esan den bezala, gauza bera jazo zen Caucasarekin Gladstonen hautaketan. Horixe da, hain zuzen ere, buruzagi baten zuzendaritzagatik ordaindu beharreko prezioa. Baina aukera hauxe baino ez zaigu geratzen: edo buruzagidun demokrazia «makinarekin», edo buruzagirik gabeko demokrazia, hau da, bokaziorik gabeko, hain zuzen ere buruzagi egiten duten barneko tasun karismatikorik gabeko, «politiko profesional» baten agintaritza. Hori da, orduan, alderdi baten barruan gaurko borroketan «presio-taldeen» erre-suma izenez ezagutzen dena. Gaur egun hori da Alemanian daukagun gauza bakarra, eta hura mantentzea etorkizunean errazagoa izango da, Reicharentzat bederen, Bundesrat delakoa berregingo delako, eta horrek Reichstagaren boterea mugatuko du derrigor eta horrela haren garrantzia murriztu egingo da buruzagiak hautatzeko leku egoki bezala. Gainera, sistemaren iraunkortasuna ordezkaritza proportzionalak segurtatzen du, gaur eraturik dagoen bezala. Buruzagirik gabeko demokraziako erakunde tipiko bat da, ez bakarrik handikien tratu maltzurrei aukera erraza ematen dielako lana hartzeko, baizik areago, etorkizunerako, interesatuen elkar-teei beren funtzionarioak zerrendetan sartzera behartzeko posibilitatea ematen dielako; eta era horretan parlamentu

apolitiko bat sortzen da, non ez den lekurik egongo benetako buruzagitza baterako. Benetako buruzagitza bat edukitzeko premiarako ihesbide posible bakarra da Reicheko lehendakari izatea, plebiszitu bidez hautatua bada eta ez parlamentuak hautatua. Buruzagitza bat sortu eta hauta liteke egindako lanean oinarrituz, baldin hiri handietan, Estatu Batuetan azaldu zen bezala bereziki ustelkeriaren kontra zinez borrokatu nahi izan zen lekuetan, azaltzen bada udal diktadore bat, plebiszitu bidez hautatua eta askatasun osoz bere taldea antolatzeko eskubideez jantzia. Hauteskunde mota horietara egokituriko alderdien antolakuntza eskatuko luke horrek. Baina alderdi guztiek, eta bereziki sozialdemokraziak, buruzagitzaren kontra sentitzen duten etsaigo burges txikiak alderdien etorkizuneko eraketa, eta harekin batera posibilitate hauek gauzatzea, oso beltz jartzen du.

Horregatik ezin esan daiteke enpresa politikoa nola eratuko den «lanbide» bezala etorkizunean, eta gutxiago oraindik zein bide irekitzen zaizkien politikoki jantziak direnei eginkizun politiko aski on bati aurre egiteko. Bere ondare-egoeratik, «politikatik» bizitzera beharturik dagoenari hautabide bat aurkezten zaio: edo alderdi bateko kazetari izatea edo funtzionario izatea, horiek baitira bide zuzen tipikoak bai udal administrazioan bai interesak ordezkatzeko dituzten erakundeetan —hala nola sindikatuak, merkataritza-ganbarak, nekazarien eta artisauen ganbarak, lan-ganbarak, ugazaben elkarteak eta horiek bezalako erakundeetan— postu egoki bat aurkitzeko. Kanpoko itxurari dagokionez, ez dago gehiago esaterik, ez bada alderdietako funtzionarioek eta kazetariak «klaserik gabeek» pizten duten *odium* bera sorrarazten dutela. Tamalez, «soldatapeko idazle» deituko zaio kazetariari eta «soldatapeko hizlari», berriz, besteari; egoera honen aurrean babesik gabe aurkitzen denarentzat eta salaketa hauentzat beren baitan erantzun egokirik aurkitzeko gai ez denarentzat, tentazio izugarriekin batera eta desilusio iraunkorrek berarekin dituen bide hau moztuta dago edozein modutan. Zein dira

ordainetan bide horrek eskaintzen dituen barneko pozak, eta zein gaitasun izan behar ditu handik abiatzen denak?

Botere-sentimena eskaintzen du, ezer baino lehen. Gizakien gainean eragina izatearen, haien gaineko agintean parte hartzearen kontzientziak eta, batez ere, gertakari historiko inportanteen hariak erabiltzearen sentimenak egunorokotik gora jasotzen du politikari profesionala, are formalki postu apaletan dagoena. Orduan aurkezten zaion arazoa da ea zeintzuk diren botere horren (nahiz oso mugatua izan haren kasuan) eta bere gain botatzen duen erantzukizunaren mailan egoteko aukera emango dioten tasunak. Horrekin etikaren alorrean sartzen gara, etikari baitagokio finkatzea zein gizaki motak duen eskubide historiaren gurpilean eskua ezartzeko.

Gaitasun-irizpideak eta politikariaren prestakuntza

Esan daiteke hiru direla tasun eiki inportanteak politikariarentzat: grina, erantzukizuna eta neurritasuna. Grina, objektuaren zentzuan: gauza batekin, hura zuzentzen duen jainkoarekin edo deabruarekin grinaz arduratzea. Ez nire adiskide Georg Simmel zenak «kitzikatze antzua» deitu ohi zuen barneko jarrera horren zentzuan: hori baita intelektual jakin batzuei dagokiena, bereziki errusiarrei (ez, jakina, gutiei), eta orain gure intelektualen artean ere paper handia jokatzen duena, bai baitabiltza «iraultza» izen harroa eman ohi zaion inauteri hau edertu nahian. Ezerezean jira-bira dabilen «intelektualki interesgarriaren erromantizismo» bat da hori, erantzukizun objektiboaren trazarik batere ez duena. Grina soilak, izan ere, nahiz oso sutua izan, ez baitu dena konponetzen. Grinak ez du gizaki bat politikari bihurtzen ez badago «gauza» baten zerbitzuan eta ekimena zuzenduko duen izar gidari bihurtzen ez badu gauza horrekiko erantzukizuna. Horretarako beharrezkoa da (eta hauxe da tasun psikologiko erabakigarria politikariarentzat) neurritasuna, bildutasunik eta baretasunik galdu gabe errealitateak norberaren gainean eragin dezan uzteko, hau da, gizaki eta gauzekiko urrunta-

suna mantentzeko gaitasuna. Urruntasuna mantentzen ez jakitea da politikari ooren bekatu mortala, eta bertute hori ahazteak eraman lezake gure gaurko belaunaldi intelektuala ezintasun politikora. Kontua da, hain zuzen ere, ea nola lortu batzea pertsona berean grina sutsua eta hoztasun neurritsua. Buruaz egiten da politika, eta ez gorputz edo arimaren beste atalez. Eta hala eta guztiz ere, norbera kausa bati lotzea grinatik bakarrik sortu eta elika daiteke, baldin jarrera benaz gizatiarra bada eta ez joko intelektual axalekoa. Politiko pasionatua ezaugarritzen duen eta «antzu sotiletik bereizten duen arimaren bezatze bortitz hura, urruntasunaren ohiturak (hitzaren zentzu guztietan) bakarrik, ez beste ezerk, egiten du posible. «Nortasun» politiko baten «indarra» tasun horiexen jabe izatean datza, lehenik eta behin.

Egun oro eta ordu oro gainditu behar du horregatik politikariak etsai erabat hutsal, gizatiarregi bat: harrokeria guztiz arrunta, zeina baita kausa bati benaz lotzeko eragozpena eta neurritasun ooren etsai mortala, kasu honetan norberarekiko neurritasunaren etsaia.

Harrokeria tasun oso zabaldua da, eta behar bada inor ez dago harengandik libre. Akademikoen eta zientifikoen artean lanbide-eritasun moduko bat da. Baina zientzia-gizakiarengan hain zuzen ere, haren azalpena nahi adina antipatikoa bada ere, harrotasuna kaltegabea da, oro har bere lan zientifikoari kalterik egiten ez diolako. Erabat bestela da politikariarengan: boterearen irrikarekin lan egiten du ezinbesteko bitarteko bezala. «Botere-sena», deitu ohi denez, haren tasun normalen artean dago egiaz, era horretan. Bere lanbideko Espiritu Santuaren kontrako bekatua hasten da botere-irrika hori baikorra ez den une berean, alegia kausaren zerbitzura egoteari uzten dionean eta norberarentzako mozkor-lilura bihurtzen denean. Azken finean, bi bekatu mortal baino ez dago politikaren alorrean: helburu objektiborik ez izatea eta erantzukizun eza, sarri, beti ez bada ere, harekin bat datorrena. Eta harrokeria da, alegia ahal den

guztietan lehen planoan azaldu beharra, politikaria bekatu horietako bat edo biak egitera daramana. Hainbat gehiago, demagogoa «eragina» kontuan hartzera behartuta baitago; beti dago arriskuan horregatik, bai komediante bihurtzeko bai bere egintzen ondorioengatik legokiokeen erantzukizuna arinkeriaz hartzeko eta sortzen duen inpresioaz kezkatu egoteko. Helburu objektiborik ez izateak boterearen itxura distiratsua bilatzera eramanez ohi du, egiazko boterea bilatu ordez; erantzukizun ezak boterea botereagatik bilatzera darama, helburua gogoan hartu gabe. Politikaren ezinbesteko bitartekoa boterea bada ere, edo, zehatzago, hala delako, eta botere-irrika denez hura bultzatzen duten indarretako bat, ez dago indar politikoaren desitxuratze kaltegarriagorik botereaz harropuzkeriatan ibiltzea baino etorri-berri baten gisan, edo handikeriaz beterik botere sentimenean atsegin hartzea baino, hau da, hitz batean, boterea botere bezala gurtzea baino. Botere politiko soilak, gure artean ere jaiera sutua sortzen duenak, eragin bortitza izan dezake, baina hutsean du eragina eta zentzurik batere gabea da. Jarrera honen ordezkari tipiko diren batzuen barneko amiltze batabatekoan egiaztatu ahal izan dugu zenbateko barne-ahulezia eta zenbateko ezintasuna ezkututzen den keinu arranditsu, bai, baina erabat huts horien ostean. Jarrera horrek axolagabetasun motz eta axalekoa adierazten du giza ekintzaren zentzuaren aurrean; eta horrek ez du zerikusirik batere, egintza orotan, bereziki politikoan, aurkitzen den tragikoari buruzko jakitearekin.

Erabateko egia eta —orain gehiago arrazoituko ez badugu ere— historia ororen funtsezko gertakaria da ezen sarri, edo hobeto esanda kasik beti, jarduera politiko baten azken emaitza eta jarduera horren jatorrizko zentzua edo helburua erlazio desegokian, sarri kasik paradoxazkoan, egon ohi dela. Horrek ez du bide ematen, halere, zentzu hau —kausa bati zerbitzatzea— albo batera uzteko, baldin ekimenak barne-trinkotasuna edukiko badu. Fede-kontua da politikariak

zein kausatarako bilatzen duen eta erabiltzen duen boterea. Haren helburua izan liteke nazionalista, edo humanitarioa, edo soziala, edo etikoa, edo kulturala; haren ildoak izan liteke erlijiosoak edo ez, izan liteke «aurrerapenean» (honek izan dezakeen edozein zentzutan) itsu-itsuan sinesten duena, edo hotz-hotzean fede mota honi uko egin diezaioke; ideia baten zerbitzuan diharduela uste dezake edo printzipioz asmo mota hau gaitzetsi eta egunoroko bizitzako helburu materialei soilik zerbitzatu. Kontua da beti izan behar duela federen bat. Hori falta denean, itxuraz irmoenak diren arrakasta politikoek, eta hau bidezkoa da guztiz, hutsaltasunaren mardirikazioa daramate beren gain.

Politikaren Ethosa auzi bezala

Esana daukagunarekin iritsi gara gaur gauean aipatu behar dugun azken arazora: politikaren Ethosa auzi bezala. Zein da politikak, haren helburuak albora utzita, gure bizimoduaren ekonomia etikoan bete behar duen papera? Zein da, nolabait esateko, berak hartzen duen alor etikoa? Mundu honetan aurrez aurre jotzen dute elkarren kontra munduari buruzko uste oinarrikoek, eta haien artean hautua egin behar da. Jo dezagun erabakitasunez azken aldian berriro eztabaidagai, nire ustez era guztiz okerrean, bihurtu den arazo honetara.

Libra gaitezen, ordea, lehenbizi, faltsutze guztiz hutsal batetik. Etika, izan ere, azal daiteke batzuetan eginkizun moral guztiz tamalgarri bezala. Ikus ditzagun adibide batzuk. Nekez aurkituko duzue gizon bat emaztea utzi eta beste emakume bat maitatzeko bere burua zuritu beharrean aurkitzen ez dena, esanez emazteak ez zuela merezi haren maitasuna edo hark engainatu zuela, edo halako beste edozein arrazoi. Gizalege falta da hori. Emaztea maite ez duela onartu ordez eta patu horri aurre egin beharrean, gizabidezkoa ez den jokabidea erakutsiz, saiatuko da bere jarrera justifikatzeko «zilegitasunen» bat bilatzen, eta horren bidez arrazoi

duela erakutsi nahi izango du eta emakumearen gainera egoztziko ditu erruak, desleialtasunaz gainera. Era bertsean jokatzzen du lehia erotiko batean garaile ateratzen denak: aurkariak gutxiago balio behar du, galdu egin duenez. Baina horixe bera da gerra bat irabazten duenaren egoera ere: beti arrazoi izateko grina txar zikoitzari amore emanez, arrazoa bere alde zuelako garaitu duela nahi izaten du-eta. Hori da, halaber, gerraren izugarrikeriengatik moralki jota geratzen denaren egoera: ezin zuela gehiago jasan esan ordez, bere burua zuritu beharrean aurkitzen da eta adierazten du ezin zuela gehiago jasan kausa moralki gaizto baten alde borrokatu beharra. Edota gerran garaituak direnena. Behin gerra bukatu ondoren errudunak nortzuk ziren bilatzen hastea, atso zaharren kontua da; gizartearen egitura da gerra sortzen duena. Jarrera soil eta gizabidezkoa da etsaiari esatea: «Galdu egin dugu gerra, zuek irabazi duzue. Erabakita dago kontua. Mintza gaitezen orain gertakari honetatik atera behar diren ondorioei buruz jokoa zeuden interes materialei dagokionez eta etorkizunerako erantzukizunari dagokionez, hori baita inportantea eta garai-leari bereziki dagokiona». Hori ez den guztia ez da duina, eta lehenago edo geroago ordaintzen da. Nazio batek barka dezake bere interesei egindako kaltea, baina ez ohoreari egindakoa, eta are gutxiago beti-arrazoi-izan-nahi horren atzean dagoen grina txar klerikalak eragindako kaltea. Hamar bat urte geroago azalduko den dokumentu berri orok duintasunik gabeko buila, gorrotoa eta haserrea altxatuko ditu berriro, gerra amaitzean moralki bederen lurperatuta utzi ordez. Objektibotasunez eta gizalegez bakarrik erdiets daiteke hori, eta batez ere duintasunaren bidez. Sekula ez etika baten bidez, egiaz bi alderdien aldetiko duintasunik eza adierazten baitu horrek. Politikariari egiaz dagokionaz, etorkizunaz eta hari dagokion erantzukizunaz arduratu behar duen etika bat galdu egiten da iraganean izan diren erruei buruzko auzi argitu ezin eta hortaz politikoki antzuetan. Hori egitea kulpa politikoa erortzea da, baldin halakorik izan bada. Eta jarrera horrekin

ez da hartzen aintzakotzat, interes oso materialengatik, arazo guztiaren ezinbesteko faltsutzea: garailearen interesa irabazi posible bai moral bai material handiagoak erdiesteko, garaituaren itxaropena bere errua aitortzearen trukean abantailak lortzeko. Baldin munduan ezer gorrotagarririk badago, hortxe dugu adibide bat, izan ere gorrotagarria da «etika» baliatzea «arrazoi izateko».

Zein da, orduan, etikaren eta politikaren arteko benetakoa erlazioa? Litekeena al da haien artean zerikusirik ez izatea, inoiz esaten den bezala? Egia ote da, bestela, etika bat eta bakarra dagoela, balio duena jardun politikorako zein beste edozein jardunerako? Batzuetan pentsatu izan da azken bi baiespen hauek kontrajarriak direla beren artean; bata edo bestea bakarrik izan daitekeela egiazkoa, baina ez biak. Baina egia ote da munduan etika bat eta bakarra egon litekeela eduki bereko araua ezar diezaiekeena harreman erotiko, merkataritzako, sendiko eta profesionalei, eta emaztearekiko, barazki-saltzailearekiko, semearekiko, aurkariarekiko, adiskidearekiko edo salatuarekiko erlazioei? Egia ote da berdin diola guztiz politikara zuzentzen diren etikaren eskakizunei dagokienez, politikak ekimen-baliabide berezizat edukitzea boterea, haren ostean indarkeria eta bortxa egonik? Ez al dugu ikusten boltxebikeek eta espartakistek edozein diktadore militarren emaitza berberak lortzen dituztela, hain zuzen ere politikako tresna berberaz baliatzen direlako? Zertan bereizten da, ez bada boterearen titularraren pertsonan eta haren amateurismoan, langile- eta soldadu-kontseiluen dominazioa antzinako erregimeneko beste gobernari edozeinen dominaziotik? Zertan bereizten da beste demagogoenetik gaur ustezko etika berriaren ordezkarien zati handienak beren aurkariekin daukaten eztabaida? Asmo zintzoan, esango da. Baina hemengo gaia bitartekoak dira. Gure etsaiek ere sines ten dute, kontzientzia guztiz onberaz, beren asmo propioen zintzotasunean. «Ezpataz hiltzen duena, ezpataz hilko da» eta borroka beti da borroka. Zer esan, orduan, Mendiko Hitzal-

diko etikaz? Mendiko Hitzaldia, hau da, Ebanjelioko etika absolutua, hango mandamenduak aipatzen dituztenek pentsatzen dutena baino zerbait serioagoa da. Ez da txantxetan hartzekoa. Etika horri buruz esan daiteke zientziak kausalitateari buruz esan duena, alegia ez dela orga bat geldiaraz daitekeena nahierara hartu edo uzteko. Bere osoan onartzen da edo uko egiten zaio; horixe da izan ere duen zentzua; beste era batean jokatzea, hura hutsal bihurtzea da. Pentsa dezagun, adibidez, gazte aberatsaren parabolan, hari buruz esaten baita «tristeturik joan zen handik, ondasun asko zituelako». Ebanjelioko agindua baldintzarik gabea eta unibokoa da: «eman pobreei daukazun guztia». Politikariak horretaz esango du gizarte mailan zentzurik ez duen aholku bat dela, den-denei ezartzen ez zaien bitartean. Hortaz, zerga-konfiskatzaileetara, konfiskatze soilera joko du: hitz batean, bortxara eta guztia arautzera. Ez da hori, ordea, agindu etikoak inondik ere eskatzen duena, eta hauxe da haren benetako muina. Mandatu horrek «beste masaila ere ipintzea» agintzen digu, baldintzarik gabe, besteak gu jotzeko eskubiderik ba ote duen gure buruei galdetu gabe. Eta hori, horrela, duintasunik ezaren etika bat da... santuentzat izan ezik. Horrekin esan nahi dut ezen denetan bat santu bada, asmoei dagokienez gutxienez, eta Jesus, apostoluak, San Frantzisko eta haien antzeko beste batzuk bezala bizitzen bada, orduan etika hau, bai, zentzuz beterik dagoela eta duintasun handi baten adierazpen dela, baina ez hala ez bada. Etika akosmikoak izan ere agintzen digu: «ez aurre egin gaizkiari indarrarekin», baina politikariarentzat balio duena kontrako agindua da: «gaizkiari indarrarekin aurre egin behar diozu, bestela haren garaipenaren erantzukizuna zurea izango da». Ebanjeliorearen moralaren arabera jokatu nahi duenak gorde egin behar du greba batean parte hartzetik, behartzeko era bat delako, eta sindikatu hori batean sartu beharko du. Eta batez ere, «iraultza» aipatzetik gorde behar du. Etika horrek irakasten baitu ez dela gerrarik, are gutxiago anaiarteko gerrarik, zilegi denik. Ebanjeliolari

jarraiki jokatzen duen bakezalea armak ez hartzera edo, Alemanian gerra amaitzeko eta harekin batera gerra orori amaia emateko gomendatu zen bezala, armak uztera beharturik sentituko da moralki. Baina politikariak, bere aldetik, esango du gerrari aurrez ikusteko moduko etorkizun osorako entzutea kentzeko bide bakarra *statu quo* delakoari eutsiko liokeen konpromisozko bake bat zatekeela. Orduan herriek galdetuko zuketena ea zertarako balio izan duen gerrak. Absurdora laburbilduko zen, baina hori orain ezinezko da, garaileentzat izan ere, haietako zati batentzat behintzat, politikoki errentagarria izango zen. Eta horren erantzukizuna erresistentzia orotarako ezgauza bihurtzen gaituen jarrera horrek darama. Orain, eta behin nekea pasatu ondoren, entzuterik gabe bakea geratuko da, ez gerra. Etika absolutuaren ondorioetako bat.

Azkenik, egiaren obligazioa. Baldintzarik gabea da etika absolutuarentzat. Hortik ondorioztatu da ezen dokumentu guztiak argitaratu behar direla, bereziki norberaren lurraldeari dagozkionak eta, alde bateko argitalpenetan oinarriturik, norberaren erruen aitortpena egin behar dela, orobat alde batekoa, baldintzarik gabea, ondorioetan pentsatu gabe. Politikaria konturatuko da era horretan jokatuz ez zaiola laguntzen egiari, baizik eta, aitzitik, gehiegikeriarekin eta grinak askatzearekin ilundu egiten dela. Ikusiko du ezen ikerketa ongi planteatu eta osatu batek, alderdikierarik gabeko pertsonen eginak, eman dezakeela fruiturik. Eta, aitzitik, bestelako jokamolde batek, hura jarraituko duen nazioarentzat, urtetan ezabatu ezingo diren ondorioak izan ditzakeela. Etika absolutuak, bere aldetik, ez du galdetu ere egiten ondorioei buruz.

Sineste sendoaren etika eta erantzukizunaren etika

Hortxe dago puntu erabakigarria. Garbi ikusi behar dugu ekintza etikoki orientaturiko orok funtsean haien artean ezberdinak eta erremediorik gabe kontrajarriak diren bi esakunetara egokitu behar duela: edota «sineste sendoaren etikaren» arabera orientatu behar du, edota bestela «erantzukizunaren» arabera orientatu behar du.

kizunaren etikaren» arabera. Egiaz sineste sendoaren etika ez da erantzukizun ezaren pareko, edota erantzukizunaren etika sineste sendoaren pareko. Hori ez dago esan beharrik ere. Baina sekulako aldea dago (erlijiosoki mintzatuz) «kristauak zintzo jokatzan du eta Jainkoaren eskuetan uzten du ondorioa» agintzen duena bezalako sineste sendoaren etikaren esakunearen arabera jokatzearan eta pentsatzekoak diren ekintza beraren ondorioak kontuan hartzeko agintzen duen bezalako erantzukizunaren etikaren esakunearen artean. Zuek argi diezaiokezue elokuentziaz sindikalista bati bere ekintzen ondorioak erreakzioaren posibilitateak ugaltzeko izango direla, bere klasearen zapalkuntza gehitzeko eta haren igoera eragozteko; baldin sindikalista bat sineste sendoaren bere etikan irmo badago, horrek ez dio inolako zirrarak eragingo. Sineste sendoaren etika baten arabera egindako ekintza baten ondorioak txarrak direnean, egin zuenak ez du haiekiko erantzukizunik sentitzen, munduari egotzen dio erantzukizuna, gizakien ergelkeriari edo gizakiak halakoak egin dituen Jainkoaren borondateari. Aldiz, erantzukizunaren etikaren arabera jarduten duenak gizaki arruntaren akatsak kontuan hartzen ditu. Fichtek zuzen dioten bezala, ez du eskubiderik batere gizakia ona eta perfektua dela uste izateko eta ez du bere burua sentitzen berak aurrez ikusi ahal ezin izan zituen ondorioak beste norbaiten gainera botatzeko egoeran. Hala esango du: «ondorio horiek nire ekintzari egotzi behar zaizkio». Sineste sendoaren etikari jarraiki jokatzan duenak, aldiz, sineste sendo soilaren zuzia, adibidez antolaketa sozialaren injustiziaren kontrako protestaren zuzia, iraungi ez dadin erantzukizuna izango du bakarrik. Behin eta berriz piztea izango da haren ekintzen xedea, zeintzuk, arrakasta posiblearen ikuspuntutik, erabat zentzugabeak diren eta eredu-balio soila eduki dezaketen eta eduki behar duten.

Halaz ere, ez dugu oraindik arazoa amaierara eramán. Munduko inolako etikak ekidin dezake ezen xede onak erdies-

teko sarri baliabide moralki zalantzazkoak, edo arriskutsuak bederen, erabili behar direla, albo-ondorio moralki txarrak izateko posibilitatea, are probabilitatea ere dutenak. Munduko inolako etikak erabaki dezake, areago, noiz eta zein neurritan geratzen diren «santutuak» xede moralki onaren bidez baliabide eta albo-ondorio moralki arriskutsuak.

Politikaren baliabide nagusia bortxa da, indarkeria, eta bitartekoen eta xedeen artean ikuspuntu etikoaren arabera dagoen tentsioa ikus dezakezue gogoan hartuz, adibidez, gordin-gordin era honetan formula dezakegun printzipio baten arabera gobernatzen ziren sozialista iraultzaileen kasua (Zimmerwald joera): «Orduan, iraultza ekarriko duten gerra-urte batzuk gehiagoren edo hura eragotziko duen berberritiko bakearen artean hautatu behar badugu, nahiago ditugu gerra-urte horiek». Hurrengoa, «Zer ekar lezake iraultza horrek?» galderari sozialista zientifikoki hezi orok erantzungo ziokeen esanez pentsatu ere ezin pentsa daitekeela ekonomia sozialista batera, berak hitzari ematen dion zentzuan, pasatzean, baizik osagai feudalak eta hondar dinastikoak bakarrik kenduko zituzkeen ekonomia burges baten berreraikitzean. Eta ondorio apal hori lortzeko, beraz, «nahiago gerra-urte batzuk gehiago»! Oso ongi esan zitekeen ezen, sineste sozialista oso irmoak eduki arren, uko egin da kiokeela halako bitartekoak eskatzen dituen xede bati. Horixe da, ordea, boltxebismoaren, espartakismoaren eta, oro har, sozialismo iraultzaile ororen egoera, eta, hortaz, oso barregarri gertatzen da alde honetatik haiek antzinako erregimeneko «indarkeriaren politikariak» moralki kondena ditzaten bitarteko horiek berak erabiltzeagatik, haien xedeen gaitzespena guztiz justifikatua badago ere.

Puntu honetan, xedeak bitartekoen bidez santutzearen arazo honetan, badirudi derrigorrezkoa dela sineste sendoaren moral orok huts egitea. Egiatan, bitarteko moralki arriskutsuak baliatu behar dituen ekintza oro gaitzestea beste posibilitaterik ez da geratzen, noski. Errealitateen mailan be-

hin eta berriro ikusten dugu ezen sineste sendoaren etikaren arabera jokatzeko dutenak bat-batean profeta kiliastiko bihurtzen direla; ikusten dugu, adibidez, behin eta berriro «maitasuna indarraren aurrean» predikatu dutenek ondoren segituan indarra deitzen dutela, berarekin bortxa edo indarkeria ororen deuseztapena ekarriko duen azken indarra hain zuzen ere, eta horixe bera ikusten da eraso orotan gure ofizialek soldaduei esaten zieten hitzetan, alegia azken eraso zela, garaipea ekarriko zuena eta harekin bakea. Sineste sendoaren etika baten arabera jokatzeko dutenak ez du jasaten munduaren zentzugabetasun etikoa. «Arrazionalista» kosmiko-etikoa da. Dostoiwskiren obra ezagutzen duzuenok gogoan izango duzue, honi dagokionez, Inkisidore Handiaren eszena: hitz oso sakonetan planteatzen da arazo hau. Ezin sar daitezke zaku berean sineste sendoaren etika eta erantzukizunaren etika, ezinezko den bezala etikak erabakitzea zein helburuk santifika ditzaketen bitarteko hauek hala bestek, nolabait printzipio honi amore eman nahi zaionean.

Etika erlijiosoa eta politika

Nik bere uste sendoen zinezkotasun zalantzarik gabegatik pertsonalki estima handian daukadan baina politikari bezala guztiz gaitzesten dudan nire kide F.W. Foerster-ek zailtasun hau salba dezakeela uste du bere liburu ezagunean azaltzen digun tesi sinplearen bidez, alegia «onetik ona baino ezin etor daiteke eta txarretik txarra baino ez» dioen tesiaren bidez. Hori hala balitz, arazoa ez litzateke azalduko, noski; baina harrigarria da tesi hori argitara daitekeenik gaur egun, Upnishadak baino bi mila eta bostehun urte geroago. Bai historia unibertsaleko ibilbide osoak, bai egunoroko esperientziaren azterketa inpartzialak kontrakoa erakusten digute. Munduko erlijio guztien garapena oinarritzen da egia kontrakoa dela esatean. Teodizeako arazo zaharrena, hain zuzen ere, arazo hau da: Nolatan gertatu da indar bat, ahalguztidun eta errukitsua dena une berean, merezi gabeko sufrimendua, zigorrik

gabeko injustizia eta zuzendu ezinezko ergelkeria besterik ez duen mundu zentzugabe baten egile izatea? Edo ez da egia bata, edo ez da egia bestea, edota metafisikoki bakarrik uler daitezkeen edo gure ulerpenetik erauziak dauden baketze- eta zigortze-printzipio batzuek zuzentzen dute bizitza. Munduaren zentzugabetasunaren arazoa izan da bilakaera erlijioso guztia bultzatu duena. Karmaren doktrina hindua, dualismo pertsiarra, jatorrizko bekatua, predestinazioa eta *Deus absconditus* delakoa, denak esperientzia honetatik sortu dira. Lehen kristauek ere ongi zekiten munduan deabruak agintzen dutela eta politikan sartzen denak, hau da, boterea eta bortxa bitarteko bezala erabiltzeari baiezkoa ematen dionak, deabruarekin itun bat egin duela, halako moduan non jadanik ez den egia haren jardueran onak ona baino ez duela ekartzen eta txarrak txarra, baizik sarri kontrakoa gertatzen dela. Hori ikusten ez duena haur bat da politikoki.

Etika erlijioso bakoitza bere erara egokitu da lege desberdinen pean dauden bizi-antolakuntza desberdinetara. Politeismo helenikoak opariak eskaintzen zizkien Afroditari eta Herari, Apolori eta Dionisosi, eta ongi asko zekien ugarriak zirela haien arteko liskarrak. Bizi-antolakuntza hinduak lanbide bakoitzari lege etiko berezi bat ezarri zion, *dharma* bat, eta kasta desberdinetan banatu zituen betiko. Hierarkia finko batean jarri zituen, eta haietako batean jaiotakoek ezin zioten horri ihes egin, ez behintzat hurrengo bizitza batera berriro jaio arte, eta era horretan salbazio erlijiosoko ondasun gorenetatik urruntasun desberdinetan ipini zituen. Era honetan, kasta bakoitzaren *dharma* eraikitzea posible zaio, aszeta eta *brahmanetatik* hasi eta lapur eta prostituetara, lanbide bakoitzaren barneko legezketasun propioaren arabera. Bhagavag-en, Krisnaren eta Arjunaren arteko elkarrizketan aurkituko duzue non kokatzen den gerra bizi-antolakuntzaren osotasunaren barruan. «Egizu beharrezko lana», hau da, agindutako lana, gudarien kastako *dharma*ren arabera, gerraren xedearen arabera objektiboki beharrezko

den lana; horrek ez dio kalterik egiten salbazio erlijiosoari sineste horren arabera, areago lagundu egiten dio. Indraren zerua beti segurtatua zegoen heroien gisan hildako guda-ri hinduarentzat, Walhall germaniarrentzat zegoen bezala. Baina, haiek nirvana mespretxatuko zuten, germaniarrek zeru kristaua eta aingeruen koruak mespretxatzen zituzten bezala. Espezializatzete honek bidea eman zion etika hinduari etenik ez duen politika egiazko baten trataerarako, haren lege propioa segitzera mugatzen delako eta, areago, indartu ere egiten duelako. Makiavelismoa, ildo benetan erradikala den aldetik hitzaren zentzu arruntan, literatura hinduan Kautilya-ko Arthashastra-k (Kristo aurrekoa luzaz, Chandraguta-ren garaikoa) ordezkatzeko du; haren aldean Makiaveloren «Printzea» erabat inozoa gertatzen da. Etika katolikoan —eta hortik hurbil dago Foerster irakaslea— *consilia evangelica* direlakoek etika berezi bat osatzen dute bizitza santuko karismaz horniturik daudenentzat. Horien artean daude, ez odolik isuri ez irabazirik bilatu behar ez duen lekaideaz aparte, zaldun kristaua eta hiritar jaierratsua, biak ere odola isuri eta irabaziak bila ditzaketanak. Etikaren sailkatzea eta haren integrazioa salbazioaren doktrina batean ez da Indian bezain kontsekuentea, baina hala izan behar zuen, fede kristauari jarraiki. Jatorrizko bekatuak mundua usteldu izanak aukera nahikoa erraza ematen zuen etikan bortxa sartzeko, arima arriskuan jartzen duten bekatua eta heresiak borrokatzeko. Mendiko Hitzaldiaren eskakizun akosmikoak eta haietan bermatzen den eta eskakizun absolutuak dauzkan Zuzenbide Naturalak, bi-biek beren indar iraultzailea gordetzen dute, ordea, eta zirrara sozialeko garai kasik guztietan amorrutik azalerraten dira. Sekta bereziki erradikal bakezaleak sortu ziren: haietarik batek Pennsylvanian kanporako bortxarik ez zuen estatu baten esperimendua egin zuen eta emaitza tragikoa izan zen, hain zuzen ere kuakeroak, independentziako gerra piztu zenean, armak ezin harturik geratu ziren, eta ezin izan zuten parte hartu beren ideien garapena

ekarriko zukeen borrokan. Protestantismo arruntak, ordea, estatua zilegitu zuen, eta horrekin batera indarkeria; bereziki estatu autoritarioaren zilegitasuna zuritu zuen, eta erakunde jainkozko bihurtu. Luterok gizaki bakoitzaren bizkarretik gerraren erantzukizun etikoa kendu zuen agintaritzaren gainean ipintzeko, hari gauza guztietan, fedezkoetan izan ezik, errudun izan gabe obedi dakiokkeelarik. Kalvinismoak bere aldetik onartu zuen oinarrizko printzipiotzat indarra erabiltzearen zilegitasuna, fedea defendatzeko baliabide bezala hain zuzen, hau da, erlijio-gerra defenditu zuen, Islamen hasieratik bertatik funtsezko osagaitzat hartua izan zen erlijio-gerra. Ikus daitekeenez, ez da fede gabezia modernoa, berpizkundeko heroiarekiko kultutik sortua, etika politikoaren auzia piztu duena. Erlijio guztiek, arrakasta handiagoz edo txikiagoz, izan dute borroka hori; eta esan dugun bezala, ezin izan zitekeen bestela. Politikako arazo etiko guztiak baldintzatzen dituen berezitasuna datza beraz giza taldeek eskura duten bortxa zilegiaren baliabide propioan.

Bitarteko honekin itunik egiten duena, edozein xedetarako egiten duela, eta hau da politikari orok egiten duena, haren ondorio bereziak jasatera kondenaturik dago. Kondenatu hau dator batez ere bere fede erlijioso edo iraultzailearen alde borrokatzen duenaren gainera. Har dezagun gaurko garaia adibide gisan. Botereaz baliaturik munduan justizia guztizkoa ezarri nahi duenak jarraitzaileak behar ditu horretarako, giza «aparatu» bat. Horrek funtzionatuko badu, barneko eta kanpoko beharrezko sariak —zerukoak edo lurrekoak— ipini beharko zaizkie jarraitzaileei begien aurrean. Klaseen borroka modernoaren baldintzen artean, barneko saritzat eskaintzen da gorrotoa eta errebantxa-irrika asetzea, eta batez ere erresumina eta arrazoi izatearen grina pseudo-etikoa asetzea; hau da, eskaintzen da etsaiari izen ona kentzeko premia eta hura heresiagatik salatzekeo premia asetzea. Kanpoko bitarteko bezala eskaini behar dira abentura, garraipena, bilkina, boterea eta prebendak. Aparatu honen fun-

tzionamenduaren mende dago guztiz buruzagia, eta horregatik aparatuaren, ez bere zergatien, mende dago. Beraz, sari horiek etengabe segurtatuko ditu buruzagiak behar dituen jarraitzaileak, alegia guardia gorriak, bihurriak eta asaldatzaileak. Egoera horretan, haren ekintzaren emaitza ez dago haren eskuetan, aldiz bere jarraitzaileen zergati etiko, funtsean doilor horiek ezartzen dizkiote; jarraitzaileok bridatu daitezke bakarrik baldin hauetako zati bat gutxienez, mundu honetan ez baita sekula izango gehiengoa, haren pertsona eta haren kausan fede noble batez animatua badago. Baina subjektiboki zinezkoa bada ere, kasurik gehienetan fede hau ez da mendeku-, botere-, bilkin- eta prebenda-irrikaren zilegitzea baino, (ez gaitezen engaina, historia ulertzeko molde materialista ere ez da hartu eta nahierara uzten den organo bat eta ez da iraultzaren egileen aurrean gelditzen), iraultza emozionalaren ondoren, aldiz, eta batez ere, ohiko egunerokotasuna ezartzen da berriro: fedeko heroiak eta fedea bera desagertu egiten dira edo, oraindik eraginkorragoa dena, bihurrien eta politikako teknikoaren fraseologiako atal osagarri bihurtzen dira. Bilakaera hori era bereziki azkarrean gertatzen da lehia ideologikoetan, benetako buruzagiek, iraultzaren profetek zuzenduak edo iradokiak izan ohi direlako. Hemen, buruzagitza baten mende jarritako aparatu orotan, arrakastarako baldintzetako bat pobretze espirituala da, gauza bihurtzea, proletarizazio espirituala diziplinaren mesedetan. Buruzagi ideologiko baten segizio garailea era honetan azkartasun bereziz bihurtu ohi da prebendadunen talde guttiz arrunta.

Amaia: politika erreala

Politika oro har egin nahi dezanak eta, batez ere, politika lanbide bezala egin nahi dezanak paradoxa etiko hauen eta bera, haren eraginaren pean, bihur daitekeenagatiko erantzukizunaren kontzientzia eduki behar du. Berriro diot ezen, politika egiten duenak botere ororen inguruan zela-

tan dauden deabruzko botereekin itun bat egiten duela. Lagun hurkoarekiko maitasunaren eta Nazaretako, Asisko edo Indiako errege-palazioetako ontasun akosmikoaren bertutetsu handiek ez zuten jokatu bitarteko politikoekin, bote-rearekin. Haien erresuma «ez zen mundu honetakoa», han eraginik izan bazuten ere eta baduten ere. Platon, Karatajev edo Dostoiewskiren santuak oraindik dira erreprodukzio egokiak. Norberaren eta gainerakoen arimen salbazioa birlatzen duenak ez dezala bilatu politikaren bidetik, honen egitekoak, oso bestelakoak izaki, indarraren bidez baka-rrik gauzatu baitaitezke. Politikaren jeinuak edo deabruak, maitasunaren Jainkoarekin, kristauen Jainkoa bere eliz itxuratzearekin barne, tentsioan bizi dira, eta tentsio hori irtenbiderik gabeko gatazka bihur daiteke etengabe. Elizaren nagusigoaren garaian jada ongi zekiten hori gizakiek. Behin eta berriro erortzen zen Aita Santuaren interdiktua Florentziaren gainean —eta garai horretan gizakientzat eta haien arimen salbaziorako Fichtek Kanten epai etikoaren onarpen hotza deitzen duenak baino aginte handiagoa esan nahi zuen—, hango hiritarrek, halere, Elizaren Estatuena kontra borrokatzen segitzen zuten. Halako egoerei dagokie-nez Makiavelok bere pasarte ederretako batean, oker ez ba-nago Historia Florentziarretan, bere heroietako bat jartzen du aberria beren arimen salbazioa baino gorago ipintzen duten hiritarrak ohoratuz.

Sorterria edo aberria jarri ordez, garai hauetan behar-bada ez dutenez esanahi bera guztientzat, jartzen baduzue sozialismoaren etorkizuna edo nazioarteko bakea, arazoa gaurko eran planteatua edukiko duzue. Ekintza politikoaren bidez lortu nahi den orok, bortxazko bitartekoak erabiltzen dituen eta erantzukizunaren etika jarraiki jokatzen duen orok, arimaren salbazioa jartzen du arriskuan. Gisa honetako helburu bat lortzen saiatzean borroka ideologiko batean eta si-neste sendoaren etika soil batekin, helburu hori kaltetua gerta daiteke eta entzutea galdua belaunaldi askotarako, hura lortu

nahirik ondorioei dagokienez erantzukizuna kontuan eduki ez zelako.

Izan ere, horrela jokatzen duenak ez dauka jokoan dau- den deabruzko ahalmenen kontzientziarik. Ahalmen horiek errukigabeak dira eta haren jarduerarengan bezala haren ari- marengan eragina izango duten ondorioak ekarriko dituzte, eta haien aurrean babesik gabe geratuko da ikusten ez baditu. «Zaharra da deabrua» esaldian ez dira aipatzen urteak, ezta adina ere: «egin zaitez, bada, zahar, hura ulertzeko». Ni ez naiz sekula aztoratu eztabaida batean jaiotze-datagatik. Baina batek hogeit urte dituela eta nik berrogeita hamarretik gora, horrek ezin eraman nazake, azken batean, pentsatzera gazte- tasuna arrakasta bat dela eta haren aurrean izu-laborriz dar- darka jartzera. Erabakigarria ez da adina, bizitzako errealita- teak aurrez aurre begiratzeko gaitasun hezia, haiek jasatea eta haiei aurre egiteko gai izatea baizik.

Egia da politika buruaz egiten dela, baina inolaz ere ez buruaz bakarrik. Arrazoi osoa dute horretan sineste sendoaren aldekoek. Baina inork ezin agindu dezake ea eran- tzukizunaren etikaren arabera edo sineste sendoaren arabera jokatu behar den, edo noiz bataren eta noiz bestearen arabera. Gauza bakarra esango dizuet: zuek antzutzat jotzen ez du- zuen kitzikapen-garai honetan —kitzikapena ez da funtsean, ez beti, egiazko grina— bat-batean ikusten ditudanean azal- tzen sineste sendoaren politikariak nahasmenduaren erdian garraisika: «mundua ergela eta doilorra da, baina ni ez; ondo- rioen erantzukizuna ez dagokit niri, baizik nire gaintetik dau- den horiei, zeinentzat nik lan egiten dudan, haiek eta haien ergelkeria eta doilorkeria erauziko ditut nik», lehenbiziko gauza da zalantzan jartzea sineste sendoaren etika horren os- tean dagoen barne-trinkotasuna. Hamarretik bederatzitan iru- ditzen zait egiten ari direna egiaz sentitu ez, baizik sentsazio erromantikoekin sutzen diren haizez beteriko zahagiei aurre egiten diedala. Gizaki bezala ez zait hori interesatzen eta ez nau hunkitzen batere. Aldiz, zinez hunkigarria da gizon heldu

(berdin dio urte gutxiko edo askoko) baten jarrera, ondorioe-kiko erantzukizuna egiaz eta arima osoz sentitzen duena, eta une jakin batera iritsita esaten duena: «nik ezin dut gehiago, hementxe gelditzen naiz». Hori bai dela gizakiari benetan dago-kion zerbait eta hori bai sartzen dela sakon barnera. Egoera hori edozein unetan barnetik hila ez dagoen gutariko edozeini ager dakioke. Ikuspuntu honetatik erantzukizunaren etika eta sineste sendoaren etika ez dira termino guztiz kontrajarriak, elkarren artean osatzen diren osagarriak baizik, egiazko gi-zakia, politikarako bokazioa izan dezakeen gizakia hezteko elkartu behar direnak. Eta orain, entzule maiteok, auzi honi buruz hamar urte barru hitz egitera deitzen dizuet. Baldin or-duan —tamalez arrazoi asko dauzkat beldur izateko— den-bora asko badaramagu erreakzioak menderatzen gaituela eta zuetariko askok beharbada, eta nik, sarri aitortu dudanez, desiratu eta itxaron dugunetik —seguruenera horrek ez nau desegingo, baina zama handia da horrela izango dela jaki-teak— oso gutxi edo beharbada ezertxo ere ez dela egiaztatu, atsegin handia izango dut jakiteko zer «gertatu den» hitzaren zentzu barnekoan zuen artean orain «sineste sendoaren poli-tikari» egiazko sentitzen eta gaurko iraultzaren mozkorreen parte hartzen dutenekin. Ederra litzateke oso baldin Shakespea-rek 112. sonetoan esaten duena haiengatik esana izango balitz: «Garai hartan udalehen zen eta orlegia gure maitasuna, orduan agurtzen nuen bera nire abestiaz, horrela abesten du urretxindorrak udaren loratzean eta isiltzen du kantua eguna aurrera doanean».

Baina gauzak ez dira horrela. Gure aurrean ez daukagu udaren loratzea, baizik hasteko poloko gau bat izotzezko ilun-tasan eta gogortasunezkoa, edozein direlarik ere orain garai-tzen duten taldeak. Ezer ez dagoen lekuan, izan ere, ez bakarrik enperadorea da bere eskubideak galtzen dituen, baizik baita proletarioa ere. Gaua astiro-astiro argitzen joango denean, nor biziko da gaur itxuraz udalehena hain loretan dutenen artetik? Eta zer gertatuko zaie haiei guztiei barnean? Mingostasunean

edo hanpatze hutsean erorita egongo dira, edo hirugarren bide bat segituko dute, ez baita hain bakana ere: mundutik ihes mistikoarena horretarako gaitasuna dutenentzat edo (hau da ohikoena eta txarrena) modari jarraitzeko bide hau hartzen dutenentzat. Kasu hauetako edozeinetan, ondorio bezala aterako dut ez daudela prestaturik beren egitekoa egiteko, ezta den bezalakoa den mundurako ere, ezta egunoroko bizitzarako ere. Objektiboki eta egiaz ez zeukaten, zentzu sakonean, eduki uste zuten bokazio politikorik. Hobe zuketean besterik gabe gizakitik gizakirako senidetan arduratu izan balira eta beren egunoroko lanera jarri izan balira.

Politikak esan nahi du grinaz eta neurritasunez ohol gorrak astiro eta gogorki zulatzea. Egia da guztiz, eta hala egiaztatzen du historiak, mundu honetan ez dela erdiesten sekula posible dena, ezinezkoa behin eta berriro bilatzen ez bada. Baina hau egiteko gaitasuna ez da sortzen buruzagi soilak izan nahi izatetik, areago, sortzen da heroia, hitzaren zentzu sotilenean, izan nahi izatetik. Eta ez bata ez bestea ez direnek ere itxaropen guztien deuseztapena jasateko indarra ematen duen sendotasuna berenganatu behar dute, gaur oraindik posible dena bera ere gauzatzeko ezgauza bihurtu nahi ez badute. Bere ikuspuntutik, berak eskaintzen dionaren aurrean mundua ergelegia eta doilorregia azaltzen denean ez dela hautsiko ziur dagoenak bakarrik, honen guztiaren aurrean hala eta guztiz ere erantzuteko gauza denak, horrek bakarrik dauka politikarako bokazioa.

ZIENTZIA, LANBIDE BOKAZIO

Zuen nahiari jarraiki «Zientzia, lanbide» gaiaz hitz egin behar dut. Badugu ekonomista nazionalok pedantekeria jakin bat, alegia gu kanpoko erlazioetatik hasi ohi garela. eta horri eutsi nahi nioke nik hemen. Hortaz, galdera honetatik hasiko naiz: Zein itxura dauka zientziak lanbide bezala, hitzaren zentzu materialean? Horrek funtsean zera esan nahi du: Zein itxura dauka bizitza akademikora profesionalki dedikatu nahi duen graduatu baten egoerak? Berezitasun alemaniarra alor honetan zertan datzan ulertu ahal izateko konparazio bidez jokatzeari komeni da, eta auzi honetan gure ereduarekin alde handiak dituen kasua ekarriko dugu, Estatu Batuetakoa, alegia.

Jakina denez, gure artean lanbide zientifikora dedikatu nahiko lukeen gazte baten karrera —edozeinek dakienez— «*privatdozent*» bezala hasten da. Espezialitateko arduradunarekin hitz egin eta haren baietza jaso ondoren, jatorrizko obra bat aurkeztu eta unibertsitate jakin batean aztertua dadin ipiniz kalifikatzen da; eta han, soldatarik gabe eta ikasleen matrikulatik ateratzen den diru soiletik biziz, berak finkatzen dituen ikasketak irakats ditzake *venia legendi* delakoaren mugen barruan.

Amerikan era guztiz bestelakoan hasten da ibilbide akademikoa, *assistant* izendatzearekin batera. Gure artean natur zientzietako eta medikuntzako fakultateetako institutu handietan gertatzen den gisa bertsuan, non *privatdozent* bezala formalki habilitatzea gutxi batzuek, eta sarri oso berandu

gainera, irrikatzen duten. Diferentzia horrek zera esan nahi du praktikan: gure artean zientzietako gizaki baten ibilbidea baldintza plutokratikoetan oinarritzen dela. Izan ere, ausardia handia behar du inolako ondasunik ez duen zientifiko gazte batek lanbide akademikoak dituen baldintzei aurre egiteko. Urte batzuetan gutxienez bere baliabideekin bizitzeko gauza izan behar du, gerora bizitzeko aukera emango dion postua erdiesteko segurtasunik gabe. Estatu Batuetan, aldiz, sistema burokratikoak agintzen du. Mutilak hasieratik jasotzen du soldata, apala halaz ere, kopuruz gehienetan erdi mailan kualifikaturik dagoen langile batek jasotzen duenaren parekoa apenas. Edozer delarik ere, itxuraz egoera tinkoa du hasieratik, soldata finkoa jasotzen duenez. Gure laguntzaileekin gertatzen den bezala, arauak dio kanporatua izan daitekeela, eta gupidarik gabe kanporatua izango dela espero dezake baldin berarengan ipini ziren usteak betetzen ez baditu. Itxaropen hori «aretoa betetzeko» gaitasunari lotua dago. Ezin gerta lekioke halakorik *privatdozent* alemaniar bati. Behin izendatua denean, ezin kanpora dezakete. Ez dauka eskubiderik noski. Baina badu itxaropentxo bat, alegia, baldin urtetan lanean jarduten badu, eskubide moral moduko bat baduela eta bera kontuan hartuko dutela. Baita —eta honek badu garrantzia— beste *privatdozenten* habilitazioetan ere. Auzia da ea hala eskaturik gai direla ongi frogatua duten graduatuak habilitatu behar diren edo ea «irakaskuntzako premiak» agindu behar duen, hau da, bertan dauden irakasleei eman behar zaien irakaskuntzako monopolioa; dilema neketsua da zinez, eta hori aurki aipatuko dugun lanbide akademikoaren aurpegi bikoitzarekin dago loturik. Gehienetan bigarrenaren alde erabaki ohi da. Horrek, ordea, irakasle ordinarioak, subjektiboki zinez kontzientziaz jokatu arren, bere ikasleak hobesteko arriskua dakar. Dena esateko, nik neure aldetik printzipio hau jarraitu dut, alegia nirekin graduatu direnek probak eta gaitasuneratzeko prozesua beste irakasle batekin eta beste unibertsitate batean egin behar izan dituzte. Printzipio honen ondo-

ria, ordea, izan da ezen nire ikaslerik onenetako bat zapuztua gertatu zela beste unibertsitate batean, inork ez baitzuen han sinetsi nahi hori zenik arrazoia habilitazioa han egiteko.

Bada oraindik beste alde bat gure sistemaren eta amerikarraren artean: gure artean, oro har, nahi baino gutxiago arduratu behar du *privatdozentak* ikasgaiak irakasteaz. Printzipioz bere espezialitateko gai guztiei buruz klaseak emateko eskubidea dauka, baina *dozent* zaharragoengana begirune falta izugarritzat joko litzateke hau, eta oro har titularrak ematen ditu ikasgai handiak, eta *privatdozentak*, berriz, bigarren mailako arazoei heltzen die. Abantaila da libre dauzkala bere gaztaroko urteak —nahiz eta ez izan guztiz hala nahi duelako— lan zientifikoa egiteko.

Amerikan, printzipioz, beste era batera daude antolatuak gauzak. Soldata jasotzen duenez, lehen irakasle-urtetik hasita irakaskuntzan lanpeturik aurkitzen da zientifiko gaztea. Germanistikako sailean, adibidez, irakasle ordinarioak hiru ordu-klase emango ditu astean Goetheri buruz, eta horrekin aski izango du; laguntzaile gazteak, bien bitartean, pozik egon behar du astean dituen hamabi orduetan alemanaren hasikinak eman ondoren, Uhland-ekin edo antzeko mailako poetekin arduratu ahal badu. Espezialitateko autoritateak dira egitaraua finkatzen dutenak, eta *assistantak* hartara mugatu behar du, gure artean institutuetoako laguntzaileekin gertatzen den bezala. Orain argi ikus dezakegu: unibertsitatea berriki handitzea zientziaren alor zabaletan amerikarraren norabidean doala. Medikuntzako edo natur zientzietako institutu handiak «estatu-enpresa kapitalista» bihurtu dira. Ezin gauza dezakete beren lana hedadura handiko baliabiderik gabe. Eta, hala, enpresa kapitalistak esku hartzen duen leku guztietan gertatzen den gauza bera gertatzen da haietan ere: «langilearen eta produkzioko bitartekoen banatzea». Langilea, gure honetan laguntzailea, estatuak eskura jartzen dizkion laneko baliabideei lotuta dago. Horregatik, irakasle laguntzaileak institutuko zuzendariarekiko duen askatasun

maila lantegiko langile batek berearekiko duena bezain murrizta da, izan ere institutuko zuzendariak pentsatzen du, uste on osoz, institutua berea dela, eta hala balitz bezala jokatu ere jokatzen du egiaz. Irakasle laguntzailearen egoera, beraz, beste edozein proletariorena bezain kolokakoa da, unibertsitate amerikarreko *assistant*arena bezalakoa.

Halabeharraren papera postuak betetzerakoan

Alemaniko unibertsitateetako bizitza amerikartu egin da, gure bizitza guztia bezala bestalde, puntu garrantzitsu askotan, eta bilakaera horrek —guztiz konbentziturik nago— denborarekin eragin gero eta handiagoa izango du, gaur oraindik nire arloan neurri handi batean gertatzen den bezala, artisauak lanabesa (funtsean: liburutegia) berea duenean, antzina artisaua bere lantegiaren jabe zenean bezala. Martxa osoan doa bilakaera.

Abantaila teknikoak zalantzarik gabeak dira, enpresa kapitalista diren eta aldi berean burokratizatuta dauden guztietan bezala. Baina haietan agintzen duen espiritua beste bat da alemaniar unibertsitateetako atmosfera historiko zahar-raren aldean. Izugarriko amildegia dago, kanpoko aldetik bezala barrukotik, halako enpresa unibertsitario kapitalista handi bateko buruaren eta era zaharreko ordinararioaren artean. Alde horrek barneko jarreraren ere badu eraginik, hori gehiago azpimarratu nahi ez badut ere. Barnean bezala kanpoan, unibertsitatearen eraketa zaharra itxura huts bihurtu da. Gelditu eta are handitu egin da ibilbide akademikoko osagai berezi bat: ea halako *privatdonzent* batek, edo nahi bada laguntzaile batek, inoiz lortuko ote duen irakasle ordinarioro oso baten postua betetzea edo institutu baten buru izatea, hori halabeharraren kontua da. Ez da, noski, halabeharra soilik agintzen duena, baina ohi ez bezala agintzen du halabeharrak. Apenas ezagutzen dudan munduan halabeharrak halako paperik duen beste karrera bat. Nik horretaz lasai hitz egin dezaket, zenbait halabeharri eskertu behar baitiot oso gazte nintzela irakas-

gai bateko irakasle ordinario izendatu izana, gai horretan nik baino lan garrantzitsuagoak eginak zituzten ni baino zaharragorik bazegoenean. Esperientzia haren ondorioz, begi zorrotzagoa eduki uste dut askok merezi izan ez duten edo merezi ez duten patua ulertzeko, haientzat halabeharrak kontrako zentzuan jokatu baitu eta jokatzen baitu, gaitasuna izan arren, ez direnez iristen merezi duten postua eskuratzera hautaketa sistema honen erruz.

Halabeharrak, eta ez gaitasunak, halako paper handia jokatzea ez datza soilik eta ez bereziki halako hautaketan, baizik eta, beste askotan bezala, azaldu ohi den giza ahulezian. Ez litzateke bidezkoa izango fakultateetako edo ministerioko giza baliabide urriei leporatzea unibertsitateetako garrantzizko postuak betetzen dituztenen artean erdipurdiko asko izatea. Giza lankidetzako legeei dagokien zerbait da hori, eta kasu honetan korporazio zenbaiten lankidetzat da: proposamena egiten duen fakultatearena eta ministerioarena, alegia. Antzeko gertakari bat izan da mendeetan zehar Aita Santuaren hautaketa: hauxe da kontrola daitekeen halako pertsona baten hautaketaren adibiderik garrantzitsuena. Aukera oso bakanetan ikusi izan da «faboritotzat» jo den kardinala koroatua izatea. Oro har, gogokoen artean bigarren edo hirugarren lekuan zegoenaren burura joan da tiara. Gauza bera gertatzen da Estatu Batuetako presidenteekin ere. Hautagai ezagunen eta ospetsuenak oso gutxitan erdiesten du alderdiaren *nomination* delakoa eta ondoren hauteskundeetako garai-pena; bigarren edo hirugarren lekuan doana da «izendatua» eta ondoren hauteskundeetara joaten dena. Amerikarrek sortu dituzte jada esaldi soziologiko teknikoak giza mota hau izendatzeko, eta zinez jakingarria litzateke, adibide hauetatik abiatuz, borondate kolektibo baten bidez egindako hautaketa baten legeak bilatzea. Ez gara mintzatuko arazo honi buruz, baina ikusi behar da lege horiek baliozkoak direla korporazio unibertsitarioei dagokienez ere, eta ondorioa da ez dela harrigarria sarri okerrak izatea, baizik eta, hala eta guztiz

ere, zuzen asmaturiko izendatzeak hain ugariak izatea. Gauza segurua da erdipurdiko moldakorrak eta karguzaleak direla izendatuak izateko aukera dutenak, izendapenetan, arrazoi politikoengatik, parlamentuek esku hartzen dutenean, lurralde batzuetan gertatu ohi denez, edo, lehen gure artean gertatu ohi zen bezala, erregeek (ondorioa berbera da bi kasuetan) edo orain buruzagi iraultzaile batek.

Ez dago³ bere izendapenaren inguruko eztabaidak gogo onez gogoratzen dituen irakaslerik, gutxitan baitira atseginak, eta, hala eta guztiz ere, ziurta dezaket ezagutzera eman zaidan kasu ugarietan bazegoela borondate onik arrazoi objektibo soilengatik erabakitzeke.

Garbi ikusi behar dira gauzak. Erabaki kolektiboaren bidez gauzaturiko hautaketak gabeziak ditu, baina horiek ez dira arrazoi bakarrak patu akademikoen zorzea hain gorabeheratsua egiten dutenak. Lanbide akademikora deitua da-goela uste duen gazte orok kontzientzia garbia eduki behar du gainera datorkion egitekoak bi alderdi dituela. Ez du aski izango jakintsu bezala kalifikaturik egotea, irakasle ere izan beharko du, eta bi tasun hauek ez dira ezkontzen, ezta gutxiago ere. Pertsona bat jakintsu aparta izan daiteke, eta ezin irakasle txarragoa. Helmholtz edo Ranke bezalako gizonen irakaskuntza-jarduera datorkit gogora, ale bakarrak, biak ere. Gauzak antolatuta dauden bezala, gure unibertsitateak, txikiak bereziki, ikasle kopururik handiena lortzeko borroka barreragian saiatzen dira. Hiri unibertsitarioetan gelak alokatzen dituztenek milagarren ikaslea festak eginez agurtzen dute, baina zuzizko segizio batez ohoratzen dute handikiro kopurua bi milara igoarazten duena. Matrikuletatik datorren sarrera —deblauki esan behar da— katedrarik hurbilenak erakartzeko eran beteak egoteak baldintzatzen du, baina hori alde batera utzita ere, garbi dago kuantifika daitekeen arrakasta-zeinua

3 Hemendik hasi eta hurrengo atalerainokoa nik daukadan alemanezko testuan ez dator, bai, ordea, frantsesean eta gaztelarazkoan (Itzultzailearen oharra)

dela matrikulen kopurua, bai, baina garbi dago, bestalde, kalitate zientifikoa ezin kuantifika daitekeela eta sarri eta besterik gabe berritzaile ausartenei ukatzen zaiela. Ikasle kopuru handiaren ontasun amaigabearen eta balioaren obsesio honi makurtzen zaio guztia. Norbaitengatik esaten denean irakasle txarra dela, gehienetan heriotza akademikoaren pareko da hori, munduko jakintsurik handiena izanda ere. Irakasle onen eta txarren auzia, beraz, ikasle jaunek beren maiztasunarekin ohoratzen dutenentz, horren esku dago, eta gauza jakina da ikasleak katedra jakin batera etortzea, kasik pentsatu ezinezko neurrian, kanpoko baldintzen mende dagoela, esate baterako irakaslearen jitearen edo haren ahotsaren mende. Esperientzia nahikoa eta gehiago batek eta ilusiorik gabeko gogoeta batek kurtso masiboetan ez fidatzen irakatsi didate, ezinbestekoak izan arren. Ondo dago demokrazia berea duen barrutian, baina tradizioz unibertsitate alemaniarretan eman behar dugun hezkuntza zientifikoa espirituko aristokraziaren gauza da, eta ez dago engainatzerik gai horri dagokionean. Egia da, halaber, arazo zientifikoak adimen hezigabe baina gai den bati azaltzea, eta honek (eta hauxe da guretzat erabakigarri den bakarra) haiei buruz ideia propioak izan ditzan erdiesteko bezain era argian adieraztea dela apika eginkizun pedagogiko zailena. Entzuleen kopuruak, ordea, ez du erabakitzen ahalegin horren arrakastari edo porrotari buruz. Eta gure gaira itzuliz, irakasteko artea, edozein modutan, norberaren dohaina da, jakintsu baten kalitate zientifikoarekin zeriikusirik batere ez duena. Frantzian ez bezala, guk ez daukagu zientziaren hilezkorren korporaziorik, halako moduan non, gure tradizioaren arabera, unibertsitateetako ikerketaren eta irakaskuntzaren eskakizun bikoitzari erantzun behar dioten. Bi egiteko horietarako gaitasunak norbaiten baitan loturik egotea halabehar hutsa da.

Halabehar hutsa da, beraz, bizitza akademikoa. Ia ezinezko gertatzen da habilitazio posibleari buruz orientabide eske datorren gazteari aholkatzeko erantzukizuna onartzea.

Judua bada, *lasciate ogni speranza* erantzun beharko zaio, noski. Baina, kontzientziaz, beste edozeini, judua ez bada ere, galdetu egin beharko zaio: «Zuk uste duzu ozpindu eta usteldu gabe jasan ahal izango duzula urtez urte zure aurretik erdipurdiko bat bestearen ostean pasatzea?». Jaso ohi den erantzuna beti berbera da noski: «Bai horixe, nire bokazio-rako bizi naiz bakarrik». Esan behar dut, hala eta guztiz ere, nik gutxienez, hau bere barneko bizitzaren kalterik gabe jasan ahal izan duen oso pertsona gutxi ezagutu dudala.

Hauxe iruditzen zitzaidan zela bizitza akademikoaren kanpoko baldintzei buruz esan beharrekoa.

Grina, zientifikoaren aurrebaldintza pertsonala

Baina uste dut beste zerbait zela zuek egiaz entzun nahi zenuena: zientziarako barneko bokazioa, hain zuzen ere. Gaurko egunetan, lanbide den aldetik, lehenago ezezaguna zen eta etorkizun guztian hala iraungo duen espezializazio-aro batean sartu da zientzia, eta horrek baldintzatzen du lehenbizi zientziaren enpresarekiko barneko egoera. Ez bakarrik kanpotik, ez, baita barnetik ere, era honetan dago auzia: norbanakoak kontzientzia ziurra duela ezen —zientziaren alorrean zerbait erabat perfektua egin nahi badu— espezializatze hertsienaren kasuan bakarrik lortuko duela.

Beste diziplinetatik hurbil dauden lan guztiak, inoiz edo behin egiten ditugunak bezalakoak eta soziologoek adibidez behin eta berriro egin behar dituztenak bezalakoak, etsipenezko kontzientziaz zamaturik datoz, alegia edozer delarik ere, bere espezialitatearen ikuspuntutik hain erraz ikusiko ez zituzkeen galderak eskaintzen dizkiola espezialistari, baina norberaren lana guztiz osatu gabea izango dela beti. Espezializatze hertsia baten bidez bakarrik eduki dezake langile zientifikoak seguruenera bizitzan behin bakarrik sortzen den eta «iraungo duen zerbait eraiki dut hemen» esateko aukera ematen dion asebetetasun-sentimen hori. Gure garaian, espezialisten egintza da

obra egiaz garrantzitsu eta erabakigarria. Nolabait esateko, begietakoak jarri eta gai ez bada bere burua konbentzitzeko, ezen bere arimaren etorkizuna zeraren mende dagoela, alegia ustekizun hau eskuizkribu honen pasarte honetan ipini behar duenaren mende hain zuzen, horrek hobe du zientziatik urrun geratzen bada. Ez du sekula espermentatuko bere baitan zientziaren bizipena dei dezakeguna. Kanpotik begira daudentzat barregarri den horditasun bitxi hori gabe, grina hori gabe, «ni azaldu aurretik milaka urte pasa dira eta nik hipotesi hau egiazta dezadan milaka urte behar izan dira» sentitu gabe, ez dago zientziarako bokaziorik, eta halakorik ezean hobe da beste zerbaiti heldzea. Ezerk ez du baliorik gizakiarentzat, gizaki denez, grinaz egin ahal ezin badu.

Lan gogorra, gaitasuna eta etorria

Baina hara kontua: grina nahikoa, egiazkoa eta sakona eduki arren, emaitza ez dago oraindik inondik ere erdietsia. Erabakigarriaren, hau da «etorria»ren aurrebaldintza baino ez da. Gazteen artean oso zabaldurik dago zientzia laborategietan edo artxibategi estatistikoetan adimen hotzarekin, eta ez arima osoarekin, gauzatzen den kalkulu-ariketa dela, lantegi batean bezala egiten den zerbait dela. Uste horren aurka adierazi behar da, ezer baino lehen, ezen lantegian gertatzen denari eta laborategian gertatzen denari buruzko okerreko uste batetik abiatzen dela. Leku batean eta bestean balioko zerbait egiteko beharrezko da gizakiari zerbait burura dakion, egoki den hura hain zuzen ere. Bururatze hori, halere, ezin izan daiteke behartua; ez da kalkulu hotzetik sortzen. Kalkulu hotza bera ere aurretiko baldintza bat da, noski. Ez dago soziologorik, adibidez, hilabeteetan eta hilabeteetan eta zahartzaroan beharbada, garrantzirik gabeko ariketak egitera dedikatu behar izanaz arranguratu beharko ez lukeenik. Oso garesti ordaintzen da eginkizun hori baliabide teknikoen laguntzaz arindu nahi izatea, baldin handik ezer atera nahi bada, ateratzen dena sarri huskeria bat izanda ere. Baina bere

kalkuluaren norabideari buruz eta, hau egiten ari dela, ondorio posibleei buruz ezer bururatzen ez bazaio, ez du erdie-tsiko huskeria hori bera ere. Lan gogor baten lurean bakarrik sortu ohi da bururakizuna, arau orokor horrek salbuespenak baditu ere. Hasiberri baten bururakizunak espezialista batenak bezainbestekoak izan litezke, irismen zientifikoari dagokionez, edo irismen handiagokoak, eta zenbait *amateur* eskertu behar diogu gure planteamendu eta ezagupen onenetako asko eta asko. *Amateura* espezialistarengandik bereizten da gauza batean bakarrik (Helmholtzek Robert Mayerengatik esaten zuen bezala), alegia *amateur* bati lan metodoaren ziurtasuna falta zaio eta, hortaz, gehienetan ez dago bururakizuna hautemateko eta kontrolatzeko edo, areago, hura gauzatzeko egoeran. Bururakizunak ezin ordeztu lezake lana, eta lanak ezin dezake, bestalde, bururakizuna ordeztu, ez bortxatu, grinak berak ere ezin egin dezakeen bezala. Lanak eta grinak, aldiz, bai, eragin dezakete, batez ere uztarturik doazenean, baina etorria nahi duenean dator eta ez guk nahi dugunean. Egiatan ziur da zinez gauzarik onenak sofán zigarro bat erretzen duenean bururatzen zaizkiola, Ihering-i gertatzen zitzaion bezala, edo, apika, Helmholtzek bere buruaz fisikoaren zehaztasunez esaten duen bezala, aldapa txikia duten bideetan zehar paseatzen den bitartean, edo beste une bat edozeinetan. Edozer delarik ere, gutxien espero denean agertzen da, norbera laneko mahaian penatzen eta saiatzen denean. Garbi dago ez zela sekula sortuko baldin batek bere ostean lan-mahaiko nekezko ordu horiek emango ez balitu eta irekita zeuden arazoengatik etengabeko kezka hori ez baleuka. Edozer delarik ere, lan zientifiko orori berariazko zaion halabehar hori ere kontuan hartu behar du langile zientifikoak, alegia inspirazioa etorri edo ez etorri lana egin daitekeela. Litekeena da pertsona bat langile gailen izatea eta bururakizun baliotsurik sekula ez edukitzea. Benetako oker larria da pentsatzea hori zientzian bakarrik gertatzen dela eta gauzak negozio batean, adibidez, laborategi batean ez

bezala gertatzen direla. Merkatari edo industria-gizon fantasia komertzialik gabekoa, hau da, bururakizunik ez duena, bururakizun jenialik ez duena, ez da izango sekula, aukerarik onenean, mendeko bat edo enplegatu tekniko bat baino gehiago, eta egundo ez du egituratuko erakunde berririk. Ez da inolaz ere egia inspirazioak zientzian enpresari moderno bati planteatzen zaizkion arazo praktikoen konponbidean baino paper handiagorik jokatzen duenik, zientifikoek harrokeriak hori sinesten ez badu ere. Sarri uste ohi denaren kontra, bere papera zientzian artean baino txikiagoa ez den bere aldetik. Haur-uste bat da pentsatzea matematikari oro ondorio zientifiko baliotsu batera irits daitekeela mahai baten gainean kalkuluko erregela batekin edo beste baliabide mekaniko edozeinekin edo kalkulatzeko makina batekin lan eginez. Garbi dago, noski, bai bere zentzuagatik, bai jotzen dituen ondorioengatik, Weiertrassen fantasia matematiko bat artista batenaren aldean era guztiz bestelakoan dagoela orientaturik eta bata eta bestea kualitatiboki desberdinak direla. Baina ez dira desberdin ibilbide psikologikoei dagokienez. Biak dira horditasun (mania platonikoaren zentzuan) eta etorri.

Beraz, galdera bada ea inork ba ote duen inspirazio zientifikorik, hori gure ezkutuan dauden patuen eta, areago, dohainen mende dago. Zalantzarik gabeko egia honen gainean sortu da jarrera bat, oso zabaldua, eta ulertzekoak diren arrazoiengatik, bereziki gazteen artean, idolo zenbaitu kultura ematen diena, zeinaren aztarna bazter guztietan eta egunkari guztietan aurkitzen dugun. «Nortasuna» eta «bizipena» dira idolo horiek. Uztartuta daude biak, eta uste nagusia da bigarrenak laguntzen diola lehenari eratzen eta hari datxekiola. Jendea atsekabetzen da bizipenak pilatu alde, hori baita nortasun sendo batengandik espero daitekeena, eta lortu ere lortzen ez badu, dohain hori jaso izan balu bezala portatu behar du. Alemanez lehen *sensation* (sentipen) esaten zitzaion «bizipen» horri. Eta, nire ustez, ideia egokiagoa zen jakiteko zer den nortasuna eta zer esan nahi duen.

Zientziaren eta artearen arteko bereizkuntza

Entzule agurgarriok! «Nortasuna» zientziaren alorrean kasuari soilik zerbitzatzen dionak dauka. Eta zientziaren alorrean ez ezik hala gertatzen da gainontzeko alorretan ere. Ez dugu ezagutzen bere arteari eta hari bakarrik zerbitzatu baino egin ez duen artista handirik. Goethe bezalako nortasun batengan bertan ere, bere bizitza artelan bihurtu nahi izan zuelako, artistak hartu zuen askatasunak kaltetu egin zuen artea. Hau zalantzazkotzat jotzen duenak onartu beharko du, edozein modutan, Goethe bezalakoa izan behar duela norbera halako askatasuna eduki ahal izateko, eta inork ez dit ukatuko mila urtetik behin azaltzen dela halako mailako gizakirik eta maila hori izatea gizakiak berak larrutik ordaindu behar duela. Gauza bera gertatzen da politikari dagokionez ere. Gaur, ordea, ez dugu hori aipatuko.

Zientziaren alorrean ziur naiz ez daukala inolako «nortasunik», berak zerbitzatu behar duen kausako enpresari bezala eszenatokian azaltzen denak, bizipenen bidez zuritu nahiko lukeenak eta galdetzen duenak: Nola egiazta dezaket nik «espezialista» bat baino zerbaite gehiago naizela; formari edo kausari dagokionez, beste inork ez duela esan nik bezala? Gaur samaldaka agertzen den gertakaria da hau, alde guztietan kaskartu egiten duena, eta halako galdera egiten duena beheratu egiten duena, kausa bati emanik eta hari bakarrik hala jokatzeko duena kausa beraren goierara eta duintasunera jasotzen ordez. Artistari dagokionez ere gauza bera gertatzen da.

Gure lanak artistarekin berdina dauzkan baldintza horien aurrez aurre, lan zientifikoa eta lan artistikoa sakon bereizten dituen patua dago. Lan zientifikoa, izan ere, aurrerakuntzaren korrontean murgildurik dago; artearen alorrean, aldiz, ezin mintza daiteke aurrerakuntzaz zentzu honetan. Ez da egia baliabide tekniko berriak eta perspektibaren legeei buruzko ezagupen sakonagoak dituen garai bateko artelan

bat, horregatik soilik, ez halako baliabiderik ez lege horien ezagutzarik ez zuen garaian sortutako beste artelan bat baino gorago dagoela, baldin, noski, azken hau materiari eta formari dagokionez artearen arabera zuzen badago, hau da, baldin bere objektua baliabide horiek gabe eta lege horiek gabe artistikoki egitea posible zen bezala hautatu eta erabili badu. Zinez lorpen den artelan bat ez da sekula gainditua izango, eta ez da zahartu ere zahartuko sekula. Lan horrek beretzat, pertsonalki, daukan garrantzia beste era batean estima ahal izango du norbanakoak, baina ezin esan ahal izango du inork egundo ezen artearen aldetik lorturik dagoen obra bat era berean lorturik dagoen beste batek gainditzen duenik. Zientzian, alderantziz, denok dakigu landu dugun hori 10, 20, 50 urte barru zaharkiturik geratuko dela. Hauxe da patua, bai, lan zientifikoaren zentzua, zeinaren mende eta azpian dagoen, bestela era berean baliozko diren beste kultur osagai guztiak ez bezala, zentzu zinez hertsian; lorpen zientifiko orok galdera berriak proposatzen ditu, eta, beraz, gainditua eta zaharkitua izatea du helburu. Zientziara dedikatu nahi duenak kontuan hartu behar du hori. Badira, noski, lan zientifiko batzuk era iraunkorrean beren garrantzia gorde dezaketena, poztasun-tresna diren aldetik, beren kalitate artistikoa dela-eta edo lanerako prestaketarako baliabide bezala. Edozer delarik ere, berriro esan behar da derrigor gainditua izatea ez dela bakarrik gu guztion patua, baizik areago, gu guztion egitekoaren helburua dela. Ezin lan egin dezakegu beste batzuk gu baino urrunago iritsiko diren esperantzarik gabe, printzipioz amairik ez duen aurrerapen batean. Zientziaren zentzuaren arazora heltzen gara horrela.

Ez baita erraza, izan ere, halako lege baten mende dagoen zerbaitek berez zentzurik izatea eta hori ulertzea. Zergatik jardun egiaz amairik ez duen eta eduki ere amaiera ezin eduki dezakeen zerbaitetan? Lehen erantzuna da helburu praktiko edo, hitz zabalagoetan, tekniko batekin egiten dela: gure portaera praktikoa esperientzia zientifikoak eskura es-

kaintzen dizkigun itxaropenen arabera orienta daiteke. Zuzena da erantzuna. Bai. Baina praktikoarentzat bakarrik du esanahirik horrek. Zein da, ordea, zientzia-gizonaren barneko jarrera bere lanbideari dagokionean? Baldin hartaz arduratzen bada, noski. Esaten du zientzia zientziagatik beragatik lantzen duela, ez beste batzuek harekin merkataritzan edo teknikan arrakasta lortzen dutelako, hobeto elikatzen, jantzen, argitzen, zuzentzen direlako. Baina zentzuzko zer uste du lortu behar duela, zer ezinbestean zahartzera kondenaturik dauden sorkuntzekin, bera atal espezializatuetan banaturik eta amairik ez duen enpresa honetan kateatzen den bitartean? Horrek gogoeta orokor batzuk eskatzen ditu.

Arrazionalizatzea, aurrerapena eta munduaren desliluratzea

Aurrerapen zientifikoa atal bat da, eta atalik garrantzitsuena inondik ere, mendeetan azpian hartu gaituen intelektualizatze-bide honetan, eta honen aurrean sarri oso jarrera izugarri ezkorra hartu ohi da.

Saia gaitezen azaltzen, ezer baino lehen, zer esan nahi duen ikuspegi praktiko batetik zientziaren eta teknika zientifikoki orientaturikoaren bidez gauzaturiko arrazionalizazio intelektualista honek. Esan nahi ote du gaur areto honetan gaudenon arteko bakoitzak ezagutza garbiagoa duela bere bizi-baldintzei buruz indio batek edo hotentote batek zeukana baino? Nekez izango da hori egia. Gutariko nork daki, fisikari ez bada, zergatik mugitzen den tranbia. Ez du jakin beharrik ere gainera. Nahikoa izango du tranbiaren portaeran «fidatzea» eta horrela bere portaera orientatzea, baina jakin ez daki nola egin funtzionatuko duen tranbiarik. Basoan bizi denak asko daki bere lanabesei buruz. Dirua eralgitzea bada kontua, apustu egingo nuke ezen, areto honetan ekonomistarik balego, zenbati galdetu hainbeste erantzun desberdin jasoko genituzkeela baldin bururatuko balitzaigu galdetzea ea zergatik diru kopuru berarekin, aukera desberdinen arabera, gauza

berberaren kopuru oso desberdinak eros ditzakegun. Basokoak, aldiz, oso ongi daki nola erdietsi bere egunoroko elika eta zeintzuk diren horretan laguntzen dioten erakundeak. Intelektualizatze eta arrazionalizatze gero eta handiagoek ez dute esan nahi, bada, gure bizitzako baldintza orokorren ezagupen orokor handiagoa. Oso bestelakoa da haren esanahia: esan nahi dute gauza jakina dela edo nahi den edozein unetan jakin ahal izango dela uste dela ezen, hortaz, gure bizitzaren inguruan ez dagoela botere ezkuturik eta ustekabekorik, baizik, aldiz, dena —printzipioz— mendera daitekeela kalkuluaren eta aurreikuspenaren bidez. Horrek esan nahi du besterik gabe magia baztertu dela mundutik. Basokoak ez bezala —harentzat halako botereak izan baitira—, guk ez daukagu baliabide magikoetara jo beharrik espirituak kontrolatu eta urrikalmendura erakartzeko. Baliabide teknikoaren eta aurreikuspenaren bidez lortzen den gauza da hori. Hau da, funtsean, intelektualizatzearen esanahia.

Halere, galde daiteke ea desliluratze-prozesu horrek guztiak, mendebaldeko kulturen milaka urtetan luzatuak, ea zientzia ere osagai eta indar bultzatzaile bezala sartzen den «aurrerakuntza» horrek guztiak alor praktikoko eta tekniko soilak gaindituko duen zentzurik batere ba ote duen. Arazo hau era eredugarrian dago planteaturik Leon Tolstoiren obretan: bide guztiz berezi batetik iritsi zen hara. Haren gogoeta auzi bakar batera biltzen da gero eta gehiago: ea zentzurik baduen edo ez heriotza bezalako fenomeno batek. Haren erantzuna da ezen gizaki jantziarentzat heriotzak ez duela zentzurik. Norbanakoaren bizitza zibilizatuak, aurrerapenean, amaigabearen kokaturik, ez lukeela, bere zentzu inmanente propioaren arabera, amairik batere. Beti dago aurrerapenen bat lortutakoaz haratago, eta ezin hilkorrek erdietsi ditzake amaigabearen dauden gailurrak. Abraham edo garai zaharretako edozein nekazari hil ohi zen zaharturik eta bizitaz ase, bizitzaren biribilki organikoaren barruan aurkitzen zelako; izan ere, haren zentzu inmanentearen arabera, haren egunak amaitzean bizitzak

emana baitzion eman ziezaiokeen guztia; eta bizitzaz ase hil zitekeen, argitu beharreko ezkutukirik batere geratzen ez zitzaiolako eta pozik senti zitekeelako. Aldiz, gizaki zibilizatua, jakintza, ideia eta arazo berriekin etengabe aberasten den mundu batean murgildurik, bizitzeaz nekaturik senti daiteke, baina ez ase. Espirituaren bizitzak etengabe sortzen duenetik zati oso txiki bat baino ezin jaso ahal izango du sekula, eta gainera behin-behinekoa izango da, sekula ez behin betikoa. Heriotza, era horretan, zentzurik ez duen gertakari bat izango da. Eta heriotzak zentzurik ez duenez, kulturak ere, bere hartan, ez du izango, kultura baita, hain zuzen, bere aurrerakotasun zentzugabearen heriotzari zentzua kentzen diona. Bere eleberri berantiar guztietan errepikatzen da pentsamendu hori Tolstoiren artearen oinarritzko puntu bezala.

Zer pentsa honen aurrean? Ba al du «aurrerapenak», bere hartan, ezagun daitekeen zentzu bat, alor tekniko soilaz gaindi joango litzatekeena, halako moduan non haren zerbitzua bokazio esanguratsua den? Ezinbestekoa da auzi hau aurkeztea. Arazoa ez da horrela zientzialariaren bokazioarena soilik, zientziak hartara dedikatzen denarentzat duen esanahiarena ere bada. Halere, kontua beste bat da, alegia finkatzea zer den bokazio zientifikoa gizadi osoaren bizitzaren barruan eta zein den haren balioa.

Tresna zientifikoak: «kontzeptua» eta «esperimentua»

Izugarria da iraganaren eta gaurko egunaren arteko kontraesana. Gogoan izango duzue Platonen *Errepublikako* zazpigarren liburuaren hasierako irudi zoragarria. Gizatalde bat dago lotuta leizezulo batean, aurpegiak hondoko hormara zuzenduak dituzte eta argia bizkarrean dute hura ikusi ezin dutela, eta argiak horman botatzen dituen itzalekin saiatzten dira haien arteko erlazioa zertan den azaltzen. Haietako batak azkenean kateak urratzen ditu eta eguzkira itzultzen ditu begiak. Itsuturik, haztamuka mugitzen da eta ikusten duena kontatzen du totalka. Gainerakoek erotzat hartzen dute, baina

poliki-poliki, askatu denak argitan ikusten ikasten du eta lagunak geratu diren lekura jaisteko egitekoa bere gain hartzen du, kateetatik askatu eta argira ekartzeko. Gizon hori da filosofoa, eta eguzkiaren argia zientziaren argia da, ez itxurarik ez itzalik, baizik egiazko izatea bilatzen duena.

Nork dauka gaur halako jarrera zientziaren aurrean? Gaur nagusi den sentipena, gazteen artean bereziki, kontrakoa da gehienbat. Zientziaren eraikuntza intelektualak, beren esku zurbilekin egiazko bizitzako odola eta izerdia hertsatzen saiatzen direnen abstrakzio artifizialezko beste erresuma bat dira, sekula erdietsi gabea, ordea. Hemen, bizitzan, Platonen ustez hormako itzal-joko bat baino ez zen lekuan, ari da egiazko errealitatea taupaka. Gainerako guztia errealitatetik desbideraturiko iratxo hutsak baino ez dira. Nola gertatu zen aldaketa? Platonen gogoberotasun pasionatua *Errepublikan* argitzen du, azken batean, ezagutze zientifikoko tresnarik handientako baten, kontzeptuaren, aurkikuntza egin berriak. Sokrates izan zen haren irismena aurkitu zuena, bera ez bada ere kontzeptuaren aurkitzaile bakarra. Indian jada aurki daitezke Aristotelesenen antzeko osagai logikoak. Greziaz at, ordea, inon ez zuten eduki haren garrantziaren kontzientziarik. Hemen lehenbizi azaldu zen eskura tresna bat, zeinarekin norbait lokailu logikoan atrapa daitekeen, halako moduan non ezin ihes egin dezakeen aitortu gabe edo berak ez dakiela ezer; edo hau eta ez beste ezer dela egia, betiko egia, gizaki itsuen egintza eta jarduera ez bezala, sekula galduko ez dena. Horixe izan zen Sokratesen ikasleen bizipen harrigarria. Eta bazirudien handik ondorioztatzen zela ezen, baldin aurkitzen bada ederraren, onaren, edota bipiltasunaren, arimaren edo beste edozeren kontzeptu zuzena, haren benetako izatea ere atrapa daitekeela, eta horrek berriro bazirudien bidea eskura jartzen zuela jakiteko eta irakasteko nola portatu behar den zuzen bizitzan, ezer baino lehen hiritar bezala. Izan ere, beti eta beti era politikoan pentsatzen zuen heleniarrarentzat galdera horixe zen garrantzitsuena. Horregatik egiten zen zientzia.

Espiritu heleniarraren aurkikuntza horren ondoan azaltzen da, Bepizkundearen emaitza bezala, lan zientifikoaren bigarren tresna handia: esperimentu arrazionala, esperientzia kontrolatu eta fidatzeko moduko bat lortzeko baliabide bezala; hura gabe ezinezko litzateke gaurko zientzia enpirikoa. Garai hori baino lehenago ere esperimentatu zen. Adibidez, Indian esperimentu psikologikoak eginak zituzten yoga teknika aszetikoaren zerbitzuan, eta esperimentu matematikoak, berriz, Grezian eta Erdi Aroko European, han teknika militarerako eta hemen meategiak ustiatzeko. Baina esperimentua ikerketako printzipio bezala jasotzea Bepizkundearen lorpena da. Eta egiaz bide berri honetako aitzindariak lehenbiziko artista moderno handiak dira: Leonardo eta haren parekoak, baina bereziki eta ezaugarri gisan XVI. mendeko musikako esperimentatzaileak probetako beren pianoarekin. Haiengandik esperimentatzea zientziara pasatzen da, batez ere Galileoren bidez, teoriara Baconen bidez; eta gero bere egin zuen kontinenteko unibertsitateko diziplina zehatz bakoitzak, lehenbizi Italian eta Holandan.

Egiatzko artearen eta naturaren bila

Zein zen, orduan, zientziak zeukan esanahia modernitatearen mugetan zeuden gizaki hauentzat? Leonardoren eta musika berritzaileen gisako artista esperimentalentzat zientziak egiatzko arterako bidea, eta horrek orobat esan nahi zuen egiatzko naturarako bidea. Artea zientziaren mailara jaso behar zen eta horrek ezer baino lehen esan nahi zuen ezen, bere gizarte mailagatik eta bere bizitzaren zentzugatik, doktorearen parean jarri behar zela artista. Hauxe da Leonardoren *Pinturaren Trataturua* liburuaren muinean aurkitzen den grina. Eta gaur? Zientzia al da naturara doan bidea? Birao itxura luke horrek gazteen belarrietan. Ez, alderantziz: bidea da intelektualismotik libratzea, norberaren naturara, eta naturara besterik gabe, itzultzeko. Arterako bide bezala erabat? Horrek ez du kritika beharrik. Baina

natur zientzia zehatzen jaiotze-garaian gehiago espero zen oraindik. Swammerdam-en esakunea —«hemen dakarkizuet Jainkoaren probidentziaren froga bat arkakuso baten anatomian»— gogoan badaukazue, ikusiko duzue nola lan zientifikoak, protestantismoaren eta puritanismoaren eragina zeharka jasoz, bere burua garai hartan Jainkoarenganako bidetzat zeukan. Garai hartako filosofoek, beren kontzeptu eta dedukzioen bidez, gehiago onartzen ez duten jarrera bat da. Garai hartan teologia pietista osoak, Spener-ek bereziki, bazekien Erdi Aroan zeharkatzen duen bide horretan ezinezko zela Jainkoa aurkitzea. Ezkutatuta dago Jainkoa, haren bideak ez dira gureak eta haren pentsamenduak ere ez dira gureak. Natur zientzia zehatzetan, ordea, haren obrak fisikoki jaso zitezkeen lekuan, munduarekiko zituen asmoak aurkitu ahal izango zirela espero zen. Zer gertatzen da gaur? Natur zientzien munduan mugitzen diren haur handi horietako batek izan ezik, nork sinesten du gaur oraindik astronomiako, biologiako, fisikako edo kimikako ezagutzek zerbait irakats diezaguketela munduaren zentzuari buruz edo zentzu honen aztarnak bilatzeko bideari buruz, baldin halakorik badago? Halako ezagutzek baldin ondoriorik batere badute, munduaren zentzua dei daitekeen zerbait badagoen fedea errotik idortzea izan da ondorioa. Zientzia «Jainkoarenganako» bidea? Jainkoarenganako bide jainkotasunarekiko berariaz at dagoen botere hori? Aitortu edo ez aitortu, ezin eduki dezake inork zalantzarik bere izatearen barnean ezen zientziak ez duela zerikusirik Jainkoaren ideiarekin. Zientziaren emantzipazioa arrazionalismoari eta intelektualismoari dagokienez funtsezkoa da premisa jainkotiarrarekin batera bizitzeko. Adierazpen hori edo antzeko besteren bat da gure gaztaro erlijiosoko sentimenetik edo bizipen erlijioso bat eduki nahiko lukeen gure gaztaroko zatitik sortzen diren funtsezko esaldietako bat. Eta interesatzen zaiona ez da bakarrik bizipen erlijiosoa, bizipena oro har baizik. Harrigarria izatekotan, orain hartuko den bidea da harrigarria,

izan ere intelektualismoak ordura arte ukitu ez zuen puntu bakarra da, alegia irrazionalaren esfera haiek preseski orain kontzientziara ekarri eta haren luparen azpian jarriak izango direla. Horretara jotzen du irrazionalaren erromantizismo intelektual modernoak. Intelektualismotik askatzeko bide honek harantz abiatu zirenek beren helburutzat jo zutenaren kontrakoa dakar. Albo batera utz dezaket baikortasun hutsal hura zeinaren arabera zientzia, hau da, zientziaren gainean oinarritutako teknika, izango bailitzateke zorionerako bidea. Baina, auzi honi buruzko eztabaida albo batera utz dezakedala uste dut Nietzschek «zoriona aurkitu duten azken gizonei» egin dien kritika xahutzailearen ondoren. Nork sinesten du horretan oraindik, katedretako eta erredakzio-aulkietako haur handi batzuek izan ezik?

Azken arrazoiaren huts egitea zientziaren oinarri bezala

Atzera egin dezagun. Zein da zientziaren zentzua, bokazio bezala, aurretiko barne-baldintza hauek kontuan hartuta, baldin lehenagoko ilusio guztiak —«Egiatzko iza-terako bidea», «Egiatzko arterako bidea», «Egiatzko naturarako bidea», «Egiatzko Jainkoarenganako bidea», «Egiatzko zorionerako bidea»— hankaz gora joan badira? Erantzunik samurrena Tolstoik eman zuen, hitz hauekin: «Ez du zentzurik guretzat garrantzizkoak diren galderei —Zer egin behar dugu? Nola bizi behar dugu?— erantzunik batere ematen ez dielako». Ezin eztabaida daiteke ezen ez dagoela horretarako erantzunik. Auzia da, ordea, ea zein zentzutan ez duen ematen erantzunik batere, eta ea horren ordez zientziak ez ote dion zerbaitetan laguntzen galdera zuzen egiten duenari.

Gaur sarri aurretiko baldintzarik gabeko zientzia batez hitz egin ohi da. Ba al da halakorik? Kontua da zer ulertzen den horrekin. Lan zientifiko orok aurretiko baldintza dauka logikaren eta metodologiaren baliozkotasuna, horiek baitira gure munduko orientabidearen oinarri orokorrak. Arazo handiak sortzen dituzte aurretiko baldintza hauek, orain

eskuartean ditugun arazoei dagokienez bederen. Halere, lan zientifiko orok badu oraindik beste baldintza beharrezko bat: haren bidez lortu nahi den emaitza garrantzizkoa dela, jakitea merezi duen zerbait dela alegia. Jakina, aurretiko baldintza horrekin berriro planteatzen zaizkigu gure arazo guztiak, hau ez baita berez zientifikoki egiaztagarria. Haren azken zentzua adierazten du, eta hori onartu edo zapuztu egin beharko da, bakoitzak bizitzaren aurrean duen jarreraren arabera.

Lan zientifikoak aurrebaldintza hauekin duen zerikusia, bestalde, desberdina da zientzia desberdinen egituraren arabera. Fisika, kimika edo astronomia bezalako natur zientzietan —zientzia iristen den neurrian— berez nabari dagoen zerbait bezala jotzen da zientzia hauek gertakizun kosmikoari buruz eraikitzen dituzten legeek ezagunak izatea merezi dutela. Eta hori, ez bakarrik ezagutza horiekin arrakasta teknikoak erdiets daitezkeelako, baizik areago, bokazio izan behar dutelako, «hala direlako, besterik gabe».

Baldintza hori ezin froga daiteke berez, ezin froga baitaiteke merezi ote duen lege horiek deskribatzen duten munduak, edo mundu horrek zentzurik ba ote duen eta hartan bizitzeak zentzurik ba ote duen. Horregatik, natur zientziek ez dituzte planteatzen arazo hauek. Har dezagun orain medikuntza bezalako zientzia bat, ikuspegi zientifikotik era hain altuan garaturikoa. Eginkizun medikuaren aurretiko baldintza da, bere termino sotilenetan adierazita, bizitza bera kontserbatu behar dela eta ahal den neurrian atseka-bea gutxitu behar dela. Sendagileak, bere baliabideei esker, gaixo sendaezin bat bizirik iraunarazten du nahiz eta hark eskatu arren bizitzatik libra dezala, nahiz eta haren bizitza baliogabekotzat jotzen duten, edo saminalditik —beharbada, ero errukarri bat da— libratu nahi duten, edo sendatu ezinaren kostuak jasanezinak iruditzen zaizkien ahaideek, garbi edo ezkutuan, haren heriotza nahi duten eta behar duten arren. Medikuntzako aurrebaldintzek eta kode pena-

lak bakarrik eragozten diote sendagileari portaera horretatik aldentzea. Medikuntzak ez dio bere buruari galdetzen ea bizitzak bizitzea merezi duen edo noiz ez duen merezi gehiago. Natur zientzia guztiek erantzun bat ematen digute galdetzen dugularik: zer egin behar dugu bizitza tekniko-ki menderatu nahi badugu? Aurretiko arazoak, ea nagusigo hori lortu behar dugun eta, funtsean, lortu nahi dugun eta ea nagusigo horrek benetan zentzurik ba ote daukan, albo batera utziak dira edo, besterik gabe, aldeztu aurretik baiezko batez erantzunak dira. Pentsa dezagun orain beste diziplina batean, Artearen Zientzian alegia. Artelanak badaudela ontzat ematen du arteak. Artelanak egon badirela, ideia horretatik abiatzen da estetika, eta gertakari hori zein baldintzatan gauzatzen den jakiten saiatzen da. Ez da planteatzen, ordea, ea artearen erresuma ez ote den beharbada deabruzko handikeriaren erresuma, mundu honetako erresuma bat, horrexegatik beragatik, bere zentzurik sakonenean, Jainkoaren etsai den erresuma bat, eta, espirituari dagokionez, guztiz aristokratikoa, gizakien arteko anaitasunaren etsai halaber. Horregatik, estetikak ez du galdetzen ea artelanik izan behar duen ala ez. Gauza bera gertatzen da jurisprudentzian: hein batean premia logiko batek, hein batean eskema konbentzional jakin batzuek eraturiko doktrina juridikoaren arauen arabera baliozkoa dena finkatzen du diziplina honek; beraz, erabakitzen du zein unetan zuzenbideko arau jakin batzuk eta ulerpen metodo jakin batzuk obligaziozko bezala onartu behar diren. Baina ez dio erantzuten galdera honi, alegia ea zuzenbide bat izan behar duen edo ea arau horiek eta ez beste batzuk finkatu behar diren hain juxtu; adierazi baino ezin du egin ezen, halako helburua lortu nahi bada,, arau hau edo bestea dela hura erdiesteko baliabide egokia, gure pentsamendu juridikoaren araei jarraiki. Edo pentsatu, azkenik, zer gertatzen den zientzia historikoetan. Politikako, arteko, literaturako eta gizarteko gertakariak ulertzen irakasten dute, kontuan hartuz haiek noiz azaldu ziren, baina ez dio-

te erantzunik ematen gertakari horiek izan behar zuten edo izan behar duten galderari, ezta ea merezi duen haiek ezagutzea galderari ere. Ontzat ematen du badela interes berezi bat, ezagutza honen bidez, gizaki kultuen elkartean, baina ezgauza da hori inoren aurrean zientifikoki frogatzeko. Interes hori badela aurretiko baldintza bezala onartzea ez da aski berez begien bistako egiteko. Izan ere, ez baita begien bistako.

Norberaren uste sendoei buruzko neurritasuna lan zientifikoaren barruan

Bil gaitzen orain nik hurbil ditudan diziplinetara, alegia soziologiara, historiara, ekonomiara eta estatuaren teoriara eta eginkizun bezala mota honetako gertakari guztiak ulertzea nahi lukeen kulturaren filosofia motara. Esan ohi da, eta nik baieztatu egiten dut baieztapen hori, politikak ez duela lekurik eskoletan. Hasteko, ikasleek ez dute politikarik egin behar. Deitoratuko nuke ezen Berlingo ikasle bakezaleek eskandalu bat sortuko balute iritziei dagokienez nigan-dik hain urrun dagoen Dietrich Schäfer nire lankide ohiaren gelan, eta orobat, indar berberaz deitoratzen dut bakezale ez diren ikasleek Foerster irakasleari dirudienez antolatu dioten eskandalua. Baina irakasleek ere ez dute politikarik egin behar geletan, are gutxiago eta bereziki politikaz ikuspegi zientifikoarekin jardun behar dutenean. Jarrera politikoa hartzea eta gertakarien eta alderdi politikoen analisi zientifikoa egitea bi gauza erabat desberdin dira. Baldin herri-asanblada batean demokrazia mintzatzen bada, ez da mintzatzen norberaren iritzia ezkutuan gordetzeko; aukera garbi egitea, ordea, egiteko madarikatua eta zorra da. Orduan erabiltzen diren hitzak ez dira analisi politikoa egiteko tresna, propaganda politikoa egiteko baizik gainerakoek duten jarrerari buruz. Ez dira golde-hortzak pentsamendu begieslearen lurra lantzeko, ezpatak baizik, etsaiari erasotzeko, borroka-tresnak. Hitzak gela batean edo mintzaldi serio batean era horretan erabil-

tzea, aldiz, biraoa da. Aukera horietan demokrazia aipatu nahi denean, hark dituen forma desberdinak aurkeztu beharko dira, haren funtzionatzeko era aztertu, forma bakoitzak bizitzarako dituen ondorioak adierazi, antolaketa politikoko era ez-demokratikoei kontrajarri eta, ahal delarik, entzulea bere oinarrizko idealetatik abiatuz hari buruz jabetzeko eran jar dadin saiatu. Egiazko maisuak, halere, biziki ekidingo du jarre-ra jakin batera bultzatzea katedran egiten duen lanaz baliatuz, ez zuzenean ezta iradokizunen bidez ere, izan ere «gertakariak berenez hitz egin dezaten» da entzuleen gainean presioa eragiteko erarik gaiztoena.

Zergatik ez dugu, bada, horrela jokatu behar? Aurretik botatzen dut ezen lankide ospetsu askok uste duela ezinezko dela norbera-mugatze hau praktikan gauzatzea, eta hala ez balitz ere apeta huts bat dela. Egia da ezin froga dakiokela inori zientifikoki zein den bere egitekoa irakasle bezala. Eska dakioketen gauza bakarra da beharrezko zintzotasun intelektuala izan dezan bi arazo mota guztiz ezberdin daudela ulertzeko: alde batetik, gertakarien konstatazioa, eduki logiko edo matematiko edo kultur gertakarien barneko egituraren edukiak finkatzea; eta bestetik, kulturaren eta haren eduki konkretuen balioari buruzko galderaren erantzuna, eta, kulturaren barruan, gizakiak zein portaera izan behar duen kultur elkartean eta elkarte politikoetan Norbaitek galde baleza zergatik ezin erabil daitezkeen bigarren mota honetako arazoak gelan, erantzun behar zaio gela ez dela demagogoaren edo profetaren lekua, besterik gabe. Batzuei eta besteei esana zaie: «Zoazte kaleetan eta plazetan barna eta hitz egin han denen aurrean». Hau da: «zoaz kritika egin dakizukeen lekura». Gelan irakaslea mintzo da, ikasleek, aldiz, isilik egon behar dute; karrera egiteko, irakaslearen klaseetara joatera beharturik daude ikasleak, eta haietan ez zaie uzten kritikarik egin dezaten. Erantzukizun falta izugarria iruditzen zait irakasleak aukera hauek baliatzea ikasleak bere iritziz politikoekin markatzeko; berariaz duen egitekoa

betetzera mugatu behar du, bere ezagutzekin eta bere esperimentzia zientifikoarekin baliozko izan behar du ikasleentzat. Litekeena da, jakina, irakasleren batek ez lortzea edo ez erabat behintzat bere sinpatia politikoak alde batera uztea. Kasu honetan bere kontzientziaren kritikarik zorrotzenak jasan beharko ditu. Horrek, edozein modutan, ez du ezer frogatzen. Oker objektibo soilak ere posible dira eta haiek ere ez dute osatzen argudiorik batere egia bilatzearen egitekoaren kontra. Gainera, interes zientifikoa da jarrera hori gaitzestera naramana. Gure historialarien lanean oinarrituz, konprometitzen naiz zientzia-gizon batek bere balio-juzguak sar daitezten onartzen duen lekuan frogatzea ematera gaiaren ulerpen osorik ez dagoela. Gainerakoan, gaur erabili nahi dugun gaia askogatik gainditzen du arazo honek eta jardun luze bat eskatuko luke berez.

Baina galdegiten dut: Nola liteke, alde batetik, katoliko fededun bat, bestetik masoi bat, ikastaro batean elizako eta estatuko erori buruz edo erlijioen historiari buruz aritzea, nolatan ekar litezke biak gauza horiei buruz balioztatze berberera? Ezinezkoa da, noski. Eta, hala eta guztiz ere, irakasle akademikoak eduki behar du bere ezagutzen eta metodoen bidez batarentzat zein bestearentzat baliozko izateko gogoia eta eskakizun hori egin behar dio bere buruari. Baina, arrazoiz esango duzue katoliko fededunak ez lukeela sekula onartuko kristautasunaren sorrerako gorabeherei buruz bere aurrebaldintza dogmatikoetatik libre legokeen irakasle baten ikuspuntua. Jakina! Baina desberdintasuna honetan datza: «aurrebaldintzarik gabeko» zientziak, lotura erlijioso oro ukatzen duen neurrian, ez du onartzen ez «miraririk» ez «errebelaziorik». Onartuko balitu, bere «aurrebaldintzei» berei iruzur egingo lieke; fededunak, berriz, bata zein bestea onartzen ditu. Baldin kristautasunaren sorrera argitu behar bada naturaz gaindiko diren eta argibide empiriko baterako balio kausalik ez duten eragile haiek kontuan hartu gabe, hain juxtu bera ahalegintzen den eran argitu behar diren onarpenera baino

ezer gutxiago (baina ezta ezer gehiago ere) ez dio eskatzen «aurrebaldintzarik» gabeko zientziak. Hori bai onar dezake, bere fedeari hutsik egin gabe.

Baina, orduan, zientziaren lorpenak ba al du inolako zentzurik gertakarien aurrean indiferente den eta jarrera-hartze praktikoari bakarrik garrantzia ematen dionarentzat? Litekeena da. Baina hasteko gauza bat. Baldin norbait irakasle baliozkoa bada, lehen egitekoa izango du bere ikasleei gertakari desatseginak onartzen irakastea, nire iritzian, adibidez, bere alderdiaren iritzirako desatseginak direnak; eta alderdi orotan —baita nirean ere, jakina—, badago halako gertakari desatseginik. Nire ustez, irakasle batek bere ikasleak horretara ohitzera behartzen dituenean, ekarri intelektual soil bat baino zerbait gehiago ematen die; nik ez nuke lotsarik izango inondik ere «lorpen etiko» adierazpena bera erabiltzeko ere, ebidentzia hain hutsal bat zertzeko beharbada patetikoegia bada ere.

Balio-sistemen arteko gatazka, irakaskuntza zientifikoaren baldintza-barruti engainatu ezinezkoa

Orain arte norberaren jarrera-hartze bat ezartzea ekiditeko arrazoi praktikoez aritu naiz. Baina horiek ez dira arrazoi bakarrak. Jarrera praktikoen defentsa zientifiko bat egiteko ezintasuna (auzia alde aurretik emaniko helburu bat erdies-teko bitarteko onenak finkatzea denean izan ezik) zergati sakonagoetatik sortzen da. Defentsa hori absurdua da printzipioz, dauden balio-sistema desberdinak beren artean irtenbiderik ez duen gatazkan ari direlako. Mill zaharrak —ez dut goraipatu nahi bestalde haren filosofia— hala dio behin, eta puntu honetan bai, arrazoi du, alegia esperientzia soiletik ir-tetean politeismoan erortzen dela. Baieztapen honek azaleko eta paradoxazkoa dirudi, baina egia handi bat dauka barnean. Gaur zerbait ongi badakigu da egia zahar eta berriro ikasia sakratua dela ez bakarrik eder ez delako, baizik ez delako eta ez den neurrian —Isaiasen Liburuko 53. kapitulu eta 22.

salmoan honi buruzko aipuak aurki ditzakezue—. Bestalde, badakigu zerbait eder izan daitekeela, ez bakarrik ona ez izan arren, baizik ona ez delako arrazoi horrexegatik hain zuzen. Nietzschekin jakin dugu berriro, eta, gainera, egiazaturik ikusi dugu *Fleurs du mal* liburuan, Baudelairek bere poemak izendatu dituen bezala; jakinduria arruntak esaten duela zerbait egiazko izan daitekeela, nahiz ez izan eder, ez santu eta ez on. Hala eta guztiz ere, hauek ez dira sistema eta balio desberdinen jainkoek beren artean diharduten gatazka horretako kasurik funtsezkoenak baino. Ez zait buruan kabitzen nola erabaki uste den zientifikoki kultura frantsesaren eta alemaniarraren balioen artean. Hemen berriro ari dira borrokan jainkoak beren artean, eta betiko hain zuzen ere. Jainkoetatik eta deabruetatik oraindik libratu ez zen mundu zaharrear bezala gertatzen da, baina beste zentzu batean: heleniarrek behin Afroditari, eta ondoren Apolori eta batez ere hiri bakoitzeko jainkoetako bakoitzari opariak eskaintzen zizkieten bezala, gauza bera gertatzen da gaur, kultua desmitifikatu eta bere jatorrizko eran zeukan plastika mistiko baina une berean egiazkorik ez badauka ere. Jainko hauei eta beren arteko betiereko gatazkari buruz patuak erabakitzen du, ez zientzia batek. Uler dezakegun gauza bakarra da zer esan nahi duen Jainkozkoak sistema baterako edo besterako, edo sistema batean edo bestean. Hemen amaitzen da irakasle batek katedran auziari buruz esan dezakeena, baina horrek ez du esan nahi, jakina, horrekin amaitzen denik barruan dagoen bizi-arazo bortitza. Unibertsitateetako katedrak ez, bestelako botereek dute honetan hitza. Nor ausartuko litzateke Mendiko Hitzaldiko etika zientifikoki gezurtatzera, edo «gaizkiari ez diok aurre egingo» agintzen duen printzipioa edo beste masaila jartzekoa aholkatzen duen parabola? Eta, hala eta guztiz ere, ikuspegi mundutarretik garbi dago duintasunik ezaren etika bat aldarrikatzen dela era honetan. Aukera egin behar da etika honek eskaintzen duen duintasun erlijiosoaren eta «gaizkiari aurre egingo diok, bestela haren garaipenaren erantzukizu-

nean partaide izango haiz» agintzen duen giza duintasunaren artean. Azken jarreraren arabera bakoitzarentzat printzipio bat jainkotiaria izango da eta bestea deabruarena, eta norberak erabaki behar du nor den Jainkoa eta nor deabrua. Gauza bera gertatzen da bizitzako gainerako alorretan ere. Iragarpen erlijioso ororen muinean entzuten den bizitza etiko eta metodikoki antolatutako baten arrazionalismo bikainak politeismo hura desegin zuen beharrezko den bakarraren mesedetan, baina gero, barneko eta kanpoko bizitzak dituen eskakizunen aurrean, kristautasunaren historiaren bidez ezagutzen ditugun konpromiso eta erlatibizatzeetara beharturik aurkitu zen. Gaur hori guztia ohikeria erlijioso da jada. Antzinako jainko ugariak, desmitifikaturik eta botere inpersonal bihurturik, beren hobietatik ateratzen dira, gure bizitzak menderatu nahi dituzte, eta berriro hasten da haien artean betiko borroka bera. Gizaki modernoarentzat eta belaunaldi gaztearentzat bereziki hain gogorra gertatzen dena ohikeria hori da. Bizipenak bilatze hori guztia ahulezia batetik dator. Ahulezia baita gure garaiaren patuaren aurpegi beltzari aurrez aurre begiratzeko ezintasuna.

Gure kulturaren patua, ordea, zera da: berriro etika kristauaren pathosaren arabera gure bizitzaren orientabide bakarrak edo ustez bakarrak mila urtez begiak itsutu zituen horren kontzientzia garbiagoa hartzea.

Irakaskuntza zientifikoaren mugak bizitzaren orientabide praktiko bezala

Baina aski da hain urrun daramaten arazo hauetaz. Izan ere, gure gaztediko zati batek egiten duen okerra da esan dugun guztiari erantzun hau ematea, alegia: «Bai, baina edozein modutan, gertakarien analisiak eta egiaztapenak entzuteko baino zerbait gehiagorako etorri ohi gara klasera», oker hori da irakaslearengan aurrean dutena ez den zerbait, buruzagi bat, eta ez irakasle bat bilatzea. Baina katedran maisu bezala bakarrik izan gara jarriak. Bi gauza desberdin dira, eta

hori horrela dela erraz konbentzi daiteke. Zilegi bekit berriro Amerika aipatzea, han ikus baitaitezke sarri arazo hauek beren jatortasun nabarian. Mutil amerikarrak gurearen aldean askoz gauza gutxiago ikasten du. Ezin sinetsizko azterketak pasatu behar baditu ere, eskolako bizitzaren zentzuaren arabera, ez da bihurtu ikasle alemaniarra den azterketa-gizaki. Hain zuzen ere, karguen erresuman sartzeko txartel bezala diplomak eskatzen dituen burokratizatzea hasiberritan dago han. Gazte amerikarrak ez dio begirunerik ezeri, ez inori, ez tradizioari ez inolako karguri, baina bai hura betetzen duenaren arrakasta pertsonalari; horri deitzen dio amerikarrak demokrazia. Nahi bezain desitxuratua izan daiteke errealitatea horren esanahiari dagokionez, esanahia hori da, eta hori da kontua hemen. Aurrean daukan irakasleari dagokionez, gazte amerikarrak pentsatzen du bere aitaren diruaren truke ezagutzak eta metodoa ari zaiola saltzen, barazki-saltzaileak amari azaburu bat saltzen dion era berberean. Hori da dena. Baldin irakaslea, areago, futboleko txapelduna bada, buruzagitzat hartuko du alor horretan, baina hala ez bada (edo ez bada gisa bereko zerbait beste kirolen batean), maisua baino ez da izango, eta gazte amerikar bati ez zaio bururatuko mundu-ikuskerak edo bizitza zuzen eramateko arau egokiak erosi behar dizkionik. Garbi dago, gauzak horrela formulatuz gero, guk gaitzetsi egingo genituzkeela. Baina orain kontua da ea nik nahita zertxobait puztu dudan gauzak ikusteko modu honetan ez ote dagoen egia apurrik.

Lagunok! Zuek gure ikastaroetara zatozte buruzagitzako tasunak eskatuz eta ez duzue pentsatzen aurretik ehun irakasletatik laurogeita hemeretzi gutxienez ez direla bizitzako futbol-maisu; baina ez hori bakarrik, ez dira inondik ere bizitzako arazoetan buruzagi, eta izateko asmorik ere ez dute eta izan ere ezin dute izan. Gizakiaren balioa ez dago buruzagitarako tasunak izatean edo ez izatean. Eta edozein modutan ez dira aparteko jakitun eta unibertsitateko irakasle egiten duten tasunak norbait bizitzaren norabide praktikoaren

alorrean, eta bereziki politikakoan, buruzagi egiten dutenak. Halabehar hutsa da irakasle batek tasun hauek izatea, eta arrisku handia dauka katedra bat betetzen duen bat tasun horiek praktikara eramatera behartzeak. Arrisku handiagoa litzateke oraindik baldin irakasle bakoitzari utziko balitzaio erabakitzen ea gelan buruzagi bat bezala portatu behar duen ala ez. Horretarako joera handiena dutenak dira, sarri, ezgauzenak, eta, edozer delarik ere, hala izanda edo ez izanda ere, haien egoeran katedrak aukera gutxi eskaintzen du hori frogatzeko. Gaztediaren kontseilari izateko deitua sentitu eta haien konfiantza daukan irakasleak gizakitik gizakira, harreman pertsonalen bidez, gauzatu dezake hori. Eta mundu-ikuskerara eta iritzi desberdinen artean dauden gorabeheretan esku hartzera deitua sentitzen bada, plazan egin dezala, bizitza gauzaten den lekuan, prentsan, bilkuretan, elkarteetan edo nahi duen lekuan, ez ordea gelan. Erosoegia gertatzen da bere iritzien indarra, entzuten dutenak eta beharbada beste iritzi batekoa direnak isiltzera kondenaturik dauden lekuan.

Zientziaren lorpena:

arazoen argitzea, ez mundu-ikuskeren sortzea

Zuek azkenik galdetuko duzue: hori guztia hala bada, zientziak ba al dakar ezer positiborik «bizitza» praktikorako eta pertsonalerako? Eta horrekin, berriro egiten dugu topo haren bokazioaren auziarekin. Hasteko, zientziak gure eskuetan jartzen du ezagutza kopuru jakin bat, nola menderatu aurreikuspenaren bidez bizitza, kanpoko gauzak eta gizakiaren portaera; baina hori gazte amerikarraren barazki-saltzailea baino ez da, esango duzue. Gauza bera pentsatzen dut nik ere. Bigarrenik, barazki-saltzaileak ez du inondik ere pentsatzeko metodoak eskaintzen, ez horretarako tresnak ezta bitartekoak ere. Beharbada nire kontra esango duzue oraindik horiek barazkiak ez badira ere, haiek erdiesteko baliabideak baino ez direla. Onartzen dut: hortxe utz dezakegu gaurkoz. Zorionez,

honekin ere ez da amaitzen zientziaren ekarpena, eta oraindik haren hirugarren emaitza bat erakuts dezakegu: argitasuna. Demagun guk badaukagula. Hori onartzen badugu, guk, irakasleok, entzuten digutenei argi ikusaraz diezaiekegu darabilgun balioaren arazoaren aurrean halako eta halako jarrera praktikoak har daitezkeela (mesedez eskatzen dizuet, laburtzeko, pentsa ezazue gizarteko gertakarietan). Jarrera jakin bat hartzen bada, esperientzia zientifikoak erakusten du halako eta halako bitartekoak erabili behar direla praktikan jartzeko. Bitarteko horiek beharbada zuek zapuztu egin behar dituzuela uste dituzuenetakoak dira. Orduan, helburuaren eta ezinbesteko bitartekoen artean hautatu beste irtenbiderik ez dago. Santutzen al ditu helburuak bitarteko horiek, edo ez? Hautatu behar hori haien begien aurrean jarri besterik ezin egin dezake irakasleak, irakasle bezala irauin bai, baina demagogo bihurtu nahi ez duen bitartean. Esan dezake, areago, zuek helburu hau edo bestea nahi baduzue, kontuan hartu beharko dituzuela halako edo bestelako albo-ondorioak, gure esperientziaren arabera etorri egingo baitira: egoera bera berriro. Bestalde, arazo hauek edozein teknikori azal dakizkioke, aukera askotan gaizkirik txikienaren edo ongi erlati-boaren printzipioaren arabera jokatu beharko baitu. Halere, haiei emana zaie garrantzizkoena, helburua. Eta horixe da, hain zuzen ere, guri ematen ez zaiguna, benetan azken arazoez ari garenean. Eta, hala, argitasunaren mesedetan zientziak egin dezakeen azken ekarpena gatoz, ekarpen honek haren mugak ere zuintzen dituelarik: gure ikasleei esan diezaiekegu eta esan behar diegu jarrera praktiko jakin hori logikoki eta zuzentasunez, haren zentzuaren arabera, munduaren halako ikuspegitik (edo halako ikuspegietatik, batetik baino gehiagotik erator daitekeenez) eratorria dela, baina ez beste halakoe-tatik. Irudietan mintzatuz, esan dezakegu jarrera honen alde egiten duena jainko hau zerbitzatzen ari dela eta bestea iraintzen. Bere buruarekiko zintzo irauten badu, ondorio azken eta esanguratsu hauetara edo besteetara iritsiko da bere baitan.

Printzipioz gutxienez, zientziaren irismenaren barruan dago hau, eta haxe da diziplina filosofikoek eta gainerako diziplinetako hasierako gaiek, bereziki filosofikoek argitu nahi dutena. Gure gaia ezagutzen badugu (eta hori, beste behin, ziurtzat jo behar dugu hemen), norbanakoa behar dezakegu, bere kabuz, bere egintzen azken zentzuari buruz jakinaren gainean gera dadin. Eta behartu ez bada, kontzientzia-hartze horretan lagun egin diezaiokegu gutxienez. Ez zait iruditzen hori jada gutxitxo denik, ezta bizitza pertsonal soilaren ikuspegitik ere. Tentatuta nago hemen ere esateko, baldin irakasle batek hau lortzen badu, botere etikoen zerbitzuan ari dela, argitasuna eta erantzukizun-sentimendua sortzen; eta nik uste dut are kapazago izango dela lan hau gauzatzeko, zenbat eta zintzotasun handiagoz ekiditen duen bere aldetik entzuleei bere jarrera pertsonal berezia ezartzea edo iradokitzea.

Jakina, zuen aurrean azaltzen ari naizen ideia hauek oinarrizko gertakari batetik eratorriak dira, alegia, bizitzak, berenezkoa izaki eta bere baitatik ulertua izan behar duen neurrian, ez duela ezagutzen jainkoen arteko betiereko borroka hori baino; edo irudirik gabe esanda: bizitzari buruz azken batean eduki daitezkeen ikuspuntu desberdinak ezin direla bateratu eta, ondorioz, beren arteko borroka konpontzeko ezintasunean bata edo bestea hautatu beharra dagoela. Baldin, gauzak hala izaki, merezi badu norbaitek zientzia bokazio bezala har dezan edo zientziak bere baitan badu bokazio objektiboki baliotsua, beste behin oraindik, erantzuteko balioko epai bat eskatzen duten arazoak dira eta haiei buruz ez dago zer esanik geletan. Han ematen den irakaskuntzak baiezko erantzun bat eskatzen du. Nik, nire aldetik, nire lanarekin baiezko erantzuna ematen diot arazo honi. Baina horrek era berean balio du, eta era berezian, intelektualismoarekiko ikuspegi funtsean kontrakoari dagokionez ere, gaur gaztediak egiten duen edo —gehienetan— egin uste duen bezala deabrurik gaiztoen balitz bezala gorrotatuz. Haientzat, hain zuzen ere, balio du esakune honek: «Gogoratu deabrua,

zaharra da; bihurtu zu ere zahar hura ulertzeko». Hori ez da esaten adinagatik, noski. Haren zentzua da ez zaiola ihes egin behar deabru horri amaia eman nahi bazaio, gaur hain gustura egiten denez, baizik haren bideak segitu behar direla azkeneraino haren ahalmenak eta haren mugak zeintzuk diren jakiteko.

Lan zientifikoaren mugatzea, «errebelazioari» dagokionez

Zientzia gaur profesionalki egiten den «bokazio» bat dela, norberaren ezagutzaren eta egiazko erlazioen ezagutzaren zerbitzuan eta ez igarleen edo profeten salbazioko ondusunak eta errebelazioak banatzen dituen dohaina edo munduaren zentzuari buruzko jakintsuen eta filosofoen gogoetaren zatitxo bat, horixe da gure egoera historikoaren ezinbesteko datua, eta gu, baldin geure buruekiko leial irauten badugu, ezin atera gaitezke hortik. Eta baldin orain berriro altxatzen bada Tolstoi zuen baitan eta galdetzen badu: «Nork erantzungo dio, zientziak egiten ez duenez, galdera honi: zer egin behar dugu, bada, guk? Eta, nola antolatu behar dugu gure bizitza?»; edo gaur gauean hemen erabili diren hitzak baliatuz: «Borrokan ari diren zein jainkori zerbitzatu behar diogu guk? Edo beharbada guztiz bestelako bati zerbitzatu behar al diogu?, eta nor da hori?». Orduan erantzun beharko da profeta bati edo salbatzaile bati bakarrik zerbitzatu behar diogula. Baldin halakorik ez badago edota haren mezuan sinesten ez bada, ziur da ez duzuela behartuko lurrera jaitsi dadin, milaka irakasle, estatuak ordainduriko profeta edo pribilegiadun txiki bezala, haren eginkizuna geletan hartzen saiatzen badira ere. Era horretan lortuko duten gauza bakarra izango da gure azken belaunaldiak hainbeste antsiatzen duen profeta ez dagoelako egia oinarrizko honen kontzientzia betea ez hartzea. Nire ustez ez zaio mesederik egingo ez orain ez sekula gizaki «musikal», erlijioso, egiazko baten barneko interesari, baldin ezkututzen bazaio ordezkoko batekin (eta ordezkoko dira katedratik egiten diren profetia guztiak) jainkorik eta

profetarik gabeko garai batean bizitzeko patua tokatu zaiola. Nire iritzian, bere sentimenen garbitasunak halako iruzurraren kontra altxatzera eramane beharko luke. Une honetan apika izango duzue tentazioa galdetzeko nola argi daitekeen «Teologia» badela eta zientzia izateko nahikariak dituela. Ez diezaiozun ihes egin galderari. «Teologia» eta «dogmak» ez dira alde guztietan izan, baina ezta kristautasunean bakarrik ere. Denboran atzera eginez aurkitzen ditugu, eta era oso garatuan: izan dira Islamean, manikeismoan, gnosian, orfismoan, parsismoan, budismoan, sekta hinduetan, tanismoan, upanishadetan eta, nola ez, judaismoan. Haren garapen sistematikoa, jakina, oso bestelakoa da erlijio hauetako bakoitzean. Ez da, inolaz ere, halabehar hutsa baldin mendebaldeko kristautasuna izan bada ez bakarrik teologia sistematikoki garatu duena (judaismoaren eduki teologikoaren alderantziz, adibidez), baizik garrantzi historiko askoz ere handiagoa eman ere eman diona. Espiritu heleniarra izan da obra hori sortu duena, eta mendebaldeko teologia osoa handik dator, ekialdeko teologia osoa pentsamendu hindutik datorren bezala. Teologia oro erlijioaren eduki eskatologikoaren arrazionalizatzeko intelektualak da. Ez dago aurrebaldintzarik ez duen zientziarik eta inork ezin frogatu diezaieke haren balioa baldintza hauek ukatzen dituztenei, baina teologiak bere garapenerako eta zurrabiderako bereak diren beste baldintza jakin batzuk sartzen ditu. Zentzu eta zabalera desberdinetan. Teologia oro —baita, adibidez, hindua ere— munduak zentzu bat izan behar duen baldintzatik abiatzen da, eta, hortaz, galdera da: nola adierazi behar da, pentsatzeko posibilitaterik izan dadin? Kanten ezagutzaren teoriaren egoera berbera da, «bada egia zientifiko bat eta baliozkoa da» ematen baitu ziurtzat, eta ondoren galdetzen du zeintzuk diren egia zientifiko hori (zentzuari dagokionez) posible egiten duten baldintza mentalak. Edota estetikari modernoaren egoeraren pareko da orobat, ziurtzat jotzen baitute berariaz (G. von Lukács-ek, adibidez) edo inplizituki «artelanik bada-

goela», eta ondoren galdetzen dute ea nola den posible hori gertatzea eta horrek zentzurik izatea. Teologiak (funtsean erlijioso-filosofikoak), bestalde, ez dira asetzen baldintza horrekin bakarrik, baizik haratago kokaturik dagoen beste batetik abiatzen dira, alegia «errebelazio» jakin batzuetan sinetsi behar dela gertakari salbatzaile bezala (hau da, zentzurik duen bizimodurako aukera ematen duten gertakari bakar bezala) eta egoera jakin batzuek eta egintza jakin batzuek izaera sakratua dutela, hau da bizimodu erlijioso zentzuzko bat osatzen dutela edo, gutxienez, haren atal direla. Eta haren arazoa da, orduan berriz ere, derrigor ezarriak diren datuak interpretatzea, munduaren irudi orokor baten barruan. Teologiarentzat gutxieneko baldintzak zientzia oro baino haratago daude, ez dute osatzen jakite bat, hitz horrek duen ohiko zentzuan, edukitze bat baino. Teologiak ezin eman diezaioke federik (edo kasu bakoitzean kontua den egoera sakraturik) ez daukanari. Ez beste zientzia batek eman diezaioke. Alderantziz: teologia positibo orotan San Agustinen *credo non quod, sed quia absurdum est* esakunea «baliozko» bihurtzen den puntu batera iristen da fededuna. Adimenaren opaltze bertutezko horretaraino iristeko gaitasuna da egiazki erlijioso den gizakiaren seinale bereizgarria. Hori horrela izateak agerian jartzen digu ezen, teologia gorabehera (edo aitzitik, haren ondorioz, bera baita agerian jartzen duena), balio zientifikoen esferaren eta salbamen erlijiosoaren arteko tentsioak ez duela irtenbiderik.

«Adimenaren oparia» eskubide osoz egiten dio bakarrik jarraitzaileak profetari edo fededunak elizari. Hala eta guztiz ere, sekula ez da sortu iragarpen berri bat (eta propio errepikatzen dut batzuei bitxi gerta dakiekeen irudi hau) zenbait intelektual modernok gauza zahar eta jatortasun bermaturikoz beren arimak, nolabait esateko, altzariz jantzeko duten premia asetzeko. Premia hori hautematean gogora datorkie gauza zahar horien artean orain jada ez daukaten erlijioa ere bazegoela, eta orduan haren ordezkotzat bezala jostailuzko etxe-

ko kaperatxo bat eraikitzen dute, munduko lurralde guztietako santuez hornitua, edo bizi-esperientzia posible guztien konbinaketa batez ordezkutzen dute, eta hari santutasun mistiko bat egozten diote ahalik eta lasterren literatur merkatura eramateko. Hori guztia da, besterik gabe, edo berriketa edo norberaren buruari iruzur egiteko gogoia. Ez dago, aldiz, inolako berriketarik, zerbait serioa eta egiazkoa baizik, haren esanahia beharbada zenbaitetan oker ulertzen bada ere, azken urteotan isiltasunean garatu diren gazteen elkarte batzuek elkarte barruan sentitzen dituzten erlazio gizatiarrak erlazio erlijioso, kosmiko edo mistikotzat jotzen dituztenean. Baldin egia bada egiazko anaitasunezko egintza orok harekin batera norberaz gaindiko erresuma bati hilezkor den zerbait gainera dakiokeelako kontzientzia sor dezakeela, era berean zalantzazkoa iruditzen zait elkarteko giza erlazio soilaren duintasuna ulerpen erlijioso horien bidez zerbaitetan goititzen denik. Edozer delarik ere, hau ez da horretaz mintzatzeko tokia.

Gure garaiaren patua, arrazionalizatua eta intelektua-
lizatua eta, batez ere, desmitifikatzailea den garai hauen patua, hain zuzen ere da balio azken eta gorenenak desagertu egin direla ageriko bizitzatik eta erretiratu egin direla edo bizitza mistikoaren munduaz haratagoko erresumara edo norbanakoek beren artean dituzten harreman zuzenen anaitasunera. Ez da halabehar soila baldin gure arte gorenena gaur arte barneko eta ez-monumentala bada, eta lehenago pneuma profetiko bezala ekaitzezko sutan elkarte handietan barna joanez haiek bateratzen zituen zerbait hura gaur elkarte txiki-
kienen barruan, gizakitik gizakira, *pianissimo* batean sumatzen bada. Eta saiatzen bagara arte monumental bat behartzen eta asmatzen, azken hogeitau urteetako bezalako monumentu penagarriak sortzen zaizkigu. Eta saiatzen bagara erakunde erlijioso berriak profezia berririk eta egiazkorik gabe sortzen, barneko zentzuan antzeko zerbait dator, oraindik eragin okerragoak izango dituena. Eta katedratik datorren profeziak sekta fanatikoak sortuko ditu, baina ez egiazko elkarterik

batere. Gure garai honetako patu hau ezin jasan dezaketenei esan behar zaie itzul daitezela isil-isilik, lañoki eta besterik gabe, eta arnegatuen ohiko publizitate tristerik gabe, eliza zaharren zabal irekitako beso errukitsuetara. Ez diete eragozpenik jarriko. Ezinbestekoa da han adimenaren oparia era batera edo bestera egin dezaten. Ez diegu hori aurpegiatuko, egiaz lortzen badute. Izan ere, halako adimenaren oparitzea baldintzarik gabeko entrega erlijioso baten faboretan etikoki beste zerbait da, batek bere oinarritzko jarreraz konturatzeko nahikoa adore ez daukanean gertatzen den zintzotasun intelektual soila ahaztu eta hura erlatibizatzearen bide errazetik betebehari hori norberaren buruari eskuratzearen aldean. Gellen barruan zintzotasun intelektual soilaren bertuteaz aparte inolako beste bertuterik ez dagoen egia ezagutzen ez duten katedrako profetia guztiek baino gehiago balio du niretzat entrega horrek. Gaur profeta eta salbatzaile berriak espero dituzten horien guztien egoera Isaiasen iragarpenetan jasotzen den erbestealdiko begirale edomdarraren abesti eder honetan entzuten denaren pareko dela egiaztatzea agintzen digu zintzotasun horrek:

Dei bat datorkit goizalban Edomgo Seirtik: «Begirale, zenbat luzatuko da gaua oraindik?» Begiraleak erantzun: «Goizalbak etorri behar du, baina gaua da oraindik. Etorri geroago, galdetu nahi baduzu».

Hau esan zitzaion herriak galdetu du eta itxaron bi mila urtetik gora, eta denok ezagutzen dugu haren patu beldurgarria. Atera dezagun hemendik ikasbidea, ezen ez dela aski itxarotea eta irrikatzea. Beste zerbait gehiago egin behar da. Lanari heldu behar zaio eta erantzun gizaki eta profesional bezala «egun bakoitzak dituen eskakizunei». Erraza eta sinplea da hau baldin bakoitzak bere bizitzako hariak erabiltzen dituen deabrua aurkitu eta hari obeditzen badio.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
1.....	7
2.....	31
POLITIKA, LANBIDE BOKAZIO.....	57
Sarrera.....	57
Politika, Nagusitasun erak	58
Politika, albo-lanbide	64
Politika, lanbide nagusi	66
Funtzionario modernoa	70
Politikari profesionalak: elizgizona, literatoa, gorteko noblezia, gentry-a	75
Politikari profesionalak: legelaria, abokatu, demagogoia	77
Politikari profesionalak: kazetari politikoa	81
Alderdiaren izaera eta antolakuntza: ospetsuak, parlamentariak.....	84
Alderdiaren bizia eta antolakuntza: alderdiko funtzionario modernoak.....	88
Alderdiaren bizia eta antolakuntza: Caucus sistema Ingalaterran	91
Alderdiaren bizia eta antolakuntza: boss, alderdia enpresa bezala	97
Alderdiaren bizia eta antolakuntza: alderdiak Alemanian	100
Alderdiaren bizia eta antolakuntza: etorkizuna.....	102
Gaitasun-irizpideak eta politikariaren prestakuntza	105

Politikaren Ethosa auzi bezala	108
Sineste sendoaren etika eta erantzukizunaren etika.....	112
Etika erlijioso eta politika	115
Amaia: politika erreala.....	119
ZIENTZIA, LANBIDE BOKAZIO	125
Halabeharraren papera postuak betetzerakoan.....	128
Grina, zientifikoaren aurrebaldintza pertsonala	132
Lan gogorra, gaitasuna eta etorria.....	133
Zientziaren eta artearen arteko bereizkuntza	135
Arrazionalizatzea, aurrerapena eta munduaren desliluratzea	138
Tresna zientifikoak: «kontzeptua» eta «esperimentua»	140
Egiazko artearen eta naturaren bila.....	142
Azken arrazoiaren huts egitea zientziaren oinarri bezala.....	144
Norberaren uste sendoei buruzko neurritasuna lan zientifikoaren barruan	146
Balio-sistemen arteko gatazka irakaskuntza zientifikoaren baldintza-barruti engaina ezinezko bezala	150
Irakaskuntza zientifikoaren mugak bizitzaren orienta- bide praktiko bezala	152
Zientziaren lorpena: arazoaren argitzea, ez mundu-ikuskeren sortzea.....	154
Lan zientifikoaren mugatzea, «errebelazioari» dagokionez	156